





NEMESIO ETXANIZ

teatrozaleen gogoan

Nemesio Etxaniz

teatrozaleen gogoan

Eugenio Arocena



Nemesio Etxaniz

AURKIBIDEA

IRAKURLEA	9
BIOGRAFIA	10
NEMESIO ETXANIZEN ANTZERKIAK	25
* ANTZERKI PRODUKZIOA	25
* SARRERA	25
* ANTZERKI HISTORIKOAK	30
* ANTZERKI TEOLOJIKOA	39
* ERESI-GIROA	44
IRRATIRAKO IPUIN ANTOLATUAK	47
* UGAZALABA	51
* DOMINISTIKU	59
* BIZIRIK ZERRALDOAN	65
* AZERIAREN ZORIA	71
IZEKO ABERATSA	75
KANTUEN DOINUAK	133
NEMESIO OROITUZ	149

AURKEZPENA

Nemesio Etxaniz ez dute antzerkilariek erabat ahaztu; gogoan dute, eta gogoan izateaz gain gogora ekartzekotan dira egunotan, jaio zela ehun urte betetzen ditugun honetan, horretarako propio prestatu dituzten lanekin.

Zuek, irakurleok, gazte eta antzerkizale irudikatzen zaituztedan irakurleok, seguru asko ez duzue Nemesio Etxanizen berri handirik. Liburuxka honek horrexetan lagundu nahi dizue, batez ere, Nemesio Etxanizen antzerki-idazletza ezagunago egiten, ezagutzen ez denari ez baitzaio eskerrik ematen.

Zer da, gaur egun, zuentzat antzerkia? Ikastetxean noizean behin egiten duzuen jarduera, gehienetan alaia? ; egiten ez baduzue, noizean behin ikusten duzuen ikastetxeko beste talderen batzuek antzeztua, edo beste ikastetxeren batekoek jokatua? Azpeitiko Antzerki Topaketetan ikusten duzuen?; herriko edo auzo herriko antzokiren batean behin edo behin ikusitakoa?, edota telebistan ematen dutena: Goenkale, Jaun eta Jabe edo besteren bat? Beharbada, denetik pixkatxo bat. Hala ere, seguru asko askoz gehiago ikusiko duzue telebista aparatuaaren pantailan beste inon baino. Oker banabil pozten naiz, baina ea ados zaudeten nirekin: ez al zaio gertatu antzerkiari telebistak jan diola gizartean zuen leku garrantzizkoa? Hala ere teatrozaleok ez dugu etsiko, eta bideoak zinema irensterik lortu ez duen bezala, ez diogu utziko kaxa tontoari antzerkilaritza xurrupe eta hil dezan, ez horixe!

Nemesio Etxaniz antzerki-lanetan hasi zenean, telebistak ez zion teatroari trabarik egiten, ez baitzegoen. Bergaran hasi zen, 1930 inguruan, Santa Marinako parrokiako apaiz laguntzaile zela. Jakizue, irakurleok, orduan, 1936ko gerraurrean, antzerkiak indar handia zuela. Gipuzkoan batez ere, hiriburuan eta herrietan. Azkoitian, esate baterako, Olimpia antzokian egiten ziren antzerkiak, kaslistenak erdaraz,

eta nazionalistenak euskaraz. Emanaldi dexente izaten ziren urtean zehar. Zinema, artean, mutua zen, eta antzerkiak hortxe-hortxe bizitasun eta gatz-piper gehiago zuen. Antzokiak bete egiten ziren herriko jende xumez. Euskarazko teatroa beti herrikoia izan da, herrikoiegia beharbada, ez baita burges teatro edo gorteko teatrarik euskaraz egin, arrazoi politiko-historikoak tarteko. 60ko hamarkadan Donostiako Jarrai antzerki taldea teatro modernoa egiten hasi aurretik, eskolatu jendearentzat burututako antzerki gutxi egin da, batere ez, ez esatearren.

Gorago esan dugu Bergaran hasi zela Nemesio Etxaniz antzerkigintzan, eta 20ko eta 30eko hamarkadetako urteetan, apaiz laguntzaille zela. Gero Deban jarraitu zuen gerraondoan (1946-1950), Azkoitian (1950-53) eta Donostian azkenik (1954-). Zergatik hasi ote da lan horretan? Zerk erakartzen ote zuen? Zer leku betetzen zuen orduan teatroak eta zer egin nahi zuen Nemesio Etxanizek? Behin baino gehiagotan aipatu zuen berak teatroa bide ona zela euskaldun irakurle alferrak euskaltzaletzeko. Jende gehiagorengana iristeko bitarteko egokia. Eta euskarari bultzada emateko aukerakoa. Hala ere, nik uste, orain artekoak ez duela dena esplikatzen. Azalpen gehiago eman behar dira.

Gaur egun teatroa astialdiko jarduna-lanbidea gutxi batzuen kasuan -edo ikuskizuna den bezala, antzezle edo ikusle garen, orduan ere halatsu zela esan liteke, jai arratsaldeetan eta eskaintzen zena. Lehen eta orain ere aktoreari, beharbada, erakargarrien pertsonaia multzo zabalari gorputza eta hitza emateko teatroak eskaintzen dion aukera gertatuko zaio; eta ikusleari delako pertsonaia-joko horien bilakaera: korapilo-aurkezte, korapilo-estutze, eta korapilo-askatzearen gorabehera horiek guztiak. Bestela esan, antzezleak moxorro gabe, pertsonaiarik gabe, esango eta egingo ez lituzkeen gauza asko esan eta egiten ditu; eta ikusleak, ohiko bizimoduan, ez entzun eta ez ikusi egiten dituen zerak entzuteko eta ikusteko aukera du. Nemesio Etxanizi ere beste horrenbeste. Bere apaiz izaera zela eta, teatroa beti ipuina eta asmazioa den aitzakiapean bestela adieraziko ez dituzkeen gauzak

adierazi zituen komedia eta drametan.

Lehen eta orain ere, antzerkia jostagarria da, dibertigarria, barre eragile eta negar eragile edo behinik behin zirrara sortzaile, eta ikasgai moral dun edo/ eta kritika sozialaren egile, era batera edo bestera. Zalantzarik gabe, moralismo gehiago lehen orain bano. Ez zaizu harrigarri gertatuko, irakurle, Nemesio Etxanizen antzerkietan moral ukitua baldin badago, espiritualtasun bizia. Gogoratu beharrik ez dago, Elizaren aginduek eta apaizen irakaskizunek itzal gehiago zutela gure dramaturgoa gizon sasoikoa zen garaian, eta nahitaez horrek izan behar zuen eragina hain fenomeno soziala den teatroan.

Hala ere, delako espiritualtasun hori, esango nuke, oso sentitua eta benetakoa sumatzen dela azkoitiarren lanetan. Adibideetara etorritz, Eugenio Arozenak maitasunez prestatu digun Nemesio oroitz izeneko antzerkira jotzen badugu, eta azken ekintzarako aukeratu digun “Maite ere... neurritz”i erreparatzen badiogu, batez ere, agertokian emana ikusten badugu, alde batera irreal samarra irudituko zaigu, sentimentalegia, maitasun gehiegiaren ondorioa, azken muturreraino eramana; baina, beste aldera, ohiko materialismo, eguneroko konformismo eta diruzalekeria arruntenetik goratuak bezala, altxatuak bezala sentituko gara, izpirituaren erresuman gaindi.

Bigarren alderdi hau benetan sumatzeko, eta onartuz gero eskertzeko, gauza batetaz konturatu beharko genuke. Urte gutxiren buruan, demagun hogeita hamar bat urteren bueltan (1930-60) aldaketa izugarriak gertatu ziren Euskal Herrian, Espainian eta munduan. Bi gerrak, Espainiakoa eta mundukoa. Euskal Herrian, bereziki Gipuzkoa eta Bizkaian industrializazioa ikaragarri azkartu zen, eta honekin batera imigranteen etorrera, sekularizazio azkarrarekin batera. Donostia batean, herri handietan, dirua, materialismoa, garapena, eta igandeetan futbola ziren nagusi, balio espiritualak behera eta behera zihoazen neurri berean, Hala ikusten zituen gauzak behinik behin Nemesio Etxanizek. Burgeskeria, diktaduraren aurrean konformismoa, eta hitz batean, astean dirugintzan eta asteburuan denborapasa hut-

sean sumatzen zituen gehienak. Horren kontra balio moralak, espiritualak, erreibindikatu nahi ditu. Gehiegizko amodioak ere tira egiten dio.

Eugenio Arozenaren Nemesio oroitzuekin jarraituz, lehen ekintzarako Zotzean bizia hautatu digu. Zuek badakizue, irakurleok, Euskal Herrira azken eta gauden mendeen kanpotik jende asko etorri den bezala, Euskal Herritik kanpora ere, batez ere, Ameriketara, gure historian zehar jende asko joan dela. Asko gerra edo gerrak galdu izanaren ondorioz, emigrazio politikoz; beste asko berriz, dirua egite aldera, emigrazio ekonomikoz, gure artean itxuraz bizitzeko lain ezin aterata. Behenafarroatik eta Bizkaitik laborari eta baserritar asko abiatu da Nevada aldera artzain lanetara. Euskal emigrazioaren gaiak aukera ematen dio Nemesio Etxanizi golkoan gordeta zeuzkanak jendarean adierazteko.

Gauza asko ikustea tokatu zitzaion Nemesio Etxanizi. Lehen ere esan dugu, urte gutxiren buruan asko aldatu zela Euskal Herria. Gogor borrokatu zuen frankismoaren aurka, eta ostikoak hartu zituen. Etxera polizia joan zitzaion errefuxiatu itxurapean, Eymar koronel fama txarrekoak itaunketa egin zion. Gobernadoreei egindako gutunak aldizkari batean argitaratzeagatik sei hilabeteko kartzela eta isuna ordaintzera zigortu zuten, espetxean sartu ez bazuten ere. Euskarak ordurarte landu gabe zituen lurak lantzen asko ahalegindu zen. Lehenbiziko olerki erotikoak eta kantu modernoak sortu edo itzuli zituen. Eta bere inguruko askok ez zuten ulertu, eta honek min handiak eragin zizkion. Belarrondoko eta ostiko hauek guztiek goibelaldiak, etsipenaldiak sortzen zizkieten, eta mundu honetan pairatu beharrean garen sofrimenduen absurdua adieraztera eta salatzerara eramaten zuten. Honen guztiaren adierazgarri da Zotzean biziako bakarrikzeta. Zuritua teatroa delako, eta amaiera zoriontsua duelako.

Saminaldi eta pesimismo bolada hauek ez zuten ordea bere umore ona, umore gazi-gozoa suntsitzen. Nahigabeak ahaztu, eta ez zion muzinik egiten gitarra hartu eta euskal kantua zahar eta berriak kan-

tatzeari. 1950eko lehen urteetan, artean Azkoitian dantza lotua debekatua zegoen. Euskal abestiak betikoak ziren, abesbatza eta koruek kantatzen zituztenak; eta abesti modernoak erdararen erresuma. Amorrua ematen zion gure idazleari bereizketa horrek: kanta berri modernoak erdaraz, eta euskaraz betiko kantak bakarrik. Zuei orain esango balizuite bezala: Kaos etiliko eta koma bai, baina Etsaiak eta Su ta Gar ez. Kantu zaharrak atsegin zituen, baina kantu berriak ere bai, eta hauek euskaraz nahi zituen. Horretan aitzindari izan genuen. Nemesio oroitzuz hor dituzue abesti batzuk erakusgarri bezala. Gogoan hartazue kanta horiek idatzi ez ezik kantatu ere egin zituela bere garaian. Ez bakarrik lagunartean, areto bateko jendaurrean ere bai, esate baterako, Eibarren egin zuen bezala 1965ean.

Hemendik aurrera esan dezakezue gehixeago dakizuela Txakolingo Don Nemesio Etxanizi buruz. Lerro hauen ondotik hor dituzue egoki bilduak eta ohar nahiz sailkapenez hornituak haren antzerki-lan gehientsuenak. Zuen lana da horiei bizia ematea, gorputz eta hitz bihurtzea.

PAKO SUDUPE



IRAKURLE:

Garaikideek hain estimatua izan zuten Nemesio bizi izan balitz, ziur egon zaitez guk egin geniezaiokeen omenaldi onena Azpeitiako Antzerki Topaketek eskeinutakoa dela, hots, ikastetxeetako gazteen arteko irati saioa.

Nemesio oroituko da, han zeruan, bere bizitzako zenbait pasarte adibidez: Donostiako etxebizitzetako geletan izaten ziren euskeraren lehenengo ikasketak ematera joan izana Zipitria eta Esnal andereñoi laguntze arren. Honela, astean behin, ikastolako lehen ikasleei kantuak erakusten zizkien.

BIOGRAFIA

1899. abenduaren 19an, Azkoitian, kale Nagusiko 31eko 2. solairuan jaio zen, eta hurrengo egunean Joakin Azpiazu erretoreak bataiatu zuen. Izarraitz mendikateak babesten dituen baratzen fruitua izan zena orain baratza horien sabelean dago.



Jose Luis eta M^a Antonia, Nemesioren gurasoak.

Etxaniz-Aranbarri familia, oso oparotsua zen Aita Jose Luis Etxaniz eta ama berriz Antonia Aranbarri ziren, biak azkoitiarrak. Gurasoak elizkoiak ziren. Aita eliz kontuetan ez omen zen txantxetako gizona, elizako mandamenduak ondo betetzen zituela zioten eta Nemesioak hau jakinik ez zuen bere aitari nahi-gaberik emateko asmorik.

Nemesiok “Izotz-Kandela” eleberrian bere bizitzako zenbait pasarte kondatzen ditu eta pasarteetako batean honela dio:

Ez, ez! Bera etzan bere aitari alako naigaberik emateko gauza. Apaizgintzarako ikasteak lagatzeko kemenik etzuan. Bere bidea erabakia zegoen, beraz. Artaraino iritxi zan ezkerre, apaiz egiteraiño aurrean eraman bearko zituan bere ikas-bideak. Amari zegokionez alderantzizko errespetu-sentimentua zeukan, errukiaren mailara iritxiaz, famili opurtsu haren gobernua bere zeregina izan baitzen eta honek gure Nemesiori inoiz ahaztuko ez zuen gupida eragiten zion. (1)

(1).- ETXANIZ, Nemesio. Izotz-Kandelak Gobernadore jaunari eta beste zenbait jauni gutunak. 92 Or. Ed. Elkar Donostia-1992. Iñaki Seguiolak prestatutako edizioa.

Nemesioren anai-arrebatara hurbilduaz Sudupek honela dio:

Senideetara etorri 11tik (bat jaio orduko hil egin zitzaizen) bost lotuko zitzaizkion erlijio-bizitzari: hiru emakume moja egingo ziren eta bi gizaseme apaiz. Bost anaietarik batek ezik, guztiek egin zituzten ikasketak. Apaizgaitegietan, lau anaiak, Santander probintziko "Comillas"eko Apaizgaitegian ikasi zuten nahiz bi gazteenak baino apaiztuko ez ziren. Anaia zaharrenak mediku ikasketak egin zituen eta apaiztu ez ziren beste biek "Comercio" garai hartan oraingo Empresarialesen antzekoa zena. Beraz guztiek ere ikasketa handiak Emakumeei dagokienez, batek piano-ikasketak egin zituen, eta moja egin ziren bi gazteenak maistra ikasketak izan behar zituzten eginak komentuan bertan". (2)

Etxaniz sendiaren erlijiotasun sutsuan, aitaren ideologi integristak eragina izan zuen, halaber herriko hainbat jende giro honi ez zion muzin egiten eta dudarik gabe, Nemesioren heziketako lehen urratsetan eragina izan zuen.

Heziketako lehen urratsak, azkoitiako "Mixerikordian" eman zituen eta jarraian "La Salle Anaiak" sortu berriko ikastetxera paseaz, bederatzi urtez bertan aritu zen.

Lekaroz'en (Nafarroan) bi urte igaro zituen Aita kaputxinoen ikastetxean ikasten.

1912. urtean "Comillas"eko seminariora (Santanderko Unibertsitate Pontifiziora) joan zen, hamalau urte luzez, ikasketak egitera. Apaiz ikasketetan hamabi urte igaro zituen eta beste biak Zuzentza-Kanonigoan.

1924. urtean Santanderren apez ordenatzearen arrazoietakoa, bere aitak minbizia aurreratua izatea zen eta hil aurretik apaiztua ikusi nahi zuen. 1924.ko ekainean apez ordenatu zen, handik hilabete batera Nemesioren aita hil zen.

(2).- Sudupe, Pako.- Nemesio Etxanizen biografia eta ideologia. 25 Or. Ed. Euskaltzaindia BBK Fundazioa- Bilbo 1996.

Nemesioren euskal zaletasuna "Comillas"en berpiztu zen, bertan euskaldun multzo handia zegoen, ehun bat ikasle izango zirela esan ohi da. Gainera seminarioko horma goibeltsuek herri mina oraindik gehiago bizkortzen zuten. Tristura hura hauste arren idazleek ama euskeraren altzoan babesa aurkitzen zuten. Idazleen artean; Orixe (Nikolas Ormaetxea 1888-1961), Nemesio baino 2 urte beranduago iritsi zen, jadanik "Aldizka" hilabetekaria argitaratzen zuten. Jose Garcia Goldaraz (1888-1961 Hernanin jaio eta Valladoliden hildakoa) Euskaltzaleen artean gerora antzerki idazle ospetsua izango zena. Beste kargu askoren artean Orihuelako gotzaia izendatua. Idatzitako antzerkiak "Zintzotasuna" hiru ekitaldikoa eta "Maitasun eta Gorrotoa" Bilboko Euskaltzale Bazkunak eratu zuen teatro sariaren irabazlea.

1925.ko otsailaren 12an, Arabako Urarte herrixkako erretoretza hartu zuen, bertan urte t'erdiz egon zen.

1926.ko irailaren 14an, Bergarako Santa Marina parrokiara bidaltzen dute, bertan hamar urte luzez egon zen. Parroki honetan gazte-txoentzako kongregazioa eta gurasoentzako "Azi ona" izeneko elkarteak sortu zituen nahiz batean nahiz bestean kristau heziketa-tik kanpo, kantu, antzerki, zinema, eta abar antolatu zituen.

Guri dagokiguna antzerkia denez, esan behar da Bergaran sasoi hartan bi antzerki talde zeudela, bat "Eusko Batzokikoak" eta bestea, "Zarronzale Bazkuna", bi taldeei laguntza eskeintzen zion Nemesiok. Bi antzerki talde hauek hainbat antzokitan taularatu zituzten berauen eskaintzak, adibide bezela hor daude, Donostiako Poxpolin aretoan (Kursaalen) eskeinitako emanaldiak.

1936. urtean, gerla hasi bezain azkar Burgos aldera joateko gomendioa egin zioten, erabaki honek ez du zoriotsu egiten baina beste bi apaiz lankideekin Burgoseko bidea hartu beharrean izan zen.

Honela dio bere idatzi batean:

"Allá por el año 1936, a los pocos días de entrar en Vergara las tropas Falangistas-Tradicionalistas, para celebrar la fiesta de Santa Teresita del Niño Jesús salí desterrado con otros dos sacerdotes, residentes como yo en aquella localidad a disfrutar de las delicias de Castilla.

Resultaba un tanto cómico el que estos españoles del imperio consideran a Castilla, como un País de penados y de destierro. Los vascos creíamos que los castellanos tenían una idea más elevada de su tierra.

Tras el pintoresco recibimiento que nos hizo el Sr. Arzobispo de Burgos, negándonos las licencias para celebrar la Santa Misa y después de vagar por la Cartuja y más tarde por Vitoria, llegué a Deva por mayo de 1937. (3)

1939.ko maiatzaren 24ean, Zumaiaiko Artadiko apaiz izendatu eta ekainaren 1ean Mikel Deuna Elizako ardura hartu zuen. Urte bi atzeratuaz esan behar dut Nemesio Gasteizetik Debara bere anai medikuaren etxera etorri zela eta bi urteko egonaldia egin ondoren Zumaiaiko bidaia hartu zuela. Zumaiaiko parrokia honetan ez zuen denbora askorik iraun nahiz eta herrian ontzat hartzen zituzten Nemesiok prestatzen zituen ekintzak, bai zirela kristau ikasbideak, filmeen eskeintzak, tertulien antolakuntza, bertan arnoa eta gailetak banatuz, ekintza guzti hauek herritar gehienek miresten zituzten, baina esaten den bezala larrosa artean ere arantzarik ez da inoiz falta ziztada jasotzeko eta Nemesiok ere inbidia ziztada jaso zuen. 1940. urteko Aste Sainduan sermolaria ez zetorrela eta berak prestatu zuen sermoia. Zenbaitzuri hau ere ez zitzaion gustatu eta ahal zuten guztia egin zuten Agintarien aurrean, Nemesio Zumaiatik joan zedin. Sermoiaren zatitxo bat hona ekarri dut:

"...los reyes, presidentes, generales y demás jefes militares, para poder ganar las batallas y triunfar en la guerra, necesitan mandar a otros por delante a arriesgar sus vidas. En cambio Jesucristo triunfó sacrificando únicamente su vida..." (4)

(3-4).- Sudupe, P. Nemesio Etxanizen biografia eta ideologia. -73 eta 75 Or. Ed. Euskaltzaindia-BBK Fundazioa Bilbo 1996.

Azkenik, bidali zuten Nemesio Zumaitik eta berriro bere anai medikuaren hurbilera -Debara- itzultzen da. Gertaera honen berri jakin bezain laister Lauzirica Gasteizeko Elizbarrutiko Zuzendariak, joateko agindua ematen dio Nemesiori. Nemesiok ez zuen batere ondo hartu agindu hau eta gogor erantzun zion Lauzirica Jaunari, esanaz: -Zumaiako gertaerak oso minduta utzi zuela eta ez zuela adorerik beste herrixka batera joateko, eta eliz kargurik ere ez zuela nahi- Honek adierazten zuen elizako soldatarik gabe gelditzen zela. Eztabaidaren amaiera Erromatik etorri zen, bi aldeei ulermena eskatuz, bi aldeak lasaitu ziren eta Nemesio denbora labur baterako Andoaingo herriskara joan zen.

1940.ko uztailaren 16an, Andoaingo ardura hartu zuen eta egun gutxitara Deban zeukan anai medikuarengana itzuli zen berriro. Deban hamarkada bat egiten du "Amillaga" zeritzan auzoan, bere anai medikuarengandik gertu. Eguneroko meza Debako Hospitalean ematen zuen eta egun jakin batzutan deiak izaten zituen inguruetako herri eta auzoetatik elizkizunak eskaintzeko. Gerlak cuskal gizarteari eragindako zauriak, osteko urteetako frankismoaren tratamenduak ez zituen ixten, gaiztotu baizik, herri zauritu honi eskaintzen zion tratamendu bakarra, enplastu espagnolista baitzen, eta honek gainera kostra sortzen zuen eta azpian gaiztotutako haragi bizi-bizia zegoen. Zauriak zauri eta zola-zola Nemesio jaunak pentsatu zuen aski zela eta oztopo guzien gainera giza-eskubideak zeudela eta berriro euskalduntasuna ez zela galdua adierazteko, gazteen artean euskalgintzako zenbait alo jorratzen hasi zen. Ekintza hauen artean "Alostorrea" antzerki taldearen sortzea dugu. 1947. urtean, lehen lana eskaini zuten. "Gabon-gabonetan" Ziarzola Manuel "Abeletxe"ren (1902-1987) ekitaldi bateko komedia eta lehen emanaldi honetan izan zuten arrakastaz Nemesio berak honela dio:

1946.ean egoki iruditu zitzaidan euskaraz antzezteko saiakeraren bat egi-tea. Zentzu horretan "Alostorrea" antzerki taldea eratu nuen, kontu han-diz pentsamolde politiko guztietariko gazteak aukeratu nituen eta ustega-bean 1947ko urtarrilaren 3an Abeletxe idazlearen "Gabon-gabonetan" jolas komiko-lirikoa antzestea lortu genuen.

Nahiz eta urte haietako deseskualduntze lan maltzurra, herriak zuen eus-ker a gosea zela eta, Deba eta bertako Itziarko auzoa "Miramar saloiak" jendez gainez egin zezan ahalegindu ziren —Itzulpena—.

Gerla osteko lehen hamarkadan euskarazko antzerkiak taularatu-ko baziren beste hainbat antzerki gaztelaraz eskaini behar izaten ziren, honen zergatia ondorengo idazkiak argitzen lagunduko digu, aurreko idatziaren jarraipena da, ondorengo hau ere:

Bada ez bada ere, ondoren, gaztelanierazko antzezkizun bat prestatzen hasi nintzen; baina dagoeneko gurekiko muturturik eta susmorik bazuten, horrela Gobernu Zibilaren notatxoa jaso genuen, gure antzezkizunetarako zenbait baimen eskatuaz.

Nik neuk ikuskizunen sindikatura jo nuen, bertan gure taldea "Educación y Descanso"n taldean barneratuz era guztietariko erreztasunak izango zituela adierazi zidaten. Beraiek arduratuko ziren beharrezko baimen guz-tiak lortzeaz, antzezkizunetarako beharrezko jantziez ere ardura zitezkeen, eta ahal izanez gero laguntza ekonomikoren bat ere lor genezakeen.

Debara irzultzean nere gazteei "Educación y Descanso" izena eman zeza-telaren kontseilua eman nien, izen emate hori antzezten jarraitzeko beha-rrezko izango genuelako susmoa bainuen, izen ematea "Cartilla de Abastos"en ere egin zuten, herri honetan jan ahal izateko.

Nere kontseilua jarraitu zuten eta "Educación y Descanso" inskribaurik aldi batez antzeztu ahal izan genuen.

Ordurarte gure entsaiuetarako "Ostolaza" eskolako behe solairuaz balia-tu ginen, giltza Debako Alkateak berak eman zidan. Erreferenduma iritxi eta eliz irizpideak jarraiki ez bozkatzea erabaki nuen.

Alkate jaunak handik gutxira, ikastaldiak eman behar zituelaren aitzakiz, lokalaren giltza eskatu zidan. Ez da aipatu beharrik bertan ez dela esko-larik ematen ez eta emango direlaren argi izpirik. Orduan Debako Maistra Nazionalarengana jo nuen entseiu leku bila, eta berari eskerrak nire lana-rekin jarraitu ahal izan nuen nesken eskola publikoan.

Pasa den urrian "La hilandera de la capilla" antzezkizuna prestatzen hasi

ginen. Gainera arratsaldez eskolan zebiltzan, erlijioso nahiz profanoa, irakasteko asmoz.

Nire baikortasunak hilabete t'erdiz iraun zuen. Azaroa amaieran nere etxera Debako Guardia zibilen kabua etorri zen poliziako komisario zen Andrade jaunaren komunikatu batekin, bere Gobernu Zibileko bulegora joateko, Gobernadore jaunaren aginduz, abenduaren batean. Elkar ikusteko arratsaldeko seiak aukeratu zituzten.

Agindu bera zuen nerekin eskuzabal jokatu zuen irakasleak, honek bere osasuna aitzakitatzat jarri zuen ez joateko. Baina Gobernu Zibiletik, begikortasun haundiko, ondorengo erantzuna jaso zuen: "Mediku batengaitik aztertua izango zela, eta ez bazegoen larri goardi zibilen bikote batek lagunduta joango zela elkarrizketara".

Horrenbesteko begikortasunaren aurrean, frankoren tropako aire kapitain gradua zuen irakaslearen senarrak, komisarioaren bulegora jo zuen. Bere emaztea arratsaldeko seieta joan beharrean hilaren bian joatea lortu zuen, grazia bezela.

Trenbideetan gertatutako lurjauzi batek gobernu komunikatuak aipatutako egunean joatea eragotzi zigun.

Irakaslea elkarrizketatik txunditurik irten zen, "Alostorrea" taldeari buruzko galderez zorabiatu zuten. Komisarioaren arabera zatitzaileez osatua: nire abestien abertzale kutsuko letrak; ni apal lanean nengibilen zatitzailea.

Irakaslek ez zuan lan handirik izan baieztapen haiek hutsean uzteko. "Alostorrea" taldearen partaide ziren emakume falangearen ordezkaria eta frankoren zenbait soldadu besteren artean. Kantak berriz batzuk erlijiosuak ziren; Angelusa euskaraz, Itziarko Andre Mariari kantu bat, eta abar...; beste batzuk profanoak soka-saltoan aritzeko eta solasean kantari aritzeko, eta abar... Baina egiak ez zuen baliorik salaketen faltsokerien aurrean, salaketak ezkutatu egin zaizkigu, salatzailearen izena bezela.

Irakasleak berriak eman zizkidanean, "Educación y Descanso"ra jo nuen eta probintzi burua zen Villarreal jaunari agertu nion nere harridura gertaera hura zela eta, nahiz eta nere proiektuak berari adierazi eta berak esandakouren arabera jokatu nuen: Berak aitzakitatzat baimenik ez zidala eman jarri zidan. Nik horren aurka, baimena besterik ezin nuela pentsa adierazi nion, hainbeste aldiz nere hitzak borondate onez entzun ondoren uen.

Aldi berean egotzi zidan ez nizkiola nere preferentzi politikoak adierazi. Ihardetsi nion nere aurretikoen herri bazuela uste nuela eta hori zela eta ez niola gai horri buruzko ezer adierazi, eta era berean ez nuela inolako eragozpenik erreferendumean bozkatu ez nuela esateko.

Arratsaldez Andrade jauna apalagoa agertu zen nirekin. Edozein liskarrek alderatzen zuen eta haurrekin egiten nituen ekintzekin eta "Alostorrea" taldearekin ez jarraitzeko gobernu agindua iritxi arazi beste asmorik ez zuela zioen.

Azken batean baieztatu zidan nik euskal kantak erakusten nituela eta horrek aintzindaritza esanahi zuela. Beraiek euskal kantu horiek Donostian baimentzen zituztelaren nire erantzuma alperrikakoa izan zen". (5)

Debako egonaldia gogorra egiten ari zitzaion, aurrez aipatu dugun bezela, elizaren egituratik at zegoenez diru-iturria murriztua zeukan, zituen diru etekinak Debako Hospitalean ematen zituen mezak ziren eta hango eta hemengo frankisten zikoizke-riak Nemesioren euskaraz bizi nahia zapuzten zuen. Horrela Deba utzi eta beste bizileku bat aurkitzea hobe izango zela pentsatu zuen.

1947. urte inguruan "Irulearen negarra" trajedia "Alostorrea" antzerki taldearentzat egokitu zuen gaztelerazko "La hilandera de la Capilla" dramen oinarrituz, agintarien eskakizunari erantzunaz, antzerki bat euskaraz eta bestea gazteleraz taularatuko zuten. Antzerki honi buruz berak honela dio:

Oharra:

Antzerki hau. Lendik eratua zuan Gorostidi ta Agirretxe 'tar Juan E... jaunak. Honen lana begien aurrean dedala egin det nere au. Asko aldatu ta geitu det lengoaren lana, baiña oraindik lenengo aitaren ikutu asko gelditu zaizkio. Orregatik bion izeneko bezela, jartzen dizut, antzerki au. Gure izkuntza indartzeko dedila nere aldaketa lana. (6)

(5).- ETXANIZ, N. "Un problema que urge" 147 Or. SEGUROLA I. Prestatutako Izotz-Kandelak Gobernadore eta beste zenbait jauni gutunak. Elkar-Donostia-1992.

(6).- ETXANIZ, N, "Oarra" 61 Or. Irulearen negarra eta Izeko aberatsa Montepio Diocesano 'ren irarkolan Gasteiz-1952.

Gorostidi jaunak "La hilandera de la Capilla" antzerki lana gaztelera idatzi zuen. T. Alzagak (1861-1941) "Eleizatzoko Ardazlea" izenarekin itzuli zuen eta 1935 urtarrilaren 20an "San Sebastian" egunez Donostiako Iztunde Eskolak Alzaga beraren zuzendaritzapean taulara eraman zuen. "Eleizatzoko ardazlea" Antzerki'n 1935 Dagonilla-Agorra 44-45 zenbakian argitaratu zuten. Argitalpen honek dioenez lan hau Oñati'n saritua izan zen. 1950ko apirilean Debako "Amillaga" auzoa utzi eta Azkoitira abiatu zen:

Azkoitiako herritik Loiola aldera jo eta erdibidean Izarraitz mendikateari erantsia Santa Kutz'eko komentua dago Azkoiti-Azpetiak Loiolako Santutegia barne, menpean hartzen dituela... (7)

Nemesioren bizitzan Azkoitiako egonaldia oso garrantzitsua izan zen euskal sormenaren ezkaratza bilakatu baitzen. Bere jaioterriko herrian erdal giroa han eta hemen aurkitu zuen eta bereziki Ikastetxeetan, Irratietan, Udalean... giro hontan euskal gaztedia itota zegoela eta euskal giroa berpizteko beste ekintza zenbaiten artean herrian antzerki talde bat bultzatzea izan zen.

Nemesio Azkoitiara iritxi zenean ez zuen euskal giro aproposik aurkitu. Bazeuden hemenka dantzari batzuk; San Martin auzokoak, besteak gerla aurretikoak, gerlan frankistek ikurriña eta dantzarako makilak herriko plazan erre zizkietenak eta honelako ekintzak ematen duen oroitzapen beldurtiaren ezkutuan zebiltzanak. Dantzari talde bat osatuaz hasi zirenean, Nemesiori hau ez zitzaion aski iruditzen eta gazteak antzerkia egitera ere bultzatu zituen 1951. Urteko Eguarritan "Abeletxe"ren "Gabon-Gabonetan" antzerkia Olimpia antzokian taularatu zuten. Antzerki-Ekintzak gaztedia berpiztu zuen eta Olimpiar bigarren antzerki bat ere taularatu zuten, antzerki hau Nemesio beraren "Izeko aberatsa" izan zen.

"Izeko aberatsa" antzerkian bi pertsonaia protagonista ditugu: Antoni eta Xabier, Izekoaren ilobak. Bi pertsonaia hauek taularatu zituztenak, Antoni:

(7).- SUDUPE, P. Nemesio Etxanizen Biografia eta Ideologia 88 Or. Ed. Euskalytzaindia- BBK. Bilbo 1996.

Mertxe Juaristi Badiolak eta Xabier: Jose Luis Elorza Elorzak. Antzerkian bi pertsonaiak ezkondu egin dira. Bizitza errealean ere gure bi azkoitiarrak ere ezkontzen dira eta bikote honi esker gaur nik Azkoitia eta Nemesiori buruz gehiago dakit. –Mila esker–.

1952ko urriaren 7an, Gasteizen (8) bi antzerki argitaratzen dizkiote. Bat "Izeko aberatsa" eta bestea "Irulearen negarra". Lehenen aipatutako antzerki hau 1951-1-29 idatzi zuen. Gasteizen argitaratutako liburuaren sarrera honela egiten du:

GOGO ARGITAN:

Negarti guztien iletak alde batera utzita, ba-goaz euskaltzaleok gure bidean aurrera.

Ta lenbizi irabazi bear degun tantoa, Euskara politikeri guztietatik askatzea, izango da. Gure izkuntza, ez da onena edo arena, guztiona baizik. Mundu guztian, jakintsu artean, geroago ta gorago dijoa Euskera-gosea. Etxeko edergalurik onena bezela agertzen zaigun izketa au, ezin baztartu dezakegu, beaz. Arlote osoak bear genduke, ori egiteko.

Bigarren irabazi bearreko tantoa, auxe dugu: Euskera, naiz jakintza-gaioletan (kulturan), naiz elerti-sailean (literaturan), nagusitu ditekela erakustea. Uste okerretan bai-daude asko ta asko gure artean.

Onenbeste alper esnatzeko berriz, antzerkia (teatroa) degu zirikatzaierik onenetakoa. Euskarazko libururik irakurri nai ez duten askori, euskal teatroak egoki zabaldu dizkie begiak.

Ondoren dijoazkizun bi lanok, euskal-antzerki saila aberastu-nahirik datoz. Lenbizikoak parre eragiñaz eta bigarrenak negarra sortuaz, biak bide batera dijoaz. Gure artean, gure izketa zarraren zaletasuna esnatzera.

Tarteaz dijoazen doñuak, nere beste liburu KANTA-KANTARI izenekoan, arkituko dituzu. An ez dituzunak, liburu honen azkenean jartzen dizkizut.

Jaungoikoa lagun, nere alegin au, ez al-da aizetan galduko! Langile obeak eta ugariago sortu bitez lenbailen euskal-baratzan.

Azkoiti'ko Santa Kutz'en. 1952'ko Brijida Donearen egunean. (9)

(8).- Etxaniz Nemesio.- Izeko aberatsa eta Irulearen negarra Montepio Diocesano'ren irakorian Gasteiz- 1952.

(9).- Etxaniz, N. "Gogo argitan" in Izeko aberatsa eta Irulearen negarra. Montepio Diocesano'ren irakorian Gasteiz-1958.

Nemesiok ez zuen berak nahi zuen bezain euskal girorik Izarraitz mendikatearen hegian aurkitzen, bereziki, erlijiosoen ikastetxeetan ikusten zuena. Giro honek Nemesio nahigabetzen zuen, eta barruan egosten ari zitzaion euskal-sormenaren zurrunbiloak ezin besteko giro hobeagoa izango zuen lekuren bat aurkitzera bultzatu zuen. Leku hau Donostia zen.

1953. abenduan, Donostiara dator, parrokiarik gabe, baina eguneroko meza "Reparadoras-en Komentuan" eskaintzen du. Donostiako egonaldia luzea da; Jainkoak bere altzora deitu arteraino, bitartean euskal ibilbidean muturreko asko jasoagatik ez du parrokiario gutxi, parrokirik gabeko apez honek.

Donostiako egonaldian landu zituen alor nagusienetakoak hauek izan ziren:

- Euskara erakusteari ekiten dio eta Donostiako CCC akademiaren babespean, euskara ikasteko metodoa antolatzen du.
- Irrati saioak ere egiten ditu, sasoi hartan "La voz de Guipúzcoa" izeneko irradi saioak eskaintzen ditu. Irrati saioen partaideak: N. Etxaniz, M^a Dolores Aguirre, Aita Aguirretxe, Enrique Zurutuza eta Manu Oñatibia izan ziren. Irrati saio hauek urte t´erdiko iraupenera iritsi baino lehenago, Nemesio talde honetatik alderatzen dute ekintza politikoak tarteko zirela. Nemesioren ordezkoa Basarri jarri zuten.
- Garaiko egunkarietan: "El Diario Vasco eta "La voz de Guipúzcoa"n lankidetzak eskaintzen du, baina alferrik, ezezko borobila jasotzen du.

1956. urtean "Gabak zekarren eguna" hiru egintzako antzerki dramatikoa idazten du. Arantzazuko Amaren Urte Sainduaren omenez ospatutako antzerki lehiaketan lehen saria irabazten du.

1958. urtean, "Antzerkiak, Kontu-Kontari" (10) izenpean Nemesio Etxanizen sormenezko zenbait lan argitaratzen dira.

Argitalpen honetan agertzen diren antzerkiak, hauek dira:

"Gabak zekarren eguna"; "Maite ere... neurritz"; "Zotzean bizia"; "Gabon zauria".



Ostatu zokoetan hainbat batzar eginak ziren Nemesio eta bere adiskideak. Tokiz ere maiz aldatu beharra izaten zuten eta hauetako bat duzue argazki hau: garai bateko Aurrera jatetxea eta Nemesiorekin batera aurkitzen dira, beste bi antzerki gizon. Argazkiko hiruak Azpeitiako Antzerki Topaketetan omendutakoak dira: On Manuel Lekuona 1993; Antonio M^{te} Labayen 1998 eta Nemesio Etxaniz 1999.

Lau antzerki hauen aurkezpena liburuxkan honela egiten du:

ESKEINTZA:

Gure teatroa mantuxeetan degu oraindik: mutiltzen zaigun bitartean, altxo batzuek eskeintzen ari gera al-degun neurrian. Ta nori eskeñi gaurko auek? Gure antzerkilari-taldeetan dabiltzan langille sari-gabeei, noski. Bijoazkie lagun saiatu oiei, nere agurra ta txaloak. (11)

Egillea

(10).- ETXANIZ, N. Antzerkiak Kontu-Kontari Ed. Itxaropena "Kuliska Sorta N^o27-28 Zarautz-e, 1958.

(11).- ETXANIZ, N. "Eskeintza" In Antzerkiak Kontu-Kontari Ed. Itxaropena "Kuliska Sorta N^o27-28 Zarautz-e, 1958.


1958. urte inguruan, antzerki mugimendua eratzen hasten da euskal herrietan eta nola ez Donostian, bertan bi antzerki talde daude: Donostiako Iztunde Eskola eta Jarrai taldea. Nemesiok bi antzerki talde hauek ondo ezagutzen zituen eta bere laguntza talde bati eskaini zion; Jarrai taldeari. Honen arrazoietako bat egotzi behar zaio aurrez aipatutako irrati saiotik kanporatu zuten unean lankide zituen zenbaitzuen joera ez zitzaiola Nemesiori egokia iruditu. Beraz holako gertaerak sortzen duten hoztasunaren fruitua izan zen Iztunde Eskolarekin harremanik ez izatearen arrazoietako bat.
1961. urtean, Nemesiok Jarrai antzerki taldeko kideei irakurtzeko komedia bat eskeini zien:
- "Mujeres en Berrigorriaga" Victor Ruiz Añibarrok idatzia eta 1949. urtean Buenos Airesko Casal Catalán antzokian taularatua, Acción Vasca'ren babespean. Jarraikoei antzerki egokia iruditu zitzairen eta Nemesiori eskatu zioten euskeratu zezan, baita honek egin ere. Jarrai antzerki taldeak 1961. Abenduaren 24ean Antzoki Zaharrean taularatzen du "Ito edo....Ezkondu" izenarekin. Ondorengo egunetan Arrasate eta Orion eskeini zituzten emanaldiak.
1968. urtean "Ito edo....Ezkondu" (12) argitaratzen da.
1978. urtean "Lur Berri Billa" liburua (13) Donostian argitaratzen da. Nemesioren sormenezko lanez osatutako liburua da, bertan aurkitzen dira: Eleberri laburrak, Ipuinak, Irratsaio txangoak, Irratirako ipuin antolatuak, Irrati antzerkia eta Olerkiak.
- 1982.eko urtarrillaren 27an arratsaldeko zazprietan hil zen, 82 urterekin. Hiletak Donostian eta Azkoitian egin zitzaizkion. Lurra,

(12).- Ruiz Añibarro, Victor. Mujeres en Berrigorri / Ito edo Ezkondu Tra. Nemesio Etxaniz Ed. Añamendi 60 San Sebastian-1968.

(13).- ETXANIZ. Nemesio. Lur berri billa Ed. Gipuzkoako Aurrezki Kutxa Probintziala -Donostia 1978.

Azkoitiko kanposantuan eman zioten, biharamunean.

1985. urtean Nemesioren "Azeriaren zoria" A. Onaindiak (14) argitaratzen du, antzerki lan hau aipatutako "Lur Berri Billan" liburuan ere aurkitzen da.



(14).- Etxaniz, N. "Azeriaren zoria" In 25 antzerki labur 163 Or. Onaindia A. Ed. Euskarazaintza Bilbo-1985.

IZOTZ - KANDELAK

(eleberria)

GOBERNADORE JAUNARI

ETA BESTE ZENBAIT JAUNI

(gutunak)

NEMESIO ETXANIZ

Iñaki Segurolak prestatutako edizioa

Nemesio Etxaniz'en antzerkiak

Antzerki produkzioa:

N. Etxaniz apaizaren antzerki produkzioa honela banatzen dut:

Bi drama historiko: "Irulearen negarra" eta "Gabak zekarren eguna".

Hiru drama: "Maite ere... neurriz"; "Zotzean bizia" eta "Gabon zauria".

Komedia bat: "Izeko aberatsa".

Irrati antzerkia: "Izarren bidetan".

Ondoren, egileak dioen bezala "irratiko ipui antolatuak" ditugu eta gure kasuan egokia ikusten dut ipui-dramatikoak bezala agertzea:

Sei ipui-dramatiko: "Ugazabala"; "Alkartuak"; "Amen"; "Doministiku"; "Bizirik zerraldoan" eta "Azeriaren zoria".

Sarrera:

Aztertuko ditugun antzerkiak, antzokietan antzezteko idatzitakoak izango dira: dagoeneko aipatutako bost dramak eta komedia.

Nemesioren dramak irakurtzeak nire gaztetxotako oroimenetara narama: Oiantzungo "Hospital Zaharreko" (gaur egun On Manuel Lekuona liburutegia bezala ezagutzen da) Kapillan urteko sei hilabete-tako igande arratsaldeetan bi orduz dotrina izaten genuen D. Jose Luis apaizaren eskutik, handik ez zegoen ihesik, egun bateko hutsuneak, hurrengo igandeko irakurketa eta galdekizuna zure esku gelditzea baitzekarren eta hori sasoi hartan astuna iruditzen zitzaidan. Aspaldiko giro hura gogoratuz Nemesioren antzerki dramatikoek Dotrinako ikasgaiak dirudite, bost drama hauen sabelean bertute teologalak aurkitzen baitira: Fedea; Esperantza eta Karitatea.

19
95



**NEMESIO ETXANIZEN
BIOGRAFIA ETA IDEOLOGIA**

Pako Sodupe Elorza

MIKEL ZARATE SARIA
SAIOA

EUSKALTZAINDIA
FUNDACION BBK FUNDAZIOA

Sasoi hartan nik etxean neukan eta daukadan dotrina begiratu eta hiru bertute hauei buruzko galdera-erantzunetan honela dio:

G.-Zer gauza da Fedea?

E.-Sinistea icusi ez guenduena, zergatic Jaungoicoac ala errebelatu duen.

G.-Zer gauza da Esperantza?

E.-Esperatzea gloria eta ondasun eternoak Jaungoicoaren graziaren eta gure obra onen medioz.

G.-Zer gauza da Caridadea?

E.-Amatzea Jaungoicoa gauza guzien gañean, eta gure proximoa gueren buruaz bezela, izaten gurala aequin, ayec gurequin izatea nai degun bezela.

Nemesio apezgintzarekin konprometitua zegoela ez du inortxok auzitan jarriko; Kristau bizitza egin eta jorratzen zuen. Nemesiok kristautasun hazia ereiten zuen, antzerkia bitarteko zelarrik. Nemesioren-tzat Euskal Herria elizbarrutia zen eta bertan dotrina euskaraz erakutsi beharra zegoen, kristautasuna euskaraz bizi eta xurgatzea nahi zuen, bere lan batean honela dio:

BETEBEHAR KULTURALA:

Lurreko herri guztiek kultura unibertsalari ekarpenak egiteko eskubidea eta obligazioa dute, bakoitzaren berezko kultura landuaz. Herri bakoitze-ko berezko kulturari izaera partikularra ematen dion lanabesa hizkuntza da. Hau arima bezala da eta hitzegiten duen herrian zehaztapena. Beraz, Euskal Herriak kultura unibertsalari bere ekarpena egiteko eskubidea eta obligazioa du, horretarako bere hizkuntzaz baliatuz.

Gure kasuan gehigarri dugu, euskara kultura unibertsalarentzat benetan preziatua izatea eta bereiziki hizkuntzalaritzarentzat, Europako hizkuntza zaharrena izateagailik.

Hori dela eta jakintsu atzerritar askok agertu dute eta agertzen jarraitzen dute benetako interesa euskararen natura ikertzeko garaian eta baita beren bitartekoen bidez aintzinako idazkiren bat interpretatzeko.

Beraz Españiarentzat benetan lotsagarria litzateke euskararen balio neur-tu ezinaz ez konturatzea, ezezagunak konturatu diren bitartean, gure kul-tura falta pentsaezin batengaitik bitxi preziatu hori galtzen uztea. Mirariz gure egunetaraingo bizirik iraun duen monumentu nazionala.

BETEBEHAR PSIKOLOGIKOA

a.- Hizkuntza propioak duen edukin psikologikoa hain indartsua da ezen ezinezkoa den hitzegiten duen herriarentzat berarengandik axolagabetza.

b.- Herri batek bere hizkuntza zenbat eta gehiago hitzegin geroz eta sustraituagoa egongo da berarekiko maitasuna.

c.-Euskara birraitona izana zen erromatar hizkuntzak umekia izaten hasi zirenerako. Beraz psikologi lege unibertsala jarraiki, euskarak euskal ari-man sustraitua egon behar du gaurkotasun berdin ezinaz.

d.-Euskaldunek ez dugu euskara hitzegiten (gaztelaniar askori iruditzen zaion bezela) ezagutzen ez duenari gogaitzeko, baizik eta gure hizkuntza delako eta herri guztiek bezela gure hizkuntzan adierazteko beharra sentitzen dugu. Gure artean beste hizkuntza batean adierazteak maisukeri irrigarria litzateke.

E.- Gure hizkuntzaren erabilera gure herrian debekatu edo mugatzen zai-gun bakoitzean, euskaldunek sentitzen dugun haserre gaztelaniarrek gaztelan gaztelaniera debekatu edo mugatzeko saiakeraren bat egingo bagenioke adinakoa litzateke.

ESKUBIDE NATURALAZ

Gehiago oraindik: Bada eskubide bat Jaungoikoak definitua norbanako bakoitzari, herri bakoitzari, sortutako izakien natura mugatzean, eskubide hau eskubide naturala da lege naturalak onetsia.

Eskubide hau, Jaungoikoak ezarria balitz bezela, edozein gobernuren gaitenetik dago, eta inork ezin ditzake gaindi sortzailearen arauak.

Ez dago "Behe mailako" herririk, Jaungoikoak eskuperatuta beste herrien menpekotasuna jasatera ez eta herri "Pribilegiaturik" Jaungoikoak hala-behartuz beste herriak menperatzea, Jaungoikoak eskubide eta askatasun berdinak ezartzen ditu herri guztientzat.

Eskubide naturalaren barne dagoen eskubideetako bat da, herri guztiek bere hizkuntzan hitzegiteko duten ahalmena.

Beraz ezin liteke inolaz ere Euskal Herriari (Espaniarrak kontsideratu ala ez.) debekatu euskara hitzegitearen eskubide eztabaidaezina, ez eta bere bizitza pribatu zein publikoko arlo guztietara zabaltzea. Beraz debekua ez da katolikotasunaren aurkako erasoa soilik, baita ere gizatasunarekiko erasoa eta era okerreneko tiranotasuna. (15)

(15).- ETXANIZ, Nemesio. "Un problema que urge" In Izotz kandelak Gobernadore jaunari eta beste zenbait jauni gutunak Ed. Elkar-36 Donostia 1992.

Nemesiok, Euskal herriko bizi poza euskaraz izatea nahi zuen eta antzerkia izan da bere sormenezko lanetatik egokien bideratu duena. Aurrez beste bi maisuk eliza eta euskarak antzerkian duten garrantzia, adierazi ziguten, modu honetan:

Eleiza eta antzerkia:

Le théâtre est donc un instrument de régénération social dont l'Eglise devrait s'emparer comme elle le fit autrefois, pour l'instruction des fidèles. (16)

Harispe 1854-1929

Euskera eta antzerkia:

Gaur egunean gure, erri au euskaltzale egiteko, teatrua dala uste dot bide-rik laburrena eta errezena. Irakurri gitxi irakurtzen dabe euskaldunak; eztakielako, askok; neketsu dabelako, gehienak izango. Begiak argi-tzen gaitz dogunezkero, belarriak gozatu daiogiuzan errari. (17)

Azkue 1864-1951

Bi gizon ospetsu hauen ikasgaiak Nemesioren antzerkiaren branka izango dira, horregatik Nemesioren sei antzerkietatik bost teologi kontextuko antzerkiak dira. Aipatuko ditudan bost drama hauek ezin dira, hala ere, zaku berean sartu, "Irulearen negarra" eta "Gabak zekarren eguna" drama historikoak dira. Beraien egitura ere antzekoa da, eta "Zotzean bizia" komedi-dramatikoa da.

Sei antzerki hauen fitxa teknikoa ondorengo eskeman agertuko dut eta eskemaren jarraian antzerki bakoitzaren berezitasunak:

(16).- HARISPE, Jean Pierre. "La réforme du Théâtre. Perkain. XV Or. Jean Pierre Harispe A. Boneta eta G. Aldabaltrekuren edizioa. Klasikoak-60. Donostia-1992.

(17).- ORTUZAR, R. Oroigarriak "Gaubeka Irakorla Bermeo 1925 "Irakurleari zerbait" 7 Or. Azkue R.M".

Fitxa teknikoak:

Jokolariak					
Antzerki lanak	Emak.	Gizon.	Ekitaldiak	Egitura	Teologikoak
<i>Irulearen negarra</i>	17	3	III eta erask.	Drama Historikoa	Bai
<i>Izoko aberatsa</i>	23	15	III	Komedia	Ez
<i>Gabak zekarren eguna</i>	20	15	III	Drama Historikoa	Bai
<i>Maite ere... neurriz</i>	2	3	I	Drama	Bai
<i>Zotzean bizia</i>	3	2	I	Komedi-Dramatikoa	Bai
<i>Gabon Zauria</i>	9	7	I	Drama	Bai

Itzulpena eta Irrati-antzerkien fitxak ere ondoren bijoazte.

<i>Ito edo... Ezkondu</i>	4	3	II	Komedia	Ez
<i>Izarren bidetan</i>	3	3	I	Irrati-Antzerkia	Ez

Antzerki historikoak:

"Irulearen negarra"

Giroa: XVI. Mendearen haseran gipuzkoar eta bizkaitarrek lapurtarrekin dituzten gatazkak.

Gatazka: Debako Zubeltzu gazteluko eta Lapurdiko Gazteluzareko Jauntxoan arteko gorrotoa. Gaiztakerien eta Zeru-esperantzaren indarren eragina.

Kolorea: Ondo eramaten du baina aurreneko bi ekintzetan. Hirugarren eta azken atalean, Zubeltzuko andrea ardatz bihurtuaz kolorea desorekatzen da.

Erritmoa: Lehenengo bi ekintzetan erritmoak maila txukuna hartzen du eta azken ekintza eta atalean kolorearen antzera moteltzen da.

"Gabak zekarren eguna"

Giroa: XV. mendeko azken aldera Ahaide Nagusien arteko borrokak. Arantzazuko Ama Mariaren agerpena.

Gatazka: Ahaide nagusien arteko borroka. Hemen ere Zorigaitza eta Zeru-esperantzaren indarrak tarteko direla.

Kolorea: Antzerki honek bi aldeetako eztabaidaren oreka Arantzazuko Ama Mariaren bidez lortzen du.

Erritmoa: Erritmo neurtua lehen ekintzatik azkeneraino, poliki poliki goruntz doa, Arantzazuko Amaren inguruak borobiltzen du.

Bestalde esan behar da antzerkiko pertsonaia guztiek Jaungoikoagan sinesten dutela, nahiz eta batzuek besteek baino neurri txikiagoan sinistu.

Bi drama historiko hauetan agertzen da, "ZORIGAITZA" eta "ZERU-ESPERANTZA". Bi indar hauen eredia bi jainkosen bidez bermatzen da: zorigaitzarena sorginengatik eta zeru-esperantzarena. Ama Maria Birjinarengatik.

Gaiztakeria giroaren eragilea ilunpeko erreginen eskutik dator eta tenporala da, bitartean zeru-esperantza alderantzizkoa da, argiaren erreginak izanik gizon dohakabeen artean, gerora-animaren salbazioa eskeintzen du.

Bi drama historikoen zorigaitzaren zurrunbiloaren gurpilak pertsonaiak ez ditu zurruputzen, zurrunbiloaren ertzean ibiltzen dira dohakabeak bailiren.

"Irulearen negarra", dramaren sorgin amak honela dio, alabari:

Badakin, alaba gure egitekoa zer dan. Gein maite gaituztenak galtzea...

Gaiztakeriaren zurrunbiloan jarraituz, Nemesiok honela planteiatzen du: Arrantzale gazteek kexu dira itsas zabalean arrainik harrapatzen ez dutelako.

Hizketa hau arrantzale zaharren belarrietara iristen da eta gazteei

esaten diete beraiei ere antzekoa gertatu zitzaiela eta guztia aztikeri baten fruitua dela, "sorginkeria". Zaharrek historia kontatzeari ekiten diote, haiei ere berdina gertatu zitzaien, eguna pasa eta gaua joan eta sareetan arrainik erortzen ez, egun batean marinel bat ohartu zen arrantza untzia sorgindua zegoela eta itsas zabalera ateratzen ziren lehen egunean, sorgiñek hondoratuko zutela. Historia kondatzen duena untziko patroiairen iloba da:

Osabak deadar egin zidaken: Joanes, artu arpoia ta jarri ontzi aurrean erne! Gero mutillei: Mutillak, aurrera! Arnasa ere geldituta getxeakean une larri artan, osabak berriro: Sartu berriro arraunak! Itsasoa bareago ezin ziteken, ez aize ez olatu ta ontziak urgeldi ura, ebakitzen zian. Ontan ez nundik ta ez andik, Uramendi-aldean olatu zuri-zuria jaiki uan gure aurrean. Gure ontziak igo zian zuzen olatu gañera ta berriro ondora jetxi uan. Osabak orduan abots illunez: Esnezko olatua! Ta berriro: "Arraun mutillak!" An uan laster bigarren olatua, apar ori-oria zekarrean, ta berriro aidatu zian goraño gure ontzia: Malkozko olatua!" Oiu egin ziten ontziko guztiak ikaraz. Ta osabak geroago ta illunago: Arraun mutillak!" Orru egin zigukan. Arrangazi aldera urreratu giñanean, biotz guztiak itota, mendi bat añako olatu gorri-gorria jaikitzen ikusi genian. Uztai aundi baten gisa, bereala artuko zian barruan gure ontzia: Joanes, gertu arpoia!" Zorrotz deadar egin zidaken osabak: Zulatu olatua!" Nere indar guziak batuaz, bota nian orduan arpoia ur-mendi artara. Bereala garraxi min bat atera uan uretik, ta olatua erdi bi eginda, gure aurrean itxasora-ko bidea zabal-zabalik gelditu uan.

Egun artan gure ontzia arraiz gañezka ekarri genian; baiñan etxeratu giñanean gure izeko Milia il-zorian arkitu genian bere gelan. Osaba sartzen ikusi zuaneko: Madarikatua!" deadar egin ziokan eta bazterreara begira, il da gelditu uan. Gerotxoago nere andregai Uxanda, kalean itxura guztia aldatuta billatu nian: Alde nigandik eriozgile ori!" Esan zidaken beste munduko abotsez eta bereala ezkutatu uan.

"Irulearen negarra" Antzerkian lehen ekintzako pasarte nagusia aztikeriari buruzkoa da eta antzekoa aurkitzen dugu *"Gabak zekarren eguna"* dramen ere. Haseran antzinaren deia honela egiten du:

ANTZIÑAREN DEIA (Esanaz edo abestuz)

*Ni naiz Antziña zaarra
Euskalerrikoa
Nere gain daukat Mari
Gaizto-ren besoa;
Errien ondarena,
Giza-gorrotoa,
Eta aztikirien
Illunpe-lañoa!*

Lehen ekintzan aurrera jarraituz Ibarretako ola zaharrean aurkitzen gara. Bertan daude, Ana, etxeko mirabe zaharra eta Milia hamairu urteko neskatila:

(Aizea nasten dator: emakume biak azken-itzen oroipenetan ixil eta geldirik lotzen dira. Aize bolara bat arrotzen da).

Ana.- Ene!... Aize au... Ederki gogoratzen naiz... Orrelakoxe egualdia zan zure ama il-aurrez. Ta gaur hamasei urte ere, Arrasate su ta gar erre zanean, aurrez orrolakoxe aizea jaiki zan... Mari Gaizto!... Garagartza'ko kanpaiak geldituko al-du!

Milia.- Zer ari zera, Ama?

Ana.- Ikusten al-dituzu laño aiek? Maiatzeko Gurutze-eguna igaro degu. Agorreko gurutze-egunerarte Mari-Gaizto laño oien zai egoten da bereak egiteko. Goiko ta beko aizea burrukan asten diranean, an da bere aitz-zulotik atera nairik.

Milia.- Nor da Mari Gaizto?

Ana.- Andrazko sorgin gaizkille bat Amboto'n du bere gordeleku nagusiena. Aitzulo aundi batean gordeta, an asmatzen ditu giza emakumeok galtzeko biurrekeri guziak. Ez al-dituzu uda-aldean Garagartza'ko kanpaiak sarri entzuten? Mari Gaizto bere zuloan lotzeko jotzen dituzte; baiña apaiza errian ezalako-edo, kanpai-jotzea aztutzen ba-dute, Mari Gaizto bere aitzulutik irtetzen da igesi, ta egundoko zorigaitzak bialtzen ditu lur ontara. Euskalerra gaxoa, aren asmaketa txarren mende gorrian bizi da.

Milia.-Ta irtetzen danean, nora joaten.

Ana.- Aloñaren maldan du beste ezkuta-lekua. Gaizto-zulo'ko aitz-aon barrena galtzen da orrelakoetan. Erruki arek orduan ikusten duena! Laster izango du etxeetan edo auzoan il-berriren bat.

Milia.-Ta iñork ikusi al-du Mari gaizto.

Ana.- Askok eta askok, Milia. Neuk ere, zure amaren eriotz-aurrez ikusi nuan; baita Arrasate kixkali zuten aste-barruan ere. Suzko bola bat dirudi aidean dijoanean; gar-isatsa dariola dijoa, eta aize-burrunda barruan zaldi-talde izuen azkazkal-ots aundia nabaitu oi-da. Aren zalaparta orduan!

Milia.- Bai beltz jarri zaigula Udala-aldean!

Ana.- (Ontan, aizeak txistu bizia jotzen du. Tximistak asten dira... Urrutira, kanpai-ots aundia entzungo da Garagartza-aldetik) Berandu... berandu dator kanpaia! Mari Gaizto'ko zulotik iges-egin du, ta galduak gera. Sartu gaitezen etxera lenbailen, sorginak ikus ez gaitzan. Jainkoak eriotzatik gorde gaitzan, kandela bedeinkatua piztu-ko degu.

Bi antzerkietako lehen ekintzetan zorigaitzaren hazia ereiten da. Baina hurrengo ekintzek jarraipen desberdina dute. Adibidez "Irulearen negarra"n aztikeri hazia, itsasoaren antzutasunean datza. Ondoren itsas zabalean Debako arrantzaleek txalupa galdu batean Gazteluzarreko Gaston seme zauritua aurkitzen dute eta etsaia denez Debako plazara dakarte bertan urkatu edo erretzeko asmoz; Zubeltzuko andrearen karitatea Gaston dohakabearengana ere iristen da. Karitatearen izenean eskutatik kentzen die arrantzaleei Gaston Gazteluzarko semea eta Zubeltzuko gaztelura eramaten du.


Arrantzale bat bere lagunei honela zuzentzen zaie:

Peru.- Nere lagunok, aitu zadazue! Andre Madalen, emakume on eta leñargi onek dionez, gazte au bere aide-tartekoa da; ta begiak malkoz bustita, beronen bizia gorde dezagula, eskatzen digu. Zuen artean, andre oni ezer zor ezionik ba-lego, su-makil au ar beza, ta egurrak piztu bitza... Baiña... nik bezela, eskergabekeri beltzez izan ezik, andre onen eskaria bete gabe utzi ezin ba-zenezakete, atzerritar au bere eskuetan utzi dezagun, eta deabruak gal bitza prantzes alenok!

Zubeltzuko andrearen karitatezko bizitza Peruk bere hitzen bidez ederki adierazten du, baina zorigaitzaren kolorea mota askotan agertzen da eta kasu honetan maitasunean. Bigarren ekintzaren hasera:

*Gezurretan ari ziran izarrak alkarri
Etziñala neretzako, maite zoragarri.
Ai, al-ba-zindut tenbailen etxera ekarri!
Gure biotzak dezaten maitezko lokarra.*

Bi gazteak, Gaston eta kattalin maitemindu egiten dira, Beronako bi gazteen antzera, hemen ere, maitasunak ondorio berdina du. Edo gertuago hain sonatua zaigun markesaren alabaren kontakizuna, Mutrikuko Erdi aroko gertaera honek non aipatu alaba mariñel batez maitemintzen den, badu antzik aztertzen ari garen antzerkiarekin. Gazteluzarreko jaunek ez dute onartzen bere semearen maitasuna ez eta honek ekar dezakeen lotura. Etxera itzultzeko eskatzen diote gurasoek semeari: Hirugarren eszenan bi gazteak banantzen dituzte eta Gaston etsimenak hartuta ingelesen aurkako borroka batetan joan eta bertan heriotza aurkitzen du. Kattalinek hau jakinik penaz ondokoa dio:



Mari Gaizto azkenean Ibarretako olu zeharkatzen du eta honen ondorioz Ibarretako biztanleak izugarritzko sarruskia jasango dute Butrongo Aide Nagusiek eraginda.

*Izarrak eskuta dira,-
Goibelaren mende:
Zu berriz, lurpe otzean
Maite, or zaude.
Zora bearrean nabil
Beti zure galde.
Laster batuko nazaizu
Eriotz-bestalde.*

Zubeltzuko gaztelua hankaz gora dago etxeko andre Magdalenak burua galdu duelako, ingurukoei Zeru esperantza eskatzea baizik ez zaie gelditzen:

*A. Iñigo.- Itziarko Ama Maitea! Zure Ama begi oiek gure gain zabal irza-
zu! Zubeltzuko etxekoandrearen biotz bera, apur bat arindu! Gaston i
berenek agertu zion errekoa, esker onez, ordain ezaiozu!.*

"Gabak zekarren eguna" antzerkia ez da aurreko antzerkian bezela garatzen, honek baditu berezitasunak, antzerki honetan kolorea askoz egokiago erabiltzen da.

"Gabak zekarren eguna"ko lehen ekintzan argi gelditzen da Mari Gaiztoren aztikeriak zer ondorioa ekarri ohi dituen. Bigarren ekintzan gizakumeek aztikerien ondorioak pairatzen dituzte. Alde batetik lehor-te izugarriak Euskal Herria astintzen du eta bestetik Aide Nagusien gorrotoa noiznahi azaleratzen da, adibide modura bi pertsonaien elkar-
ririketa:

*Urrexula'ko Pedro.- Zeñi etzaio, ordea, odola berotuko ganboar oiek egin
dituztenak gogoratuta? Arrasate'ko suak eta eriotzak aztutzekoak al-
dira?*

*Joanes Araoz'koa.- Eta oñazterrok garbi al-zaudete? Zertarako deitu
zuten Butron'go otso jendea gure artera? Ez al-zenekiten Arbolan-
txa'tar Santxo'ri Butron odol-zale arek eman zion azkena? Oñazea
luzatzearren aitzo txiki batez lepoa ebaki gizonari, biozgabe arek!*

Ekintza aurrera doala azkenaurreneko agerraldian Baltzategiko Errodrigo gazteak aurkikuntza egiten du, bere sendikoei honela adic-
raziz:

Milia.- Artzai-lan oiek neke geiegi sortzen dizue, errodrigo.

Errodrigo.- Arkitu dedan mirariak, neke guziak ederki ordaindu dizkit, Milia... Alaba batean, azkartza-aldeko sakon-une batetik arran-otsa ote-zan, iruditi zitzaidan... Urruti zan zintzarri aren otsa... Pauso batzuek... geroago ta biziago zekarren aizeak... Aloña maldan ta biziago dek, bada... Gure ardien kanpai-otsa ote zitekean?... Banago, ez-nago... Aitz-mutur eta sastruka, elorri ta arantza... Banoa bizi-bizi soñu aren otsera... Andik dek, ba... Ene! Ta zer da argi ori? Zintzarri-otsa datorren aldetik dek gañera... Urrerago ta kezkatiago ninjoan... Begiak igurtzika zokoratu naiz... Nun ari da soñu ori?... Ontan, nere barru guzia ikara, lurrean josita gelditu nintzan... Elorri baten gañean, zeruko agerpen zoragarria neukan nere aurrean. Andra Maria, arantza-gañean zeruko argia zeriola, ta besoetan bere Seme Jesus zuala, begi gozoz neuri begira"... Elorri-oñean zintzilik kanpaitxo bat.

Lope.- (Errodrigoren aita) Aizeak dantzatuko zian-da.

Errodrigo.- Etzan aize-txintxarik ere zoko artan.

Juana.- (Errodrigoren arreba) Nork eragiten zioan, ba?

Milia.- (Barrutitar'en alaba) Zeruak eraginda, noski, Errodrigo.

Errodrigo.- Bai Milia, Zeruak eraginda; nere poza betetzeko, bost ardi galduak mirariaren inguru pake-paketsu larrean.

Lope.- Ardien arran-otsa izango uan ik entzuna, mutil.

Errodrigo.- Ez, ba. Bostak zintzarririk gabe zeuden egun artan, ain zuzen ere... An nengoen ero-antzean nere barruko zirrada menderatu eziñik... Begiratu Andre Maria'ri, begira Jesus'i, begira zintzarriari, begira ardieei... Enintzan bereala nere onera etorri.

Santxa.- (Otxoatarra) Zenbat mirari erabat.

Errodrigo.- Gizona arritzeko lain, santxa andrea. Azkenik belaumiko jarri-rik, Zeruko Ama'ri begira esan nuan nereikiko: "ARANTZAN-ZU" Eta Andre Mariak begi gozoz eta üz gozagoaz erantzun zidan barnera.

Milia.- Zer nai digu Zeruko Amak?

Errodrigo.- Toki artantxe Ermitatxo bat jaso dezagula; ta berak andik Euskalerrria zaituko duala, zion.

Aurrez aipatu bezela hemen agertzen da Zeru-esperantzaren Jainkosa "Arantzazuko Ama Maria" Euskal Herriaren bakeratzea Jainkosa honek ekarriko du eta honen adierazgarri dugu, hirugarren

ekintzaren hasera, lehenbizikoan bezela:

Aantzina-ren abotsa berrir:

Orra eliza jasoa.

Hamaika aldiz erasoa,

Zenbat leien arazoa!

Biotz bakoitzan begira zazu

Ermitatxo eroso.

Begira, Ama gozoa,

Zure esanera eioa.

Euskal-Kondaira osoa!

Bakea Aide Nagusien artera ere iristen da, honela mintzatzen direlarik Urrexula-ko Pedro eta Araoz-ko Joanes.

Pedro.- Ez al-dakizu! Arrasate ta Oñati-ko jendea elkartuta auzo-lanean, alajaña! Ta erri-barruan ikusten duguna? Arrasate-n Guraia ta Bañeztarrak alkarri eskuak emanda. Oñatin ere berebat, gaur arte ain etsai izan diran Murgia ta Garibaitarrak betiko lagunak izan ba-lira baño areago batuak.

Joanes.- Ori bai zeruak bakarrik iritxi zezakeala. Gure alegin guziak alpe-rrik izango ziran orretarako.

Pedro.- Bai, Joanes. Azken gizaldi auetan Etxe Nagusietako jabeak gorro-toa odolean sartua zuten; eta gure mendi ta erriak odol orren ujolaz itoak genituan. Gaur pake zoragarri baten egunsenti argia eldu zaigu.

Joanes.-Ta pake orren iturri gozoa, emen eman zaigu zorionez.

Pedro.- Nun eta "Arantzanzu-n gizona!" Inork aditu etzuan basamortu au, Zeruko Amaren agerleku.

Eta azken atalean errromesen mintzoa ondokoa da:

Aranz artean agertu zera, Euskaldunon Ama Maite;

Gaurtik aurrera gure Erregin Zu bakarrik izan zaite.

Honela ba hainbat zorigaitza banatutako Mari Gaizto sorgina betirako euskal herrietako koba zuloetan –lur barruetako eremuetako illun-pean-bizitzera kondenatua gelditzen da. Baina irakurle, kontuz eremu hauetan sartzen den gizakumea ez baita nolanahi handik aterako.

Antzerki teolojikoak:

Ondorengo hiru drama hauetan: "Maite ere... neurriz"; "Zotzean bizia" eta "Gabon zauria" Nemesiok familiaren batasuna, fedea eta karitatean oinarritzen du eta ikusmolde desberdinetik familiari begiratu antzerki-Trilogikoa prestatzen du.

Hiru dramen denbora iraupena Gabon-gaueko afari aurreko unea da. Gatazkaren korapiloaren, aurretik datorren korapiloaren, askatzea gabon ilunabarrean gertatzen da.

Trilogia honetan Nemesiok kristau familietan aurki ditzakegun hiru aje ukitzen ditu: senar-emazte arteko konfidantza eza, familia haustura eta familiako batasun eza. Korapilo guzti hauen askatzea Gabon-gauean gertatzen da. Gabon-gaua, kristau famili batentzako eta bereziki euskalduntentzako hain seinalatua dugun gaua. Urtean ez dugu beste egun bat euskaldunok hain maitekor familian ospatuko dugunik.

Antzerki hirukoitz honetan hirurok egitura bat osatzen dute -ikus-kizun baten batasuna-. "Maite ere... neurriz" eta "Gabon zauriak" antzerki gogorrak dira, edozein ikusleri malkoak ixurtzeko modukoak eta dramaren tentsioa baretzeko erdiko atalean "Zotzean bizia" irri-dramatikoa eskaintzen da. Azken antzerki honen zati haundiena bakarriketa moduan eratua dago, antzerki honen sujetak bere buruaz beste egin nahi du, baina hala ere ez zaio umorerik falta.

"Maite ere... neurriz" Kristautasunean hezitako familia agertzen zaigu. Aita eta seme-alabak neskamearekin bizi dira. Aitak dioenez bere emaztea hila da, hori da semeei sinistarazi diena, baina ez da egia ezcn seme-alabak haurtxoak zirela gizonak zelosz itsutu eta emaztea etxetik bidali baitzuen, geroztik aitak ez du sosegurik izan; urtez-urte zimeltzen ari da.

Hala eta guztiz ere familiako betebeharrak, mandamenduek agintzen duten moduan betetzen ditu batez ere semeak hezitzeko garaian; begira, esate baterako, alaba Anek zer motako jarrera duen, behartsu bat ate aurrera iristen denean:

Gabon gaba da gaur; ta ama zanaren izenean barruan artzen dugu gau ontan datorren eskekoa. Aurrera emakume.

Ane aurreraxeagoko pasarte batean honela mintzo zaio emakume eskaleari:

Enel! Gure amak bezelaxe. Banoa barrura berogarri zenbait zuretzat ekartzera... exeri zaitex ementxe, amarentzat jarri oi-dugun alki onetan.

Aitak, emaztea zitalkeriz etxetik bidali arren ondorengo urteetan Gabon-gauean beti oroimenean zuen, honen adierazgarria amarentzako aulkia jartzean dago, bere baitan esperantza zuen egun batez etxeratuko zela.

Eskalea etxetik ateratzen da baina ez du kemenik eta etxetik hurbil elurraren besoetara erortzen da. Lore eskalea honela mintzo da:

... Gaurkoa geiegi izan da... Ezin det gehiago... Gabon-gabeen etxetik jaurtikia; Gabon Gabeen aituko da nere bizia... Barka Jauna...

Familia Gabon-gauean afarirako mahaira hurbiltzen den unean Anek kondatzen du arratsaldeko pasarte Lore-eskalearekin; haren senarra zeloez itsutu zutela eta etxean bakea izango bazen kanpora joan beharra izan zuela. Aitak aulkitik altxatuaz, honela dio:

Joakin.-Azkar, azkar! Billa zagun. Hamazazpi urte aietan emakume orren billa ibilli naiz alperrik.

Ane.- Zein da, ba, bera?

Joakin.- Nik, Itxu onek, etxetik bialdu nuen andra errukarria; zuen ama!

Etxe aurrean lurrean heriotzaren besoetan aurkitzen dute eta hotzak eta arnasa ezin harturik etxe barrura sartzen dute, Lorek heriotzaren besoetan lo hartu aurretik, pasarte batean, honela dio:

Lore.- Oso pozik noa. Zeruak zuen besartean iltzeko zoria eman dit azkenean.

Antzerki honetan Loreren fedeak eta esperantzak etxeko bidean jartzen du eta familiako karitateak alabaren bidez ama berriro aurkitzea dakar, nahiz eta une gutxirako izan.

"Zotzean bizia" Irri-drama honek, Nemesioren asmoak ondo betetzen ditu, ikusleei lasaitasuna eman behar zaie antzerki saioan gehiegi

nekatu gabe, nahigabeen. Horretarako erdiko ekintza bezala irri-dramatiko eskeintzen du, aurreko eta ondorengo Familia eta Gabon-gaueko giroa hautsi gabe. "Zotzean bizia" Antzerkiaren bakarriketaren izpiritua Nemesiok beste antzerkilari ospetsu batengan aurkitzen du, Antón Pavlovich CHEJOV (1860-1904) eta errusiarrak idatzitako "O Vrede Tabako" (Tabakoak egiten duen kaltea).

"Zotzean bizia" antzerkiko sujeta Anton dugu, antzerki honetan, Antonen bi parlamentu luze eskaintzen dira eta parlamentu hauekin bakarriketa bat osatzen da, bertan gatazkaren bi ertzak argi eta garbi agertuaz: "Bizi-mina" eta "Bizi-ditxa". Aurreneko agerraldian "Bizi-mina" alderdia jokutzen da eta bigarrenean "Bizi-ditxa".

Aurreneko agerraldian Antxonen parlamentua poema luze bat bailitz eskaintzen du, erreflexio asko eta asko Antonen "Bizi-min"ari buruzkoak. Giroa ezin hobeto antolatzen du puro baten inguruan, puroa bizitzaren erloju bihurtzen du, puroa erretzen bukatzean, Antoniri bizitza bukatuko zaio, bere buruaz beste egingo du.

Antonek purua erretzen duenean eta lurrera botatzeko garaian inguruko etxe batetik Eguarri kantu bat euskaraz entzutean –Pentsatu Arjentinako Panpako herriska bateko etxetik ateratzen den kantua euskaraz izatea-.

Antonen barrua hankaz gora jartzen da eta "Bizi-ditxa"k oroitzapeneta-ra darama: Euskal Herriko gaztetako elizkizunak, bere buruari galdetzen dio: noiztik ez dut eleiz baten atea pasa. Euskaraz entzuteak eta indartsuen, amaren oroitzapena. Ama zaharra! (Ondoren ikusten dan bezela):

Zer egiten ote-du nere ama zarrak?... An izango zan gaur ere gabeko erro-sarioan bere mantaliña burutik zuala... ta elizkizun-ondorenean, beste andratxo batzuekin eliz-atadian itzen bat trukatu zuen.

- Egualdi onekin nola etorri zera, Joxepa?

- Esango zion lagunuen batek. Eta beste batek: Anton'en berririk ba al-dezue?

- Ta gure ama xarrak, gezurren bat asmatuko zuen, bere semearen esker txarra estaltzearen.

Nemesiok antzerkia nolabait amaitu behar zuenez Zumaiako familia euskalduna sartzen du, baina esango nuke konponketa baino petatxo antza gehiago duela. Antzerkiaren hiru herenetatik bi bakarrikzeta dira eta heren bat Zumaiako familia batekin topatzen den unea. Antzerki honen fitxa honela izango litzateke:

Giroa: Amerikako herrixka galdu batean, euskaldun bat bakarrik aurkitzen da. Bere buruaz beste egin nahi du. Aurrez puro handi bat erre eta ondoren pistolarekin bere buruari tiro ematea pentsatzen du. Puroa amaitzeaz dagoen unean etxe batetik, euskaraz, gabon kanta bat entzun du. Pistolak eskuetatik ihes egin eta tiroa botatzen du, hotsa entzunaz etxeok ateratzen dira eta gizona etxe barrura sartzen dute.

Gatazka: Bakardadean dabilen pertsonaia baten esperantza ezak hartzen duen irtenbiderik gabeko bidea baina beste euskaldun familia baten karitateak dohakabea bide egokira eramaten du.

Kolorea eta Erritmoa, oso ondo daramatza bereziki bakarrikzeta dagokionez. Azken zatian nabari zaio antzerki-trilogikoaren batasunari eusteko beharrean gertatzen dela.

"Gabon zauria" Drama honetako senar-emaztearen fedea eta esperantzari esker ez dira kristau-bidetik irten. Antzerki honen fitxa honela da:

Giroa: Gabon-gau arratsaldean famili bateko egun batzutako haurtxoa gaixorik dago, medikuaren bisita ere jasotzen du, amak sehaska inguruan zaintzen dagoela lo hartzen du eta amestu nola jaungoikoa, aingeruekin bildu eta agintzen dien lurrera etorri eta zenbait aingerutxo zerura igotzeko. Ama esnatu eta senarrari ametsaren berri ematen dio. Ordu batzutara haurtxoa hil egiten da, ametsek iragarri bezala.

Gatazka: Ama baten ametsaren eta errealtatearen arteko eztabaida.

Kolorea eta Erritmoa: Oso egoki antolatua dago, lehenengo ametsa, bigarrenkoz hauraren heriotza eta hirugarrenkoz gabonetako gaztetxoek kanteak giroa sendotu eta poliki-poliki igotze bat eragiten dute antzerkia amaitzen doan neurrian.

Gabon gaba denez famili honen ate-ondora gaztetxo talde bat agertzen da. Emaztea samindurik dago hauraren heriotzarekin eta etxe aurrean ez du kantu ez eta zaratarik nahi, bainan fedea eta esperantza ondo errotuak dauzka:

Jose Mari.- Ez maite; begira zaiezu. Gurea ere, bizi izan ba-litz, oiek bezelaxe ibilliko zan.

*Mutikoak.- (Ataritik) Etxekoandre ona,
Abestirik nai?
Gabon-zaleak gera,
Ezin etsiz beteak
Zure zai.*

Juana.- Zuzen diozu. Aur onak bedeinka bitza!... Sartu, mutillok seaskaldera urreratuaz Jaiotza. Lotan dago gure txikia, baiña ez du esnatzeko loa. Belen 'era joan zaigu aingeruekin Jesus'en Jaiotza kantatzen.

"Izeko aberatsa" Nemesiok berak dioen bezela: "*Iru egintzadun eres-antzerkia irrutsua*". Aurrez beste bost antzerkiak teologi alorrean sartu baditugu, aztertzen ari garen antzerki hau, giro honetatik kanpo gelditzen da, nahiz eta Nemesiok eresi antzerki bezela aurkeztu "Katramil-komedia" bezala kontsideratzen dut. Antzerki honen fitxa ondokoa litzateke:

Gatazka: Hogei urtetako neskame bati, eskutitza iristen zaio, -Izeba hil-zorian dagoela-eta lau milioien oinordeko izendatzen duela baldin bere lehengusua baino lehenago Zeraingo izebaren etxera iristen bada-.

Kolorea eta Erritmoa: Hiru ekintzaz osatua dagoenez, denbora eta espazio hiru situazio ezberdinez osatua dago. Aurreneko eszena Neskamea dagoen tabernan gertatzen

da. Orixe-k erakutsi digun hainbat herri kantuen antzera antolatutako ekintzak, ardoarena, ezkontzarera eta abar. Ondo osatua denez kolorez egoki dago eta erritmoari dago-kionez bizitasun haundia lortzen du. Bigarren ekintza Segurako ostatu batean gertatzen da, hemen lehenbiziko bost eszenak, eresidunak dira bainan azkeneko sei agerraldiak katramilazko eszena arruntak, kolorea mantendu arren erritmoaren aldetik jeitxi egiten da aurrekoarekin konparatuz. Hirugarren ekintza, Zeraingo izebaren etxean gertatzen da, hemen kantu, dantza eta elkarriketa arruntak ematen dira baina ez da eresia ez eta baleta ere, halako poupurri txiki bat da, ondo tajutua bainan bigarren ekin-tzaren erritmoaren antzekoarekin.

Eresi-antzerkia:

Eresi-giroa, Nemesioren antzerkietan gain begirada bat egiteak badu bere xarma.

Nemesioren kantuarekiko zaletasuna ezaguna da eta bere antzerki gehienak kutsatzen ditu, adibidez: "Irulearen negarra" eta "Gabak zekarren eguna" drama historikoen ekitaldien hasierak kantuz ematen ditu, kantu hauek ekintzaren adierazgarri izaten dira. "Gabon zauria"n sehaska kantuak eta Gabon gaueko kantuak antzerkian nagusitzen dira, hala ere eresi-antzerkiaren kutsurik gabe.

Egilearen baitan, eresidun antzerkia "Izeko aberatsa" da. Eresi antzerkia izateko baldintza batzuk bete behar dira eta ez da aski, kantuz halako edo horrelako eszena eskaintzea. "Izeko aberatsa" antzerki eresidun egituratik baino gertuago aurkitzen da, antzerkia, antzerki barruan deitzen dan egituratik.

"Izeko aberatsa"ko lehen ekintza eta bigarren ekintzako lehen lau agerraldiak errandoek oinarritutako eszenak dira, festa giro honetatik kanpo ibiltzen dira antzerki honetako bi sujetak: Antoni eta Xabier.

Dudarik gabe eresi giroa sortzen da, aipatutako eszena hauetan baino komediaren osagarri bezala agertuaz.

Bestalde, esan behar dut, kantuek antzerki astunak neurri batean arintzen dituztela baina kantuak giroan sartzen ez badira alderantzizko jokoa egin dezakete, hori gerta ez dadin Nemesiok bitxiak bailira an-tzerkietan kokatzen ditu eta antzerkia jaztea lortzen du.



lur berri billa



NEMESIO ECHANIZ

Irratirako ipui antolatuak

***1961`GARREN URTEKO LEIAKETAN
LENENGO SARIA JASOAK
IRRATI ANTZERKIA***



Azkoitiko Kale Nagusia mende hasieran. Ezkerrean, buruan fardela daraman emakumearen atzeko etxean igaro zuen haurtzaroa Nemesio Etxanizek.

IPUI –DRAMATIZATUAK

IPUI GUZIENTZAKO ASIERA:

(Musika: Erregiña ta saratsa... gora ta azpipe)

Gizakumea.- Euskalerriko jakintza zaar.

Emakumea.- Gure aurretikoen jakituri etsigarria!

Giz.- Atera ditzagun kutxa zarretik, zapi zuri usaituak bezela, antziñatik gure erriak gorde dituan kontu zaarrak.

Emak.- Aiton-amonen gogoak piztu ta aurrean belarriak emetzen dituzten ipui gazi-gozoak!

Giz.- Atarian negua da.

Emak.- Aizeak txistu. *(Entzun bedi aize txistua...)*.

Giz.- Kazkabarrak soiñu. *(Kazkabar otsa gogor...)*.

Emak.- Eta sukaldean egurrak su. *(Egur igarrak erretzen txir-txir)*

Giz.- Eta gaztaiñen danboliña itzul-iraulka garretan.

(Aditu bedi gaztaiñen dunba-otsa ta danboliñaren eragiña...)

Emak.- Gabon inguru?... San Anton, bixigua on?... Kandelario?...

Giz.- Ipui-giro!... Kontu zaarrak aidean!

(Doiñua gora ta bera... Gero, alda bedi musika ipui bakoitzerako...).

IPUI GUZIEN BUKAERA KO:

(Buka ipui bakoitzaren azken-doiñua ta berriro "Erregiña ta saratsa")

Emak.- Itsi dezagun gaurkoz gure kutxa zaarra.

Giz.- Aurrak logale dira.

Emak.- Aiton amonak, oeratzeko ordua dute...

Giz.- Su-txingarra estali, ta urez busti ditu amak.

Emak.- Katua, bizkarra arrotu ta nagiak ateratzen gelditu da.

Giz.- Egunak eman du berea.

Emak.- Euskal sukaldea, argia itzali zaigu.

Giz.- Aidean dabiltz joandako gizaldien itzalak.

Emak.- Gaba nagusitu zaigu.

Giz.- Illuna da jabe.

Emak.- Jaungoikoak gabon dizuela, euskal irratentzuleoi! (Musika iltzen-iltzen...).



UGAZALABA

Asiera.- Ipuinetakoa... (*Soiñua gora ta azpipe...*).

Izlaria.- Ba-zan bein, beste asko bezela...

Emazteak.- Patxi, ni ba-noa, baiña or gelditzen zaizu gure alaba....
Zaitu zazu ongi!

Senarrak.- Ai, nere Eujeni! Zer egin bear det nik zu gabe? (*Il-kanpai entzun bedi... Soiñu illuna gora ta bera*).

Izlariak.- Horrela joan zan mundu ontatik Eujeni gaixoa, ta Patxi bere alaba bakar eta gaztearekin gelditu zan alarguntza tristan.
(*Soiñua gora ta bera*).

Izlariak.- Ikusten al dezue neskaxa lirain ori? Orixe da Lierni, Patxi-ren alaba bakarra. Urrezko neskaxa, baiña gaixoa umezurtz gazteegi gelditua.

Lierni.- Ai, nere ama maitea, nola joan ziñan ni bakarrik utzita?
(*Soiñua negarti gora ta bera alai...*).

Izlariak.- Alabari etzitzaion aztu ama zanaren gozoa; baiña Patxi oker zebillen etxea gobernatu eziñik, eta gizonen kontua... poliki-poliki joan zitzaion burutik eta gero biotzetik andre zenaren oroipena.

Patxi.- Onela ez nabil ongi. Gure etxeak andre baten eskua bear du; bestela, zikiñak jango gaitu. Alabarentzat ere, ez da gaizki etorriko ama berri bat. (*Soiñua gora ta bera alai...*).

Izlariak.- Ta esan bezela, jantzi beltzak baztertu zituanean, beste andre batekin ezkondu zan. Eztai-soiñuak etzion, ala ere, alaba gaixolari poz aundirik sortu bere biotz minberatuan.

Patxi.- Ba-zan zure bearra, Uxebi, gure etxe ontan. Emendik aurrera zuk txukunduko dizkiguzu baztarrak, eta alaba Lierni-k lagunduko dizu eginkizunetan. Atoz Lierni!... Ama berria, ekarri dizut, umezurtz bizi etzaitezen.

Izlariak.- Baiña Uxebi, andre berria, sorgiña zan, eta bere barruko zaputza bereala agertu zuan bere ugazalabarekin. Batez ere, Patxi'gandik alako alaba itxusia izan zuenetik. (*Soiñua aserre girokoa gora ta bera...*).

Uxebi.- Zer det au? Nere alaba onen itxusia ta neska petral ori geroago ta ederrago agertzen da. Erakutsiko diñat ire aizeak gordetzen.

Izlariak.- Horrela ari zen egunetik egunera erreago sorgin zarra bere ugazalaba galtzeko asmotan... Alaba maiteago ta ugazalaba gorrotatuago. Sorgin madarikatua etzan bizi. (*Soiñua gora ta bere amorroz...*).

Uxebi.- Lierni! Nun abil, neska? Beti bear ez dan lekuren batean sartuta ikusten aut. Lanak ez au i galduko, ez.

Lierni.- Zer dezu, ama? Zuk esandako ogeak egiten ari nintzan.

Uxabi.- Ogeak egiten orrenbeste denboran? Noizko bukatuko dizkiña-gu horrela etxeko eginbearrak?

Lierni.- Esandako guziak bukatuta daude.

Uxabi.- Ba... emen ez diñagu alper-zorririk bear eta emango diñat nik eguna betetzeko lana. Tira, etzan lorik artu ta oa saskia bete marrubi ekartzera.

Lierni.- Marrubiak negu beltz onetan? Nun arkituko ditut, ba?

Uxabi.- Al denan lekuan. Esnatu, esnatu egin bear den ire sasoi orrekin. (*Soiñua gora ta bera...*).

Izlariak.- Lierni gaixoa; Atso sorgin arek asmatzeko ere, etzan asko. Negu gorrian, bazter guziak zurituta zeudela, nun arki zezakean marrubiak?... Baiña ugazamaren kopeta ikusi ta etzegoan etxean gelditzerik. Atera zan nexka errukarria ta ba-zijoan basoan barrena... (*Soiñu pausoei jarraituaz bezela taka-taka, taka-taka...*).

Lierni.- Nora joango ote naiz egualdi bildurgarri onekin?... Ai nere ama maitea bizi izan ba-litz! Ez niñuan arek bereala egualdi onekin mendira bialduko. Nun zaude, ama, zure alaba onela utzita?

Arren, zeru ortatik lagun nazazu! (*Soiñu itxaropentsu gora ta bera...*).

Izlariak.- Amak zeruetatik entzun ba-lío bezela, orra nun agertzen zaion urrutira txabola bat.

Lierni.- Ene! Nere ama gaixoak entzun dit eskaria. Ara nun ikusten dedan txabola bat. Araxe joko det laguntza-eske. (*Soiñuak elurretako pausoak lagunduez gora ta bera...*).

Izlaria.- Esan da egin. Elurretan bere oiñak sartzen ziralara, jo zuan txabola aldera bere otzikarak eta nekeak uzten zion neurrian. Laister, baiña ez berak nai bezin azkar, jo zuan txabola atea: (*Dan, dan, dan!...*).

(*Barruan pauso otsak eta atea zabaltzeko krisketa otsa aitu ziran. Pauso otsa ta atea irikitzen entzungo da... Zabaldu zan atea, ta hiru gizon agertu zitzaizkion Lierni'ri. Onek otzikaraz itzegiteko ere, etzuan indarrik. Ala dio gaixoak*).

Lierni.- Egun on, gizonok!

Gizon abotsa.- Baiña zer zabiltz elurretan eta soiñeko arin orrekin?

Lierni.- Amak bialdu nau marrubitarra.

Gizona.- Ze ama dezu ori, gero? Neguaren biotzean otzak galtzeko zorian eta marrubitarra bialdu?

Lierni.- Nere ugazamak bialdu nau.

Gizona.- A! Ori besterik da. Sartu, sartu pixka bat berotzera, ta marrubiak ere erakutsiko dizkizugu gero.

Lierni.- Eskerrik asko, jaunok.

Izlariak.- Sartu zan nexka barrura, ta ongi berotu ondoren, gizon aietako batek esan zion:

Gizona.- Ekatzu saski ori ta ortxe, txabola atzean degu naikoa marrubi saski ori betetzeko. Bereala naiz emen. (*Ate-otsak irtetzeko ta sartzeko. Bitartean soiñua gora ta bera...*) Ikusten nolako ederrak bildu dizkitzudan! Eta orain irurok esku-erakutsi bat bezela, gure oparia eskeñiko dizugu.

Izlariak.- Lenengoak onela egin zion bere oparia.

1º- Gizona.- Esaten dezun itz bakoitzeko, urrezko ontza bat eroriko al-
zaizu oiñetara!

Izlariak.- Bigarrenak onela itzegin zion.

2º-Gizona.- Geroago ta ederrago izango al-zera!

Izlariak.- Eta irugarrenak.

3º-Gizona.- Ildakoan aingeruak zeruetara jasoko al-zaitue! (*Soiñua
bidean aurrera egiteko, alai ta bizi...*).

Izlariak.- Etxera iritxi zanean, ugazama ao bete ortzekin gelditu zan.

Uxabi.- Jainko maite! Iñoiz baiño ederrago dator gure neska gorrota-
garri ori. Ta au naikoa eztala, saskia marrubiz betea dakar; eta
beraren itz bakoitzeko ontzako urreak erortzen zaizkio oiñetara!
(*Soiñu indar aundian eta nastua... Gora ta bera...*).

Izlaria.- Amorro biziz eraso zion Lierni gaixoari.

Uxabi.- Orain ere, egin den ik sorginkeriren ba. Nundik ator, Lierni?

Lierni.- Iru gizon atera zaizkit eta aiek erakutsi didate marrubien tokia.
Gaiñerakoa begien aurrean dezu. (*Soiñu bizi-bizi gora ta bera...*)

Uxabi.- Nun da nere alaba?... Xerapi!... Xerapi!

Xerapi.- Zer dezu, ama?

Uxabi.- Eztakizu asko zer egin digun Lierni'k. Onela ta onela, txabola
bat arkitu du mendian eta an iru gizon. Ta orain saski bete marru-
birekin eta itz bakoitzeko ontzako urre bat dariola agertu zaigu...
Oraintxe da gurea! Jantzi itzazu soiñekorik onenak eta txabola
artara bidalduko zaitut, Lierni bezela edertu ta aberastua itzuli
zaitezen.

Izlariak.- Etzuan bi aldiz esan bearrik izan alabak. Bere apaingarri
guziak jantzi ta amarengana gertu zanean, onek bere ugazalaba-
ri deitu zion, esanaz.

Uxabi.- Lierni, orain nere alaba Xerapi'ri lagun egin bear diozu gain

arteraiño, ta andik erakutsiozu ikusi dezun txabola nun dagoen. Gero, zu etxera etorriko zera, ta Xerapi joan dedilla bakarrik txabolar. (*Soiñua gora ta bera... Bidean pauso-otsak mendi aldera urrutiratzen*).

Izlariak.- Esan bezela, mendi gaiña zapaldu zutenean gazte biak, Lierni'k erakutsi zion Xerapi'ri txabola urrutira, ta gero banatu ziran nexka biak. Xerapi, txabola aurrera iritxi zanerako, ate-joka asi zan: (*Ate-oska: Dan!... Dan!... dan!...*).

Xerapi.- Ez ote dago iñor barruan?... Bai! Norbaiten pausoak onuntza datoz (*Entzun bitez pausoak, eta atea irikitzen...*).

Gizona.- Arratsalde on, gazte!

Izlaria.- Ta arekin, beste gizon bi agertu ziran atera. Orain da nerea! Esan zuan berekiko Xerapi'k.

Gizona.- Zer dakartzu etxe ontara?

Xerapi.- Ara, ba. Nere amak saski onekin marrubitarra bialdu nau, ta emen nenbillen nora-ezik, elurretan negargarri.

Gizona.- Marrubitarra? Ez al-din ire amak naikoa, ire aizpari emandakoakin?

Izlariak.- Ta iru gizonek, etzioten Xerapi'ri marrubirik erakutsi. Aren orde, iru opari eskeiñi zizkioten, zein beiño zein galgarriagoak.

1º- Gizona.- Esaten denan itz bakoitzeko, zapo bat eroriko al-zain!

2º- Gizona.- Egunetik egunera itxusiago izango al-aiz!

3º- Gizona.- Ildakoan, inpernuko txerrean beren zuloetara eramango al-aute!

Izlaria.- Amarengana, saskia utsik eta zapoak zerizkiola agertu zanean, aren amorrua!

Uxabi.- Au ere ikusi bear genduan! Neska demonio orren deabrukeriren bat degu au... Nik erakutsiko diot orri, bi ta bi zenbat diran!

Izlariak.- Urrengo egunean, ibaia otzaren otzez izoztua zegoen. Orixe

besterik etzuan nai ugazama sorgiñak. Dei egin zion Lierni'ri.

Uxabi.- Aizan Lierni. Orrelako sorginkeriak egiteko gauza aizenan ezker, artu itzan mataza auk, eta oakit ibaian jo ta garbitzera. Ta kontu elur onekin oiñetakorik jantzi! Oiñutsik joateko ere, ez ago i sasoi txarrekoa, bai, ta etxeko soiñeko naikoa den lan ortalako.

Izlariak.- Itzik etzion erantzun Lierni'k. Ba-zekian alperrik izango zala-ta. Otzak ikaraz atera zan ibai aldera, ta bertako ur jeletan matazak jo ta garbitzeari eman zion... An zegoen gaixo bere bakarrean malkoak egosten. Ontan, zaldun eder bat alboratu zitzaion, eta neskatzaren esku izoztuak eta soiñeko arlotea ikusirik, errukiaren errukiz galdetu zion.

Zalduna.- Zertan ari zera, nexka maite.

Lierni.- Amak mataza auk garbitzera bialdu nau ibai ontara.

Zalduna.- Ibaira, dagoen egualdi onekin? Ze ama dezu ori?

Lierni.- Nere ugazama.

Zalduna.- Ba-negoen, ba! Biotza bear du ama benetako batek bere alabari onelako lanik emateko... Baiña, zaude! Emendik aurrera eztuzu orrelako nekerik izango. Atoz, nere etxera, ta nere amak alaba benetakotzat artuko zaitu. (*Soiñu alai gora ta bera...*).

Izlariak.- Ta nola diran kontuak!... Zaldun ura errege bera zan!... Nundik sortu diteken gure zoriona! Erregek Lierni berarekin artu ta etxera eramane zuan. Andik egun batzuetara, egundoko eztaiak izan ziran erregeren jauregian, eta Lierni erregein egiña gelditu zan. (*Soiñua ezta girokoa, gora ta bera...*).

Uxabi.- Xerapi! Oa ibaia ikusten dan mutur ortara ta ikusi zan Lierni'k zer egiten duan onenbeste denboran.

Izlariak.- Joan da Xerapi ikustera, ta ibaian etzan Lierni'rik agiri. Andik laster zabaldu ziran Errege-etxeko berriak alde guzietara, ta ugazama lenez gain, inbidiz erretzen jarri zan... Baiña zer

egin? Lierni, bere lenego semea izateko zegoela, ugazama ta onen alaba nolabait sartu ziran erregeren jauregian, eta nola ezta-
kit, bere izentatu zuten erregiñari aurgintzan laguntzeko.

Uxabi.- Xerapi! Oa inguruak ikustera, ta ia nun diran errege ta onen
ama.

Xerapi.- Oraintxe ikusi ditut, aur jaio berriarekin lorategian daudela.

Uxabi.- A, bai? Orduan goazen oraintxe erregiñaren gelara ta igarriko
zion neska lotsagabe orrek nor naizen ni.

Izlariak.- Besterik gabe, an dijoaz ama-alabak. Uxabi'k amorro biziz
Lierni gaixoa ogetik atera ta ibaira bota zuan. Aren lekuan, orra
nun sartzen duan erregiñaren ogean bere ala Xerapi... Etorri da
erregea ta eztaki zer egin.

Erregeak.- Nor ote da nere emaztearen ogean dagoen emakume itxu-
si, zapo-jario ori?

Izlariak.- Ontan txori bat txioka asi zan, esanaz.

Txoria.- Txintxin, txirikitin txoria
Txaritxo txilibitaria.
Zalduna ero dijoa,
Ibaian andre gaixo

Izlariak.- Kanta aren bitartez, jakin zuten nun zegoen erregiña. Jaso
zuten azkar asko uretatik, eta ugazamaren lan beltza jakin zute-
nean, labean erre zuten sorgin ura; ta aren alaba itxusia, itxasoan
ito. (*soiñua indartsu ta luze baraipen doiñuz...*) Esaten dizuet
nik... gaiztoa eztala beiñere ongi ateratzen. Bere okerrean galtzen
da azkenetako. Zuzen ibilli, maiteok, eta kontu iñori inbidirik
izan ! "Bekaizkeria, giza-arteko izurria!".



Eserita, gorbata eta trajeaz aita; Nemesio Etxaniz bera zutik, eskuinetik bigarren. Comillaseko apaizgaiak. Azkoitiarrak gehienak.

DOMINISTIKU

Asiera.- Ipui guziena...

Soiñua.- "Bolon bat eta bolon bi...", (*gora ta azpipe...*).

Iztunak.- Ba-ziran, ba aiek ere... senar-emazte pijuak, alajainkia!
(*Soiñua gora ta bera...*).

Emakumea.- Izenak esango al-ditugu?... Mari Joxepa ta Peillo, ez oillar eta ez oillo. Ta okerrago zana: ez alabarik eta ez semerik... Onetxek galtzen zuan aien zoriona...

Gizakumea.- Urtea... urte bi ezkondu zirala, ta Mari Joxepa beti melar. Peillo, berriz, alakotxe sabel zorroa erakusten.

Peillo.- Ai, Mari Joxepa! Zuk bear zenduke, nik dedan aurrekalde arro au.

Mari Joxepa.- Ai, Peillo! Neronek eskuan ba-nu!... Ez naiz gutxi aritu, errezo ta kandela. Aita San Antonio Urkiolakoa, balia bekit!... Aita San Jose doatsua, arren, seme bat lenbailen!... San Pazifiko bedeinkatua, erruki guri!... Baiña emen eztator alerik gure etxera. (*Soiñua gora ta azpipe*).

Iztunak.- Emakume batzarretan ere ba-zituan Mari Joxepa'k lagun estuak. Aietako bat, zera... Patxiñeko Maiñixi...

Maiñixi.- Onik al-zerate, Mari Joxepa.

Mari Joxepa.- Oker aundirik eztegu.

Maiñixi.- Ta?...

Mari Joxepa.- Ezer ez oraindik, Maiñixi... Auxe da gure etxea illuntzen duana. Nere erreguak eztute tutik ere balio.

Maiñixi.- Ba-dira. Ba, belar batzuek...

Mari Joxepa.- Belar eta sustar guziak agortu ditut aspaldi.

Maiñixi.- Ortarako, ilbera bear du, baiña... Ilberan batu belarrok, ilberan egosi ta artu, eta zera ere, ilberan egin.

Mari Joxepa.- Ilberak eta ilgorak alperrik izan dira guretzat, Maiñixi.
(*Soiñua gora ta bera...*).

Iztunak.- Gizonak zakarragoak ziran Peillo'rekin. Alako kirten ura
ikusten al-dezue?... Bai, orixe... Urruzkiñeko Ximon... Peillo
ikusten duaneko. Or asiko zaio...

Ximon.- Bejondaikela, Peillo! Andreari aurea artuta ala?... Aze mar-
topillak egin ditezken ire aurrekalde orrekin!

Peillo.- Goseak al-aiz? Gure txerri-askan arkituko dek puska bat.
(*Soiñua gora ta bera...*).

Iztunak.- Onela ziran senar-emazte aien solas-aldiak. Eta auzoan ongi
bai-zekiten aien miña ta akatsa nundikoak ziran... beti ere, ba-
zuten inguruan zirikatzailleren bat.

Mari Joxepe.- Nundik zatoz, Peillo? Gaur ere izan al-dezu norbait?...
Jakiña! Ardangelako lagun zabar oien artean sartuko ziñan-da...
Alper zorri oiek lana auzoan, eta miztorra aon izango zuten.

Peillo.- Ez, Mari Joxepa, ez nintzan ardangelan... Bidean natorrela
arkitu det lagun jaxo bat.

Mari Joxepa.- Ikusi-banu bezela... Egingo nuke Ximon Urrizkiñeko
zala tartean!

Peillo.- Asmatu dezu, Mari Joxepa. Ximon zan gaurkoa ere... Baiña
bereak eta bi entzunda joanda, arranoak ezpaitu! (*Soiñua gora ta
bera etsi-samar...*).

Mari Joxepa.- Gureak egin du, Peillo!

Peillo.- Ez al-zaizu gelditzen santuren bat?

Mari Joxepa.- Zeruetaiko santu guziak pasatu ditut... baiña, alperrikan
denak.

Peillo.- Onela bearko degu, orretan. (*Soiñu luze ta geldi gora-beran...*).

Iztunak.- Senar-emazte biak izketa oietan ari zirela... (*zarata aundi bat
eta aize-burrunda bat-batekoa entzun bitez*).

Mari Joxepa.- Ene Peillo! Zer da au?... Egundoko erre-usaia usaintzen det.

Peillo.- Ala da... Auxe txerri erre usaia!... Ta kez bete da sukaldea. Zapi zarren bat utzi al-dezu so ondoan?

Deabrua.- (*Abots lodi ta izukorrez*). Ze zapi zar arraio, gero? Neroni naiz.

Iztunak.- Senar-emazte biak, ao bete ortzekin gelditu ziran, ke artetik atera zen abots larri ura adituaz... An zeukaten aurrean, alako gizontxo xistrin bat. Aren sudur-kakoa ta aren arpegi azal ximurrak, etziran esatekoak, eta botatzen zuan kiratsa!

Mari Joxepa.- Ama Santa Ana, Arrukoa!

Iztunak.- Aitaren egitera zijoan andrea, baiña gizontxo agertu berri arek gelditu zuan esanaz...

Deabrua.- Ez al zera aspertu zeruetara deika?... Ongi ikusia dezu, ba, andik ezer ez datorrela.

Iztuna.- Peillo, artean ixilllik egona zan, bere onera etorri ezinda, baiña alako batean, bere senean jarri ta galdetu zion bixitalariari...

Peillo.- Aurrena, ez ate otsik, eta ez krisketa-zaratarik, emen sartu zeran ori, nor zeran jakin dezagun.

Deabrua.- Zuen alperrikako eskariak entzuten aspertua dagon zuen lagun bat.

Peillo.- Izenik ez al-dezu?

Deabrua.- Bai, jauna, ta ongi ezaguna, gaiñera, bazterretan.

Peillo.- Nor zaitugu, ba?

Deabrua.- Ni deabrua.

Mari Joxepa.- San Pedro'ren abarkak! Deabrua gure etxean!

Peillo.- Esaten nuan, bai nik, erre-usai ori etzala parte onekoa.

Deabrua.- Etzaudete zuek iñoso pare makala! Erregu ta erregu alperrikan zeruetara. Ez al-dezue ederki asko ikusten, andik ezer ez datorkizuela?

Mari Joxepa.- Andik ezpada, nundik etorriko zaigu, ba?

Deabrua.- Norenengatik, emakume. Aurreneko dendan ezer billatzen ez denean, jo beste dendaren batera. Ori da zentzuzko jokaera alde guzietan.

Peillo.- Zer aiz, ba, i, Jainkoarekiko?

Deabrua.- Ura aiña edo gehiago... Tira, naikoa da berriketaz, eta emen jokatu egin bear da.

Peillo.- Zer da jokatu bearreko ori?

Deabrua.- Ez al-zerate seme-eske gau ta egun?

Peillo.- Ori da gogoa.

Deabrua.- Ba... tratu egiña. Semea izango dezue, baiña aren anima gero neretzat izatekotan. Itz ematen al-didazue? (*Soiñua zarata-tsua... gerora ixiltzen...*).

Iztuna.- Bederatzi illabeteak joanak ziran, eta seme ederra bularrean zuan Mari Joxepa zoriontsuak. Etzan ixillik pasatzeko gertaera. Urrengo egunerako, zikiro gizendu bat ekarri zuten etxera, ta senide ta ezagun, bazkaritara deituak ziran. Urrungo egunean il-tzekotan, sartu zuten zikiro ori ukulluan. (*Soiñua gozo ta itxaropentsu...*). Zikiroa iñork ikusi ezpalu, ezer ez... Baiña or zegoen koxka, ba. Norbaitek begiak ongi zorroztu zituan, Peillo'k zikiroa bere etxean sartu zuanean. Eta begi aiek, Txipillo'renak ziran... Txipillo nor dan? Erri guzian ezaguna dan alper alproja aundi bat. Bereala asmatu zuan arek esku lana...

Txipillo.- Au dek aukera, Txipillo! Ba-gera edo ez gera. Emen zeruak sortzen zidak egundoko mauka. Peillo'k zikiro ori, gaur gabeen ostu ta kito. Peillo'k bere seme jaio-berriarekin naikoa ba-dik pozteko. (*Soiñua gora-bera nastua indartsu ta samurrago...*).

Iztunak.- Esan bezela, Txipillo'k bere itza zintzo asko bete zuan. Peillo'nean lo zurrunkan zeuden ordurik egokienean, an dijoa gure mutilla ukullu aldera soka lodi bat eskuetan duala... Iriki du ixil-ixilik atea ta... (*Zarata aundi bat eta musika zakarra aidean...*).

Deabrua.- Kaixo, Txipillo!

Txipillo.- Deabruak aurea artu neri?

Deabrua.- Zer uste uan, ba, ik? Lo egongo nintzala?

Txipillo.- Zer dek emen egiteko?

Deabrua.- Ik zikiroa, beiñepein. Ezta ala, Txipillo?

Txipillo.- Ta deabruak zeren gosca ote lezeke etxe ontan?

Deabrua.- Nik jaio berriaren anima neregianatu bear diat. Eta onezkero bideak lagunduak zeuzkeat. I nerea aut, eta begira nola izango dan gauza. Kontu iñori ezer esan, Txipillo. Aurrak iru "atxi! Egingo dizkit eta "doministiku"! Iñor esaten ezpadu, aurre il eta nerea diat. (*Soñua naspilla aundikoa, gora ta bera...*).

Iztunak.- Artan kontuak... andik pixka batera, aurrak goian sudurreta-ko premiren bat somatu zuan bere baitan, eta ukulluan garbi-garbi aditu zan aren "atxi"! bat... Txipillo'k berekiko esan zuan....

Txipillo.- Lenengo "atxi"! egin dik aurrak... Au ere ba-dek, ba istillua. Zikiroa nere etxean obeto zegok emen baiño, bai... baiña aurre deabruak inpernura eramatea, gauza beltza uke.

Iztunak.- Andik denbora laburrera berriro aurrari lenagoko premi berbera sortu zitzaion, eta ukuillu gaiñean, aurraren lo-gelan, aditu zan bigarren aldiz: "atxi"!

Deabrua.- Aditu al-dek. Txipillo? Aurre bereala nere atzaparretan izango diat.

Txipillo.- Ez al-diok orrelakorik egingo Peillo'ri!... Eta Mari Joxepa'k artuko duan min zorrotza...

Deabruak.- Tratu tratu oi-dek, eta nik nerea orrelaxe egiña diat. Irugarren "atxi"! aditzen dedan bezin laster, aurrarenak egiña dik.

Iztunak.- Txipillo etzegoen trankil. Berak jakin zer egin bear zan, eta deabruari aurre galtzen utzi,... Bera alproja izango zan, baiña ala-

korik... Bere barruan zerbait sortu zitzaion bat-batean, eta gehiago itxoin gabe, esaten du deadarka...

Txipillo.- "Doministiku"! zikiroa galtzen ba-det ere (*Zalaparta bizia ta musika zaratatsua...*).

Iztunak.- Ura zan deabruaren amorrua!... An joan zan igesi, atzeko otzagatik! Goian, esnatu ziran Peillo ta Mari Joxepa, ta or datoz ukuillura, zer ikusiko.

Peillo.- Zer milla demonio pasatzen da emen?

Txipillo.- Ederretik libratu zerate, Peillo!

Peillo.- Ik zer egiten dek emen, Txipillo?

Txipillo.- Ara ba; gauzak diran bezela. Emen etorri nauk, zikiroa nere etxera eramateko asmotan. Ez dek asmo zuzena, baiña egia aurrena. Emen zegoan deabrua, zuen aur ori inpernura eramateko uste osoan. Baiña nik jakin diat arengatik, zer egin bear zan aurra aren eskuetatik askatzeko, ta orregatik egin diat: "Doministiku"! Onela galdu dek deabruaren lana.

Mari Joxepa.- Ama Doloretakoa! Orrenbestean gelditu garenean, ezta ezer. Peillo, ba al-dakizu zer bururatu zaidan? Txipillo'k orrela-ko lan ona egin digun ezker, zerbait merezi duala.

Peillo.- Ederki esana...Txipillo! To gure zikiroa ta gure izenean egin zak bazkari ona ire etxean.

Iztuna.- Txipillo'k bi aldiz esan bearrik etzuan izan. Artu bere zikiroa ta aste artan egundoko eztaiak egin zituan aren kontura. (*Musika alai ta ariña gora ta bera indarrean...*).

BIZIRIK ZERRALDOAN

Asiera.- Ipui guziena....

Iztunak.- (*Doñua: "Artizarra zeruan..."*). Ezkurrakoa bear zukean, ba, arek ere... Entzuten al-dezue? (*Entzun bitez aizkora kolpeak pagadian...*) Or ari da Ezkurra'ko Patxi Kontra, pago adarrera igo ta bere alkitzat duan adarra bera ebakitzen. (*Entzun bedi berriro aizkora lana...*). Pago ondoko orri ere, begiratu egin bear-ko diogu. Ordu Patxi'k bere astoa, egur-zamaz ongi astundua, etxera itzultzeko amesetan. (*Asto arrantzak urra bedi aidea... Doñua gora ta bera...*).

Patxi.- Aska gosea al-duk? Ago, ago pixka batean adar au ebaki arte, ta bereala nauk irekin, Nabar. (*Asto arrantzak berriro...*).

Iztunak.- Entzun dezue Nabarren musika gozoa... Onezkero igarriko zenioten Nabar, gure egurgillearen astoa dala. Ala deitu bai-dio Ezkurre'ko semeak... Nabarrek, ostera, zama ura bizkar gaiñetik kentzeko gogo bizia zuan, eta naiago zukean arek garagarrak irabazten astea. Patxi'k aurreratu samarra du bere lana. Ontan... (*Bidean mando baten perra otsak adituko dira... Mandazain bat dator bidean urreratzen...*).

Mandazai.- Eup, adiskide!

Patxi.- Kaixo, Mandazai. Bideak legor al-dira?

Mandazai.- Bideak legor eta lepoak bustiak lanetik bizi geranok... baiña zer ari zera or?

Patxi.- Adar auxe moztu nai nuke, zama osatzeko.

Mandazai.- Gizona! Zerori gaiñean exerita ariko zera, ba? Laster lurrean zera adarra baiño lenago.

Patxi.- Mandazaia egurgilleari erakusten, e? Zoaz pakean zere bidean, mandoari eskola ematen.

Iztuna.- Patxi'k iñoren esanari begiratu? Ortarakoxe zegoen gure

Ezkurra´ko seme yayoa. Zerbaitegatik zeukan jarria gaitzizen ura: Patxi Kontra. Mandazaiaren esanak aizkora kolpez ito zituan, eta joan zan aurrera mandoduna, Patxi adar gaiñean utzita. (*Aizkora otsak berriro...*). Baiña mandazaiñak ba-zekien zer esaten zuan eta alako batean... (*Adar ots aundia entzungo da, ta gizon garraxia...*). Or dator gure Patxi Kontra adarra baiño lenago lurrera, Mandazaiak esan bezela.

Patxi.- Demontre! Mandazaiak zian arrazoa... Arek esan bezelaxe, adarra baiño lenago erori lurrera. Nundik ote-zekien arek neri gertatuko zitzaidanaren berri?... Ia, ia!... Ezurrak osorik zeukeat, behintzat, eta ba-natxiak gizon jakintsu orren billa. (*Laisterka aditu bedi*). E, adiskide!... Mandazai!...

Mandazai.- Zer dezu?

Patxi.- Asmatu egin didazu, zer gertatuko zitzaidan. Zuk esan bezelaxe, adarrak baiño lenago jo det lurra.

Mandazai.- Ori nere mandoak ere jakiña zeukan.

Patxi.- Eztu maixu txarra ikasteko... Ta barkatu esanak. Zuk esan bezelaxe, adarrak baiño lenago jo det lurra.

Mandazai.- Ikusiko ba-un bezela.

Patxi.- Deabrukeria! Ta nola jakin dezu ori?

Mandazai.- Egurgille buru-gogorak agirian dute beren azkena.

Patxi.- Neronek ere, ordu ori jakitea nai nuke, ba...

Mandazai.- Baiña kontuak ongi atera, e?

Patxi.- Egingo det alegiña.

Mandazai.- Ba, begira... Asto orrek, zamatuta dijoala, iru aize-bolara atzekaldetik botatzen dituanean orduan, zureak egin du. An ilko zera besterik gabe. (*Doiñua irrizkoa... gora ta bera...*).

Iztuna.- Joan zan ala bere etxera, ta ustzu zuan astoaren gaiña. Eguak eguna ekarri zuan ondoren, eta asteak astea... Eta gure Patxi Kontra´ri joan zitzaion burutik mandazaia´k esana. Aldi luze edo

laburra izan zan, eztakit, baiña egunen batean, atera zan beste askotan bezela mendian gora bere astoarekin. (*Bidean astoaren oi-otsa ta Patxi´ren zantzuak...*).

Patxi.- Aurrera, Nabar, aurrera! Zaartu al-aiz?... gaur ongi zamatua etorri bear dek, ba, ta ez atzera gelditu. (*Siñua tipi-tapa tipi-tapa...*).

Iztuna.- Iritxi ziran basora, ta berriro asi zan Patxi adarrak moztu ta Nabarri egur zama leporatzen... Astoa ler zorian zetorren etxera bidean, eta barrua etzekarren pakean. Basoan jandako belarrak ere, aizetu zizkion nunbait, bere esteak, eta an zijoan asto giza-joa, bizkarreko ta estetako zama paketu eziñik. Alako batean, aizeak kanporako bidea eskatu zioten, eta an dijoa aize, trumoi txiki baten antzekoa. Patxi Kontra larritu zan, mandazaiaren esana gogoratuta...

Patxi.- Astoa zamatatu zijoak, eta bota dik aurrenengoa. Oraindik beste bi bota arte, badiat bizia. (*Doiñua gora ta bera larri antzean...*).

Iztuna.- Baiña arrazkero, Patxi etzijoan lengo lasaitasunean. Astoa etxera orduko, zamaz arindu ta etzegoen arriskurik. Etzan laburra bidea. Patxi kezketan ba-zijoan, astoa etzijoan obeto bere zama astun arekin. Aldapak gora ta bera, ta esteak berriro aizez betetzen. Lau ankadun errukarriak, beste larrialditxo bat somatu zuan ere barreanean, eta atzekaldea lasaituz, or dijoakio bigarren trumoa kanpora. Len kezketan ba-zan gure Ezkurra´koa, oraingo onekin galdu zuan bere pakea.

Patxi.- Ordu laurden baiño lenago bigarrena?... au dek au! Bat besterik etzaidak gelditzen oraintxe. Etxean ba-nintza! (*Doiñua larriagotzen... Bidean asto anka otsa...*).

Iztuna.- Patxi ari batean zijoan, bere barruko larritasunez. Astoa aize aiek bota ezkerro, lasaiago. Eta -jakiña- esteak sosegua artzen zutela ta lengo bidetik gogo. Bigarrena bota ondoren, irugarrena atean jarri zitzaion, eta zebillela-zebillela, aidea urratu zuan irugarren aize-aldiak. Patxi´k mandazaiaren esana itxu-itxuan

sinistuaaz, bere azkena eldu zala uste izan zuan, eta besterik gabe –punba!- erori zan lurrera.... (*Musika, illetak jotzekoa... Gora ta bera...*). An gelditu zan gure Patxi Kontra lurrean luze-luze. Astoak, berea eginda, aurrera jarraitu zuan. Etxeko atera eldu zanean...

Andreak.- Ene! Astoa bakarrik dator. Zer egin ote-zaio gure gizonari?

Iztuna.- Eman zion negarrari, ta auzokoak aren karraxiak entzunda, jo zuten mendi aldera, astoak ekarritako bidean aurrean... Bereala ziran Patxi eroritako lekuan...

Batek.- Gizon au illa dago!

Besteak.- Ez det uste, ba....

Irugarrenak.- Ain illa eze....

Guziak.- Illa! Illa! (*Soiñua illun eta geldia... Gora ta bera...*).

Iztuna.- Jaso dute lurretik eta badaramate bidean etxeruntz... (*Bidean, eramailleen pauso otsak...*).

Andreak.- Ai, nere Patxi zoritxarrekoa! Ai, nere bizia! (*Negar eta zoti-ñak*).

Iztuna.- Ekarri zuten zerraldoa ta sartu zuten bertan gure Patxi. Elizkizunak eta illetak egokiak izan ziran. Etxekoak negarrez urtu ziran, eta auzoak lagundu zion alargun naigabetuari bere doluan. Azkenik, zerraldoa bizkarrean zutela, atera zian gorputz-bidean aurrera. Baina Patxi'k azkenerarte ezpaiak sortu bear zituan, eta bide gurutzera iritxi ziranean, norbaitek deadar egin zuan...

Batek.- Goiko bidetik.

Besteak.- Ez orixe! Beko bidetik duk oitura.

Batek.- Goitik esandiat, eta goitik bear dik!

Besteak.- Ez, jauna!


(*Istillu aundia entzungo da, batzuek "goitik" eta besteak "betik" diotela*).


Iztuna.- Epai arek etzuan azkenik izango, gutxien usten zuten batek abots bildugarritz itzezin ezpalu, esanaz...

Zerraldoak.- Nik bizi nintzala, betik joaten nindukan.

Iztuna.- Nundik eta zerraldotik atera ziran itz aiek... Ango iskanbilla! Ango zalaparta! (*Istilla gorria entzun bedi ta guziok igesi...*). Zerraldoa zeramatenak, utzi zuten lurrean eta igesari eman zioten. Ondoren zetozenak, etzuten esan bearririk izan... Eta gure Patxi´ren illetak an bukatu ziaran. (*Musika indarrean bukatu luze ta jolasti...*).

Bukaera.- Ipui guziena.....





AZERIAREN ZORIA

Asiera.- Ipui guziena...

Doiñua.- "Bonbolontena, ene laztana..." gora ta azpipe...

Iztunak.- Ba omen zan, ba, nunbaiten... Nun ote zan?... Naparroa'ko mendi goietako basoren batean, noski... Beste asko bezela, azeri bat bizi omen zan... Bizi ba-zan, ezpazan, gure kontua alako goiz batean asi zan... Azeri jauna, bere kabian lo zegonean, bere ezur-aragiak atsedenari ematen. Egun argiak begietan jo zuenean, orra! (*Arrausi luzea entzun bedi...*). Esnatu da gure azeria, ta aoa kanabete zabalduaz, arrausi luzea egin du. Ondoren, bere burua pilosopo aizez bete ta esan du...

Azeria.- Arrausi onek, zalantzarik gabe auxe esaten dit; gaur zorioneko izango naizela. (*Musika jostaria gora ta bera*).

Iztunak.- Nagiak astindu zituanean, kabitik atera zan alai. Basoa txori kantaz soiñu bizitzan zegoen... Bereala janari billa joan zan basoan barrena... Etzuan bide luzerik egin bearrik izan. Aren sudurren usnarra, urrutí iristen bai-zan. An du begien aurrean, koipez betetako maskuri bat, puxika bat. Gure pilosopoak berriro itzegin zion bere buruari, esanaz...

Azeria.- Nere goizeko arrausi arek zoriona zekarkidala, uste izan diat, baiñan koipe pillo au atzen ba-det, egun guzirako tokoloa egingo zaidak nere urdaillean... Noan aurrera, ta gauza oberik arkituko al diagu! (*Doiñu bideko ibilliari laguntzekoa... gora ta bera...*).

Iztunak.- Esan bezela, an dijoa tipi-tapa, basoan aurrera. Ta alako batean, orra nun jartzen zaizkion begien aurrean, zerri-ama ta onen zazpi-zortzi bat zerrikume guri-guriak. Aoa txistuz bete zitzaion, bazkari aren aurrean, eta luzatu gabe zerri-amari diotsa....

Azeria.- Egun on, zerri-ama! Ume ederrak dituzu nere gosea asetzeko.

Jaiki naizenetik, orrelakotxe zerbaiten amesetan nenbillen, eta nere zorioneko Jaunak nere bidean ipiñi zaitu, iñolaz ere. (*Soiñua bizi-bizi ta larri gora ta bera...*).

Iztunak.- Urde zorigabea, bere umeen azkena ikusi ta zerbait asmatu bearrean arkitu zan...

Zerria.- Egun on, azeri jauna. Nere umeak zuretzat onen aukeran etortzeak, poz aundia ematen dit; baiñan kontura zaitez, eztitut garbitzera eraman, eta dauden bezela, zikin eta narras, eztaude iñork jateko. Zaude pixka batean, eta or bertan degun potzura eramango ditut garbi-garbi eginda jan ditzazun. Horrela askoz obeto sartuko dira zure esteetan.

Azeri.- Ongi da. Goazen osin ortara, ta lenbailen nere gosaria egiteko pozetan nago. (*Musika, zineko marrazki bizietan jotzen dan oietakoa...*).

Iztunak.- Potzu ertzera eldu ziranekeo, azeria zerrikumeak banan-bana garbitzen asi zan. Bitartean, zerri-ama etzegoen lo. Joaten zaio atzetik azeriari, ta bultz egiten dio muturrez ata an dijoa gure azeri gosea putzu ondora. (*Azeria uretara erortzen entzun bedi... Gero zerrien zalaparta bizia ta kurrinkak igesi...*). Ene ba! Gure zerri-amak bere ume-taldea artu ta igesari eman zion, azeria putzuan itotzeko zorian utzita... Andik atera zanerako, zerriak urrutiti ziran azeriaren agiñetatik. Au, ao bete ortzekin an gelditu zan bere gosea ase eziñik. Uretan blai eginda, berekiko onela esan zuen...

Azeria.- Merezia artu diat. Nork egin nau ni zerrikumeen garbitzaille? Berriketarik gabe ito ba-nitu, besterik nian gaurko gosaria!.... Baiña, tira... oraindik egun luzea zeukeat aurretik eta urrengoan erneago ibilliko nauk. Noan aurrera! (*Musika bideko joanari laguntzen... gora ta bera... tinka-tinka...*).

Iztunak.- Azeriak bere gosea ixiltzearren, eman zion kantatzeari...

Azeria.- (*Kantari*) Labiru, labiru len labiru, labiru len.

Labiru, labirulena, labiru, labiru len.

Iztunak.- Horrela kontuak, bideak gora, bideak bera, gure azeri jauna begiak zorroztuaz, an dioa bere mokaua nun arkituko. Bat-batean, egitxo batean egundoko mauka agertzen zaio. (*Beor irrintziak entzun bitez...*) Entzun al-dituzue?... An ditu aurrean, beor ama ta onen beorkume ederrak. Azeriak eztu aukera au galdu nai, ta bereala deadar egiten dio beorrari...

Azeria.- Neretzat zerate!

Beorrak.- Zer egin bear diguzu?

Azeria.- Jan egin bear zaituztet.

Beorra.- Ni jan? A ze nolako mokaua, nere aragi zar elkor au!

Azeria.- Ortan arrazoi dezu. Beorkumeak jango ditut, zu pakean utzita.

Beorrak.- Ori besterik da; baiña jaten asi baiño lenago, nere umeak iltzen ez ikusteko, norabait aldegin nai nuke. Eta aurrez, emen ankan sartu zaidan arantza bat aterako ba-zenit ortzekin...

Azeria.- Ori laster egingo degu. (*Doiñua gora ta bera...*).

Iztunak.- Beorrak jaso zuan bere anka, azeriak ikus zezaion arantza, ta onen muturra parean ikusi zuanean, egundako ostikadaz ortzak ausi ta zentzu gabe utzi zuan lurrean. Aren antxintxikada umeak aurrean artuta! (*Anka zalaparta igesi entzungo da...*) Azeria, bere onera etorri zanean, bakarrik arkitu zuan bere burua; mutur mindua miiz gozatuz, esan zuan berekiko...

Azeria.- Nork sartu nau, izan ere, ni mediku lanetan? Ederra eman zidak beor gezurti orrek! Obe nian, bai, lenengo arkitu dedan koipe-maskuria ustu banu!... Enauk bereala, berriz, kopletan ibiliko. Arrapatzen dedanari ortzak sartu ta kito! (*Bideari dagokion musika gora ta bera...*).

Iztunak.- Onela gauzak, eman zion berriro bideari. Luzatu gabe, an zuan eskura auntz zar maltzurra. Bereala eldu zion...

Azeria.- Nerea aut!

Auntzak.- Zer egin bear didazu?

Azeria.- Jan, ezur eta aragi. Gose luzea bai-diat.

Auntza.- Ni jan? Ba-zegok goxoagorik errota ortan. Or zeuskeat nik nere antxume samur-samurrak... Nai badek ekarriko dizkiat bertara.

Azeria.- Ongi zegok; baiña azkar ibilli. (*Musika bizi-bizi ta urduria, gora ta bera...*).

Iztunak.- Auntzak antxumeak ekarri? Ortarakoxe zegoen! Joan da esan dio errotariari nor daukan atarian, eta onek artu du ixil-ixilik bere txispa zarra... Leio batetik begiztatu du pizti zarra ta... (*Tiroa entzungo da..*) An utzi zuan lurrean muturrez bera gure azeri saloa. Auntzak eta antxumeak, dantzan egin zuten aren gaiñean, eta errotariak, Erri-Etxera eramán piztia ta saria jaso zuan. Gero emazteari eramán zion, ta etxe artako guziak bapo apaldu zuten gau aretan. Ta ala ba-zan, eta ez-bazan sartu kalabazan, orra guzia esan. (*Musika indarrean eta luze bukatu...*).

Bukaera.- Ipui guziena bezela...


IZEKO ABERATSA

**...IRU EGINTZADUN ERESI - ANTZERKI
IRRITSUA...**

ETXANIZ'TAR NEMESI APAIZAK EGIÑA

AZKOITI 51-1-29

KULISKA SORTA



ANTZERKiAK

KONTV-KONTARI

ETXANIZ' TAR NEMESI

EDITORIAL ITXAROPENA

ANTZEZNOTIÑAK

ANDRA KONTXIXI, 60 urte. Izeko aberatsa.

PRONTXI, 25 urte. Kontxixiren alaba.

ANTONI, 20 urte. Kontxixiren neskame.

XABIER, 25 urte. Kontxixiren iloba.

PETRA, 46 urte. Ardangelako etxekoandrea.

PATXI, 50 urte. Ardangelako nagusia.

NERE, 24 urte. Ardangelako alaba bat.

MARI, 18 urte. Ardangelako alaba bi.

KATALIN, 43 urte. Ostatuko etxekoandrea.

BONI, 22 urte. Ostatuko alaba.

KAIKU, 28 urte. Boniren senargaia.

MANTONI, 50 urte. Peruren andrea.

GIBEL, 28 urte. Arlote xelebrea.

TELEX, 25 urte. Gazte aberatsa.

KAIKU, 24 urte. Gazte traketsa.

MATEO, 55 urte. Ostatuko nagusia.

PERU eta PIPEX, 55urteko Agureak

TXOMIN, ANTON, JOXE, MARTIN, TXANTXON, PAKO, ANDRES, IÑAKI, IMANOL, JAIONE, IRENE eta KOLDO gazteak.

EZTEI- TALDEA.

EDURNE ta neska dantzariak.



Azkoitiko Plaza Nagusian, 1921ean, bertako Orfeoia entseia egiten Burgosera abestera joateko. D. José Otaño abadea buru musika-bandaren aurrean, bere eskuinean Mariaren Alabetako emakumcak, eta Luistarretako gizonak ezkerrean.

LENENGO EGINTZA

*(Erriko ardangela bat, asko bezelakoa. Mostradore, kafe-exprés, ta abar. Mai ta aulkiak alkarren gañean baztartuta begoz, eta Antoni etxeko nes-
kamea, lurra erratzaz garbitzen ari da).*

Antoni.- *(Kantari).*

Neskamearen lana, eskuan erratza;
Beti zikin-garbitzen maitia, juaten zait bizitza.
Aste ta jai lanean, astinduez autsa,
Auxe da nik daukadan, maitia, inpernuko dantza.
Erriko pestak dira giro ederrean,
Andramai ta San Droke, maitia, uda-biotzean.
Gaztedi guztia or da plaza betean;
Bitartean ni emen, maitia, urkatzen lanean.

(Kantatzea bukatu eta erratzari eraginaz. Geldi unea egiñaz, izketan).

Auek dira gure Andra Maiak! Gaztedi guztia plazan zora-
tzen. Etxeko alaba, zarrena, Nere, jakiña! Dantzan egiñalean.
Alaba gaztena, Mari, gabea irtetzekotan, eta bitartean ago i,
Antoni, emen, astegunetan baño urkatuago, tabernako zikiñak
garbitzen. Etxe ontan, etxekoandrea, etxekonausia, ala biak
(Irrizko imintzioak egin bitza) eta xaguak ere; guztiak, neri
agintzeko daude. Neskamearen bizitza negargarria!. Aita San
Antonio bedeinkatua! Nun dituzu zure gordaluak? Ona emen,
senargai aberatsa itxu itxuan artuko luken, zure izeneko nes-
katxa lirain bat... *(Gorputz-eragin xelege batzuek egin bitza).*
Ai...! *(Asperen luzea egiñaz lanean jarrai beza).*

Mari.- *(Barrutik agertuz)* Antoni. Lanak bukatu al- dituzu?

Antoni.- Ortan nabil egiñalean, Mari.

Mari.- Mai auek zabaldu ta garbitu bearrean daude.

Antoni.- Or naiz laster.

Petra.- (*Barrutik etxekoandrea*) Antoni!

Antoni.- Berealaxe, andrea.

Mari.- Antoni!

Antoni.- Zer degu?

Mari.- Txoko au zikiña dago oraindik.

Antoni.- Banoa.

Petra.- (*Barrutik deika*) Antoni!

Antoni.- Etxekoandre!

Petra.- Botilla auek zertan dauzkan emen?

Antoni.- Oraintxe jasoko ditut. (*Dijoala, Mariren otsera geldi bedi*).

Mari.- Onera, Antoni. Eldu mai oni.

Antoni.- Banator. (*Marirengana dijoala, Petraren deiak geldiarazten du*).

Petra.- Nun aiz, Antoni!

Antoni.- (*Berekiko*) San Pedroren abarkak! (*Etxekoandreari*). Aulki ta maiak txukuntzen, andrea.

Mari.- Azkar, Antoni; gazteak aurki izango ditugu dantzatik eta.

Antoni.- Bai, Mari. (*Marirengana dijoala, nausia deika barrutik*).

Patxi.- (*Barrutik*). Baiña nun dabil Antoni ori?

Antoni.- (*Maia elduta zeukana, utzi ta bijoa barrura, esanaz*). Leku guztietan, Jaungoikoa bezela.

Nere.- (*Kaletik lasterka sartuaz*). Dantza bukatu den.

Mari.- Plazatik al-ator, Nere?

Nere.- Bai, Mari; ta gazte taldea ere gañean diñagu. Ene! Ta maiak jar-zeko dauzkazue... (*Barrura deadarka bijoa*). Antoni!

Mari.- (*Ondoren barrura sartuaz deika*). Antoni!

Petra.- (*Barruan deika*). Antoni!

Patxi.- (*Barruan deika*). Antoni!

BIGARREN AGERRALDIA

(Anton, gero, Antoni ta gazte taldea).

Anton.- *(Nere, barrura sartzera dijoala, agertuko da kaletik. Etxe guztia Antoniri deika aditzen du, eta bere ere, kantari asten da)*
Antoni! Antoni! Zure atean nago ni.

Antoni.- *(Berriro barrutik agertuaz kantari erantzuten dio).* Ai, Anton!
Ate ondoan nago ni.

Gazteak.- *(Kanpotik, neska-mutilak biñaka sar bitez bat-batean; eta mutil bakoitzak bere alboko neskatxari, talde guztikoak batera, abesten diote).* Antoni! Antoni! Zure atean nago ni. *(Taldeko nexka guztiak batera, bakoitzak alboan dakarren mutillari).* Ai, Anton! Ai, Anton! Ate ondoan, or konpon! (1)

Anton.- *(Antoniri abestuz).*

Ormatxoriak negu gorrian, ez du atsegin elurra;
Zerua goibel, kabia otza, ta janari gabe lurra.
Ai, maite! Nere biotzak duan zure otzaren bildurra!
Biontzat kabi bat berotzeko bilduko nuke egurra.

Mutil guztiak.- *(Bakoitzak bere neskatxari).* Antoni! Antoni! Zure atean nago ni.

Neskatx guztiak.- *(Bakoitzak bere mutillari).* Ai, Anton! Ai, Anton! Ate ondoan, or konpon!

Antoni.- *(Anton i abestuz).*

Enarak ez du bein egindako kabirik iñoiz aldatzen;
Urtero beti kabi aretan, umeak ditu bazkatzen.
Baiña zu, Anton, enara txarra zaitut neretzat billatzen;
Jai bakoitzean nexka berria ikusten zaitut maitatzen.

(1).- Kantu honen izena "Antoni ta Anton" da. Doiñua 133. Or. an.

Mutillak.- (*Bakoitzak bere neskatxari*). Antoni! Antoni! Zure atean nago ni.

Neskatxak.- (*Bakoitzak bere mutilari*). Ai Anton! Ai, Anton! Ate ondolan, or konpon!

Anton.- (*Antoni 'ri*).

Enarak ere, bere kabia galduta badu ikusten;
Biderik gabe, arutz ta onuntz, kabitik du aldegiten.
Egarri dagon nere biotza, zuk eman ezik edaten,
Berriro ere, ibilliko da gogorik gabe nunbaiten.

Mutillak.- (*Bakoitzak bere neskatxari*) Antoni! Antoni! Zure atean nago ni.

Neskatxak.- (*Bakoitzak bere mutillari*) Ai, Anton! Ai Anton! Ate ondolan, or konpon!

Antoni.- (*Anton 'i*) Zure biotza egarri dala, esan didazu bertsotan;

Neronek ere, ikasia det arrazoi dezula ortan.
Zu beti zabiltz edari bila. Ikusi zaitut askotan;
Baiña, neurriz gain, egarri ori itotzen dezu ardotan.

Anton.- (*Antoni-ri*). Antoni! Antoni! Kalabaza zale ez naiz ni.

Antoni.- (*Anton-i*). Ai, Anton! Ai, Anton! Aize preskuari, gabon.

Gazte guztiak.- (*Txaloka*). Gora Antoni! Gora!!!

Martin.- Antoni! Ni ere emen natxion ba, ire zai.

Antoni.- (*Maiak alkarren gañetik jetxi ta bakoitza bere lekuan jartzen asiko da. Itzegiten dioten mutillak laguntzen diote lan ontan*).
Egualdi ederra zegok. Joan adi mendira perretxiko billa.

Txanton.- Nik ere bear diñat ba, i bezelako bat.

Antoni.- Ate atzean zeudek eserita nai aiña. Usai egiek.

Pako.- Aizan, Antoni. Alkatearen semeak kiñu egiten omen din, e?

Antoni.- Aixa! Arek, nere atzean zegoen ire andregaiari zorrozten zizkion begiak.

Joxe.- Alperrik zabiltzate guztiok. Antoni, neretzat arira egiña zegok.

Antoni.- Ederra jartzen dek ori.

IRUGARREN AGERRALDIA

(Lenak. Gerora Patxi, Nere ta Mari)

Patxi.- *(Nagusiak sukaldetik betor)*. Tira, gazteok! Ez al zerate egarritu? Exeri zaitezte jarlekuetan, onuzkero gogoa eginda zaudete-ta.

Joxe.- Ederki esana! Antoni, ekarri garagardoa birentzat. *(Bere neska-txarekin exeri bedi)*.

Antoni.- Garagardoa?

Joxe.- Zerbeza, neska.

Martin.- Iru akeita, Antoni.

Antoni.- Zer izketa dek ori, mutil?

Martin.- Iru kape, emakumea: baiña kapezkoak, gero.

Txanton.- Ia onera izoztu bat neri, Antoni.

Antoni.- Ez ago i, izoztu txarra, Txanton.

Txanton.- Elaua esan nai diñat.

Antoni.- Zoratu bear nauzue guztion artean.

Patxi.- *(Barrutik deika)*. Mari, Nere! Atozte, gazte auek zerbitzera.

Nere.- *(Barrutik azalduaz)*. Atsalde on, gazteok. Ondo al-dijoaz Andra Maiak?

Pipex.- Oraindik legor xamar "Venga" beltzetik guri.

Peru.- *(Kanpotik sartuaz eta Pipex-en itzak entzunda)* Ordu oneko eskea egin dek, Pipex. Neu ere orretxen bearrean natxitorrek. *(Exeri bitez biak mai baten)*.

Mari.- (*Barrutik azalduaz*). Emen naiz, aita. (*Patxiri*). Nork du nere premia?

Pipex.- Nik, Mari. Bihar bertan, nai badezu, aldarera eramango zaitut pozik.

Mari.- Bihar ez au i, iñork emen arrapatuko.

Pipex.- Baita gau guzia San Drokeri kantatzen joaten bazaigu ere!... Bihar lo. Alajaña! Etzion gaizki!... Tira! Ekar zazkiguzu jokora-ko kartak, eta eztarria leguntzeko zerbait.

Patxi.- Bai, ta azkar ibili; iñor asper ez dedin. (*Barrura bijoa*).

LAUGARREN AGERRALDIA

(*Patxi ez besteak*).

(*Mari ixi-mixil jartzen da Andresekin mai baten ondoan, eta surzapia aterata malkoak igurtzika asten da. Bitartean, beste gazteak, batzuek mostadore ondoan zutik eta besteak or-emen ardilan dabiltza*).

Joxe.- Mutilak; biarko pelota jokoa, bakarrak irabazi baietz.

Pako.- Amar seiri, bikotearen alde.

Jose.- Baziak. Bihar ire kontura apalduko diat.

Pako.- Ori janda zeukat nik.

Andres.- (*Negarrez ari dan Mari-ri*). Baiña, Mari. Zu orren negarti? Soldadu joatea, ezta iltzea. Hamaika badabiltz munduan, soldadu izanda gero tente asko.

Mari.- Bai, baiña zer nai dezu, Andres? Danak eztira etortzen, beren etxetara.

Andres.- Ez, batzuek andregaiaren etxera biurtzen dira. Tira, tira! Bota itzazu kezka oiek... (*Kantari*).

Andres.- Soldado noanean.

Guztiak.- Oi, nere maitea.

Andres.- Etzazu negar egin.

Guztiak.- Alaitu zaite.

Aizeak galtzen ditu
Neguko laño beltzak,
Kantuz uxa ditzagun
Biotzeko arantzak.

Andres.- Erritik irtetzean.

Guztiak.- Oi, nere maitea!

Andres.- Biotza utziko dizut.

Guztiak.- Alaitu zaite,

Aizeak galtzen ditu...
Gerrako arrixkuan
Oi, nere maitea!
Jainkoak zaituko nau.
Alaitu zaite.
Aizeak...
Zaurituta banentor
Oi, nere maitea!
Zurea izango naiz,
Alaitu zaite
Aizeak... (2)

*(Bertso guztietan Andres-ek kanta bitza lenengo eta irugarren bertsoa.
Gero taldeak tartekoak eta azkeneko Aizeak galtzen...).*

(2).- Kantu honen izena "Soldadu noanean" da. Doinua 133. Or. an

BOSKARREN AGERRALDIA

(Lenak eta Mantoni).

Mantoni.- *(Kontu bukaeran aserre sartuko da).* Emen al-da gure gizona?

Martin.- Peru! Andrea zure galdezka dezu.

Peru.- Aundia dek! Beñere ez al-degu pakerik bear?

Mantoni.- Gizona! Etxea ipurdiz gora daukazula jakinda ere, ez al-dizu odolak irakiten?

Peru.- Egingo dira danak, Mantoni. Gizonak, kontu txarrak azteko, noizean bein ardo txurruta bat bear du. Onek bixitzen ditu odolak. *(Basoa erakutsiaz).*

Peru.- Etzazu alperrikako eskarietan astirik galdu, emakumea. Zuk eskatzeke ere, naikoa ur botatzen diote bai tabernariak. Atoz nerekin txurrut bat egitera. *(Kantari).* A, a, a! Ardo gorri naparra, eztarriko lakarra kentzen au dek azkarra. (3)

Guztiak.- A, a, a! Ta autsi lepaezurra. *(Horrela bukatu arte kantua. Bukaera bakoitza guztiak abestuz).*

Peru.- A, a, a! Au den ardo bikaña, edan zagun nai aña, naiz argitu bekaña.

Mantoni.- A, a, a! Matsaren ur sorgiña. Gizonak edan griña, ta andre-ak, mitiña.

Peru.- E, e, e! Ni ardoaren, goiz eta arratsalde, beti naiz aren galde.

Mantoni.- E, e, e! Edari etxe-kalte, nasaikerien ate, tabernetan alkate.

Peru.- I, i, i! I aut nere edari; ik jartzen nauk kantari, ta sarritan dantzari.

(3).- Kantu honen izena "Ardo gorri naparra" da. Doinua 145.Oran

Mantoni.- I, i, i! Matsaren zumo azti; griña txarraren illati, osasunaren pipi.

Peru.- O, o, o! Onek jartzen nau bero; eta sarritan ero, edanaz gero.

Mantoni.- O, o, o! Edari demonio; inpernuko jario, pardel danen bizio.

Peru.- U, u, u! Au da gure erregu; ardoa bear degu, naiz uda naiz negu.

Mantoni.- U, u, u! Ur gorrizko olatu; orrek au i ondatu, ta andreaz asarratu.

Biak batera.- U, u, u! Ardo madarikatu! Gau-txorien telatu alper denen ostatu.

Guztiak.- U, u, u! Ardo madarikatu!

Mantoni.- Bazan ordua egia ezagutzeko. Goazen etxera.

Peru.- Bai, andrea. Gaurko txanponak agortu dira, ta bihar arte txarra da ardoa.

Mantoni.- Ai, upel, upel! Noiz atertu bear du zure sabelean?

Peru.- Ai, andratxo! Legorteak kalte aundiak egiten ditu baztarretan, eta ezta komeni aztertzerik.

Mantoni.- Euria ere, neurriz, Peru, neurriz.

Peru.- (*Kantari asten da, ta gazte guziak laguntzen dioten*).

Ez da abarkadunik, ez kapeladunik,

Ardoari neurria artuko dionik;

Gizon aundiak ere, ikusi ditut nik

Beren moskorra ezin disimulaturik.

Mantoni.- Au gizona, Jauna; au gizona! Nola engañatu ninduan, baiña zaragi onek.

Peru.- Ardoaren bitartez, Mantoni. Ardangelan neskame egon izan ezpaziña, ez giñan gaur elkarrekin izango.

Mantoni.- Baiña, baiña; ixilduko al-zera!

Peru.- Ixildu bearko zu zauden lekuan. Gabon, gazteok. Tira, Mantoni; egin dezagun gaur ere, zure gogoia, pakea dezagun. (*Biak besotik atera bitez*).

SEIGARREN AGERRALDIA

(*Peru ta Mantoni ez beste danak*).

(*Martin eta Txanton, maitik jaiki ta mostradore aldera joaten dira*)

Martin.- Joan dituk oiek pakean.

Txanton.- Baiña atsoa nagusi azkenerako

Martin.- Ta ik, ez al-dituk pakeak egin bear ire andregai, Nere-kin?

Txanton.- Bai, xamurra zegok, alajañetan! Emaiok beatza ahora, ta ikusiko dek.

Martin.- Mutil; ez nian uste, orren kobardea intzeanik. Orren azkar etsi-tzen duan gizonak, jai dik motel.

Txanton.- Emen dek bera berriro. Euk ikusiko dek erraza dagon, ala ez.

Martin.- Atoz onera, Nere, gure zorrak garbi ditzagun.

Nere.- Kontu garbirik bai al-dezue, gero, zuek?

Martin.- (*Emanaz*). Orra garbi nerea behintzat.

Txanton.- Eta emen nere kontua. Ez al-dago garbi ala?

Nere.- Beste kontu batzuek nai nituzke nik garbi.

Martin.- Or lagatzen aut, Txanton, ire laguntxoarekin. Ez diat traban egoterik nai-ta.

Txanton.- Geldi adi, nai ba-dek; iretzat eztiagu ixilekorik eta.

Martin.- Ez, ez. Ni or jartzera natxiak. Egon adi patxaran.

Txanton.- Aditu dezazu, Nere. Bekozko orrek ez al-du azkenik?

Nere.- Min batzuek zorrotzegiak oi-dira, onen errez azteko.

Txanton.- Zure kezkak galdu bear digute gure lagun artea. Etzera egosbera, Nere.

Nere.- Ai, Txanton! Mutilen kontuekin eta itzekin, ezin diteke iñora joan.

Txanton.- Ez al-dezu itz gozoagorik?

Nere.- (*Kantari asten da*).

Uste gabe sartu ziñan nere biotzean
Tximista laño artetik sortzen dan legean.
Arrazkero ezin naite bizi ni pakean;
Aztu eziñikan nabil, oi, nere kaltetan!
Biotzak ez du legerik maite duanean.

Txanton.-

Zertan zabiltz, nere maite, alperrik nekatzen,
maitasunezko bidetan biotza kezkatzen?
Txoriak goiz-argiari bezela kantatze
Ala nai zinduzket pozez ikusi zoratzen.
Kezka gabe asi zaite biotza gozatzen.

Nere.-

Nundik nora zenebilen lengo arratsean,
beste arekin ixilka bide bazterretan?
Erruki gabe zulatu nazu biotzean;
Bizia eman-ondoren, il nazu batean.
Biotzak ez du jolasik, miñez dagonean.

Txanton.-

Mingai txarrak ezin dira egon-oi pakean,
Biotz onen zoriona garraztu naiean.
Utzi zaiezu miztarrei beren jardunean!
Erleak, lorerik-lore, ibil oi-danean,
Eztu eztirik jasotzen lokatza artean.

Nere.-

Ez dezadala sinistu iñoren esanik,
Mingai txarren lan okerrak bertan bera azturik.
Neuk baiña, zoritxarrean, zaitut ikusirik.
Biotza urratzeko ezta alako eztenik.
Maite duanak eztu iñoiz esaten gezurrik.

Txanton.-

Gezurrak eztu nerean arki ostaturik;
Egia da ez dedala zu beste maiterik.
Lengo gabeko arekin ez nuan maite-itzik;
Sinisten azpadidazu, kezka itxuturik,
Ba-noakizu biotza ziara mindurik.

Nere.-

Agur, nere biotzeko ametsik onena;
Ba-zoaz bertan urturik nere itxaropena.
Orbel-dantza zoro dabil basoan barrena;
Ego aizeak aidean dakar Udazkena;
Arekin batera ilko da nere maitasuna.

Txanton.- (*Irrikoitasunez*).

Ai, nere Nere-k eztu nai nere itzik sinistu;
neri berriz, nere Nere-k biotza dit piztu;
nere Nere-k neri zenbat kontu didan nastu!
Atoz neregana, Nere; ez nazazu aztu.
Nere nerentzat ezpadet, nereak egin du. (4)

Martin.- (*Kanta bukatzerakoan*). Bapo, Txanton! Irabazi dek, Pakea egin bear dituzue, Nere.

Txanton.- Neregatik egiñak zeudek.

Martin.- Ire andragaia, nere kontu.

(4).- Kantu honen izena "Ai Nere Nere!" da. Doinua 134.Or. an

Nere.- Errezegi biguntzen gaituzue, bai, neska errukarriok.

Martin.- Bihar itzegingo degu. Gaur berandu da, ta alde egin bearko degu. Gabon, gazteok. (*Besteak ere jaikitzen dira*).

Guztiak.- Gabon, Martin.

Joxe.- Guk ere, ordua diagu, ta goazen emendik. (*Banan-banan Antoni-ri dirua emanaz*).

Joxe.- Jaso nerea, Antoni.

Andres.- Agur, Nere; ta gabon pasa.

Pako.- Or nere kontua, Mari.

Mari.- Ondo da, gazteok. Gabon. (*Bijoa barrura*).

Nere.- Ondo dantzatu, mutillak. (*Barrura bijoa*).

Txanton.- Agur, Antoni.

Antoni.- Bai, Txanton. Pakeak egin azkar.

Txanton.- Biar ego-aizerik ba-da larri ibilli.

ZAZPIGARREN AGERRALDIA

(Lenak eta Gibel).

Gibel.- (*Irtetzera dijoazenak geldi-araziz*). Geldi gazteok!

Martin.- Kaixo, Gibel. I beti berandu.

Gibel.- Egon pixka bat. Ezetz asmatu iñork zer dakardan poltsikoan?

Martin.- Ik zer ekarriko dek ba? Aizea.

Gibel.- Ez mutillak. Gaurko ontan sakela betea zekarret. Ezetz asmatu zer dedan aldean?

Martin.- Zakarretan batutako birika ustelen bat, noski.

Gibel.- Eztek jana.

Txanton.- Burruntziren bat, orduan.

Gibel.- Ezta urrik eman ere.

Txanton.- Papelen bat, ala?

Gibel.- Erretzen, erretzen.

Joxe.- Jokorako kartak, seguru.

Gibel.- Ozten, ozten.

Joxe.- Esan zak bein eta kito.

Gibel.- (*Idazti bat sakaletik atera ta guztiei erakutsiz*). Karta bat Antoni-rentzat.

Joxe.- Ezkutuko adiskideren batena, noski.

Gazteak.- Erakutsi, erakutsi.

Antoni.- (*Eskutitza artu nairik*). Karta ori neretzat bakarrik da.

Gazteak.- Ez, ez, erakutsi nundik datorren.

Gibel.- Zeraindik zetorrek.

Joxe.- Nungo erria dek ori gero?

Gibel.- Segura aldean izan bear dik.

Joxe.- Bai ezkutu zeukala Antoni'k bere ixillekoa.

Antoni.- Zerain-en? Zerain'en, Ameriketan aberastuta etorritako izeko zar bat besterik, ez diat nik.

Gibel.- Testamendua, orduan. Nere Antoni maitea, oso-osorik zurea nazu.

Antoni.- Gibel arriz aspertuta natxiok tabernan, Gibel. Onera karta ori.

Gazteak.- Ez eman, ez. Ikus dezagun zer dakarren.

Antoni.- (*Gibel-i eskutik eskutitza kenduaz*). Zoazte emendik, aspergarriok! Neuk bakarrik irakurri bear det idazki au.

Gibel.- Ez aztu ni, Antoni. (*Bijoa*).

Martin.- Tartean dirurik ba-da, emen nere eskua, Antoni. (*Bijoa*).

Joxe.- Danok gai gaitxeuden, Antoni. (*Bijoa*).

Antoni.- Agur. Datorren igandean asten dituk eliz-deiak.

ZORTZIGARREN AGERRALDIA

(Antonio bakarrik. Gero, Nere ta Mari).

Antoni.- Zerain-dik idazkia? Zenbat urte ote dira izekoren berririk ez dugula?... Arena bearko din, ba, idazki onek... Zer bururatu otezaio gure izeko xarrari, neri lenbiziko aldiz idazteko?... (*Idazki-estalkia urratuz*). Jaungoikoak asma!... (*Karta zabalduz*). Bai izeko Kontxixi-rena det idazkia... (*Irakurtzen*)... "Nere illoba maitea: Aspaldian ez det zure berririk. Ezagutu ere, etzaitut egiten..." Egia! Nik ere, ez det beñere ikusi gure izeko Kontxixi. Gurasoei entzuten geniena besterik ez dakit aretzaz... (*Berririo irakurtzen*)... Baiña, baiña!... (*Begiak igurtziz*). Lausoren bat jarri al-zait begietan?... Jesux!... San Antonio Urkiolakoa!.. Ez, ez. Ezin diteke! (*Batera ta bestera, zoro baten gisa, saltoka ta dea-darka asi bedi*). Mari! Nere! Begira, begira!

Mari.- (*Agertuaz*). Zer naaste darabilzu or?

Antoni.- Izekoren karta (*Erakutsiaz*). Au da ona!

Nere.- (*Agertuz*) Sorginkeriren bat al-dezu?

Antoni.- Lau, bai, lau!... Ene!... Ezin det sinistu!

Nere.- Emakumea! Gaztaitik ondo al zaude?

Antoni.- Gaur ziara nasten ezpanaiz, bai?

Nere.- Jakin al-diteke garbi zer dezun?

Antoni.- Ikus zazu zeuk; nik, ametsetan ote-nabilen ere, eztakit-eta (*Idazkia emanaz*). Irakurri, irakurri.

Nere.- (*Irakurtzen*). "Nere illoba maitea: Aspaldian zure berririk ez det. Ezagutu ere, etzaitut egiten. Bestaldetik berriz Jaungoikoak ez dit seme-alabarik eman, eta nere urteak aurrera dijoaz..

Lezo-n ere, ba-det beste illoba ez-ezagun bat. Beste ondorengorik ez dut iñun, eta biok ikusteko gogo bizia sortu zait.

Nere asmo au betetzeko, zuri bezelaxe, Lezo-ko illobari ere, idatzi diot. Biok ikusteko pozetan nago. Lenbailen neregana etor zaitezen, ona zer asmatu dedan. Jaunak seme-alaba ordez, ondasunak eman dizkit ugari. Diru, etxe ta lurretan, lau miloetik gora joko dute guztira. Ondasun oiek guztiak, iloba biotako batentzat izango dira.

Zu, nere etxera aurrenengo sartzen ba-zera; zuretzat izango dira oso-osorik. Baiña Lezo-ko lenago etortzen bada onera, arenak lirake nere guziak. Nere ondasunen jabe izan nai ba-dezu, beaz, jarri zaite azkar bidean, eta aurrena etortzen, saia zaite".

Zure biotzeko izeko.

Aldanondo-tar Kontxixi

Nere.- Au da izatekoa! Ametsa dirudi. Antoni.

Mari.- Ama, ama! (*Barrura bijoa*). Eztakizu asko!

Antoni.- Baiña, ikusi al-dezu gure izeko orren ateraldia? Aurrenengo dijoakionari dituan danak oso-osorik utzi!

Nere.- Berriketak alde batera utzi itzazu, ta apostua irabazi bear duzu orain.

Antoni.- Egia diozu. Banoa lenbailen gertutzero. Gaur azkeneko trenean, Zumarraga-ra. Andik Beasain-era, urrengo, eta Beasain-dik Zerain-artekoa, nolabait asmatuko al-det! (*Antoni kantari*).

Izeko Kontxixi-k jarri dit neri gaur istillu gorria;

Lau miloien jabe egitea, ez da jolas txikia.

Ba-noa lenbailen artzera biderako guztia;

Lezo-ko illobak ez dezaidan irabazi dotia.

Nere.- Ta eztezu alperrik galtzeko astirik. Trena gaiñean dezu onuzkero.

Antoni.- Ene! Ta ala da. Amarrak gañean, eta oraindik jantzi gabe. Aita San Antonio bedeinkatua! Argi nazazu ordu larri ontan! (*Lasterka bijoa barrura*).

ANTZOIALA BERA

BIGARREN EGINTZA

(Segura-ko ostatu baten, egon gela bat. Ondoan, aurrez-aurre, bi lo-gela ageri dira. Oietako baten, ikusleak ikusteko eran, besaulki bat ager bedi. Ezkerretara, kalerako atea. Eskuinetara, etxe barrurako atea. Baztar baten, gizona ar dezaken armario bat barruan eztaiak dira).

LENENGO AGERRALDIA

(Telex eta Boni).

Telex.- *(Kantari sartzen da).*

Kanta kantari daude txoriak zeruan;
Kanta kantari daukat biotza barruan.
Ta zergatik? Ta norgaitik? Maite, zuregaitik.
Kanta-kantari nago, maite, zuregaitik.
Kanta kantari dator argia goizetik;
Kanta kantari noa, ni aren aurretik.
Ta zergatik? Ta norgatik? Maite zuregaitik.
Kanta kantari noa, maite, zuregaitik. (5)

Arrats on, lore gazte. (Oso señorito ta xurikatzale ager bedi. Ate aurrean kaletik itzegingo du).

Boni.- *(Kalerako ate zabalean zegoen, ate-ertzari bizkarra emanaz. Orain, etxe-barrura sartzen da, esanaz).* Gabon señorito Telex.

Telex.- Zertan giñan atal-aurrean, Boni. *(Barrura sartuaz).*

Boni.- Barruan, eztaibazkari-lanez aspertu, ta ementxe nengoan, aizea artzen eta izarrak kontatzen.

(5).- Kantu honen izena "Kanta-kantari" da. Doinua 134. Or. an.

Telex.- Ta pares ala nones kontatu dituzu, ba?

Boni.- Gaur, nones.

Telex.- Illargirik etzenduan barruan sartuko-ta.

Boni.- Egia. Illargia kanpoan gelditu zait.

Telex.- Ba, illargiarekin pares gelditzen zaizkigu izarrak; eta orrek, gu biok elkarrenak bear degula, adierazten du garbi.

Boni.- Eztago gaizki! Palazioko semea, ostatuko alabari begira dago! Ez euki inguruan euli ezti zaleagorik- eta...

Telex.- Neri, Boni, basa-loreak gustatzen zaizkit; ez etxetan lorontzian zimeltzen daudenak. Batez ere, onelako panpiñak diranean.

Boni.- Etzaude zu loxinkatzale txarra. (*Itzez egoskor, ta arpegi ta biotzez maite-gose ager bedi*).

Telex.- Ta zu, biotz-urrazale panpoxa.

Boni.- (*Samurtzen dijoa*). Aixa!

Telex.- Bai, "por sierto". Eztakizula gaur zertan joan zaidan eguna?

Boni.- Bertso berriak egiten.

Telex.- Bai, ba. Nere uso lumatxuriari bertsoak ateratzen.

Boni.- Orra bertan Pello Errota!

Telex.- Pello Errota txiki uztekoak egin dizkizut.

Boni.- (*Entzun-gose ta aizetuta*). Ia ke, egin dituzun, aditzekoak izango ditugu.

Telex.- Eiztariak bidean zu jetxi zai daude,

Zure ego txuriak zulatzeke, maite.

Nere usategian sar zaitzadan arte;

Nere uso kutuna, goitik ibil zaite.

Biak.- Izarrak kiñuka ditugo goietan,
maiteak biñaka dirala bidetan;
maiteak biñaka dirala bidetan;
izarrak kiñuka zeletan.

- Telex.- Azala txuri dezu, elurraren pare;
begi-ondoak berriz, itxas urdin bare.
Zure biotza artzeko, bota nai det sare.
Aspaldi jaso nizun, nerean aldare.
- Biak.- Izarrak kiñuka.....
- Telex.- Laztan eskea dezu, matrail-txuloetan.
Laztana lertzen dago, nere ezpañetan.
Etsaiak gal ez gaitzan, bere tentaketan;
Zurekin bearko det laster eztaietan.
- Biak.- Izarrak kiñuka.....
- Telex.- Zure ezpain-loretan, erle izan nai nuke;
Duten ezti guzia, xurgatzeko, maite.
Zure gozoz betetzen, pozik niñuzuke.
Beti zure morroe, dezun ezti-truke!

(Azken bertso onetan, Telex belauniko jarri bedi Boni-ren aurrean, eskua biotzera daramala).

Boni.- (*Biotz beratuta, kantari*).

Zure beso-kakoak, eztutu nazate;
Oiek bitez neretzat, zoratzeko kate.
Kartzela ortan itxi neri leioa ta ate;
Zure besotan preso, nazazun il-arte! (6)

BIGARREN AGERRALDIA

(Lenak eta Kaiku).

*(Boni-ren azken bertsoan, atean azaltzen da Kaiku, Boni-ren senargaiak.
Telex belauniko ikusi du, ta eskuan dakarren gorosti-makilla artu, eskuak*

(6).- Kantu honen izena "Eiztariak bidean" da. Doinua 135. Or. an.

txistuz igurtzi, ta Telex-i anka-puntaka ateratzen zaio. Boni ta Telex, orain biak zutik ta alkarri eskuak emanda abesten asten dira lelo au).

Biak.-

Izarrak kiñuka ditugu goietan,
Maiteak biñaka dirala bidetan;
Maiteak biñaka direla bidetan,
Izarrak kiñuka zeletan.

*(Kaiku, urreratu da. Makila jaso du, ta or dioja Telex-i burua konpontze-ra: baiña ontan, Kaiku-k irris egiten du, ta or dator luze-luze lurrera. Telex, nor datorkion konturatu da, ta or dioja kalera igesi. Boni, parre-
algara baten gelditzen da, ta Kaiku aserre jaikitzen zaio).*

Boni.- A, Kaiku, Kaiku! Ondo traketsa aiz, benetan.

Kaiku.- Txorimalo ori, zertan zegonan emen?

Boni.- Izarrak kontatzera etorri dek.

Kaiku.- Ta, pares ala nones kontatu dizkin, ba?

Boni.- Illargia barruan dala, pares.

Kaiku.- Illargia, saltsera galanta den, besterik ez. Ta badakin bein da betiko, e? Telex-ekin, nones bear din, eta nones izango den.
(Nones esaterakoan, beatzez kiñua egin beza).

Boni.- *(Tentari).* Aizak, Kaiku. Nork eman dik gure etxeko giltza?

Kaiku.- Neronek jaso diñat lurretik.

Boni.- Ba, por si acaso, besteren saldatan ez busti ogirik.

Kaiku.- Nolako señorito piñak inguratzen zaizkion gure "por si acaso" oni!

Boni.- Ya lo creo! Izan ere, orren aldrebesea aiz, Kaiku, izketan! En cambio, Telex-ek nolako itz goxoak esaten dakin! *(Butakan jar-tzen da).*

Kaiku.- "En cambio"? Kanbioak bear ba ditun, to iru txakur.

Boni.- Telex-ek pesetak zeuzkak, zuri-zuriak.

Kaiku.- Ba, nik emen berriz arrapatzen ba-det; olar-usteko ollasko orri,

kenduko zizkionat ollo-xirriñak.

Boni.- Aditzekoa dek Telex maite-kantetan!

Kaiku.- Txepetx-kanta ergel oiei begira al-ago? Mutila mutila danak,
benetan maite ba-du, orru egin bear din, neri barruak egiten
didan bezela.

Boni.- Ik zer dakik ba, aldrebes orrek?

Kaiku.- Artuko likin mika orrek, nere astekoa jairako!

Boni.- Itz bi alkarrekin ezin dituk josi, barren.

Kaiku.- Ezetz! *(Bat batean, Boni-ren ondoan exertzen da, ta beti ere
Boni-ren ondorago dijoa. Boni-k berriz, geroago ta alborago
aldegiten dio. Kantari).*

Exertzen zarenean, zu nere alboan,
Biotza kilipatzen asten zait kolkoan;
Ezin det geldik euki. Eztakit zer duan.
Azkura batek dantzan, jartzen dit barruan.

Boni.- *(Kantari)*

Etzaite urreratu gelegi nigana
Ba-dezu lasaitzeko. Or nora joana.
Bapo ikasi dezu, tentaketa lana.
Diabrua eta zu; a, ze pardel bana! (7)
(Barrutik eztaitar-otsa dator).

Kaiku.- Zeintzuk datoz or?

Boni.- Ene! Ezteitarrak ona zetozek, dantza ta soñu. Emen ikusten ba-
aute, berriketarik eztek paltako errian. Oa emendik lenbailen.

Kaiku.- Kale urrean zegon. *(Irtetzera dijoa, baiña Boni'-ren aita dator
kaletik).* Ire aita oraintxe zetorren kale-barrenean gora.

Boni.- Ene! Ikusten ba-au, garbituko au. *(Armario bat erakutsiaz).*

(7).- Kantu honen izena "Biotza Kilipatzen" da. Doinua 142. Or. an

Sartu adi ementxe; ta ixilik egon nik esan arte. (*Kaiku barruan sartu bedi*).

IRUGARREN AGERRALDIA

(Boni ta Mateo. Gero, eztaitarrak).

Mateo.- (*Kaletik sartuaz*). Zer abil emen, barruan orrenbeste jende egon-da?

Boni.- Ezteitarrak onera datoz jostatzera, ta emen traban zeudenak, armario barruan sartzen nenbilen.

Mateo.- Ba-natxian barrura, zer burubide ote-dabillen ikustera. Ator azkar, i ere. (*Barrura bijoa*).

Boni.- Emen datoz eztaitarrak. Kaiku orrek ez al-dik aldrebeskeriren bat egingo! Bildur naiz.

(Eztaitarrak, ardala bizian, etxe-barrutik agertzen dira. Biribilketaren bat joiaz, sar bedi soñu-jolea. Gazteak, oiur ta kanta, lagun bezaiote).

Kaiku.- (*Armario-barruan galtzen du oña, ta atetik kanpora luze-luze erortzen da lurrera. Eztaitar guztiak, lenbiziko izua igarota, txistuka ta Kaiku deika asten zaizkio*).

Iñaki.- Au dek urdaiazpikoa erori zaiguna!

Imanol.- Nun dek andregaia, Kaiku?

Boni.- Andregaia baño, ardagaia obe luke orrek. Zertan engoan parded ori?

Kaiku.- Logale netxegonan, eta ortxe sartu naun deskantsu pixkat artzera.

Iñaki.- Ori dek oe biguna arkitu dekana!

Eztaitarrak.- (*Kantari*). Kaiku! Kaiku! Kaiku!

Kaiku.- (*Kantari*). Deitzen didate.

Eztalariak.- Kaiku! Kaiku! Kaiku!

Kaiku.- Aspertu naute.

Nexka bat urrutira ikusten ba-det nik,
Bereala jartzen naiz lotsaz gorriturik.

Eztaitarrak.- Kaiku! Kaiku! Kaiku!

Kaiku.- Deitzen didate.

Eztaitarrak.- Kaiku! Kaiku! Kaiku!

Kaiku.- Aspertu naute.

Neska batek parean itzegiten ba-dit,
Mingaña trabatua, zer esan eztaikit.

Eztaitarrak.- Kaiku!.... (*Len bezela*).

(Orain, Kaiku aurreratzen da, ta iru neskatx aren alboan atzetxoago, dantzarako prest jartzen dira. Auek ikusleei erakutsiaz, Kaiku, runba au abesten asiko da).

Kaiku.- (*Kantari*). Iru alaba ditut, iru. Maribel, Maribi ta Marilu.

(Iru izenak esaten dijoala, iru neskatxak banaka burua makurtzen dute, ikusleak agurtuaz bezela. Kaiku kantari).

Iru alaba, txiruliru. Obe nuan etxe-bete diru.
Iru alaba ditut, iru. Maribel, Maribi ta Marilu.
Iru alaba, txiruliru. Obe nuan etxe-bete diru.
Ai, Peru! Alabak ez dira aingeru.
Ai, Peru! Mutillak dituzte inguru.

(Azken bertso au abesterakoan, iru mutil, doñu-aidean, neskatxen alboetara aurreratuko dira dantzan).

Kaiku.- Ai, Peru!
Alabak ez dira aingeru.
Ai, Peru!
Mutillak dituzte inguru
Ai, Peru!
Laster naiz, txiruliruliru;

ez alaba, ta ez diru.
Maribel ziara itxutu da,
senargai begibakar batekin.
Maribik naikoa lan ba-du,
artu dun gizon pardelarekin,
Marilu aseko da ongi,
bere senarraren jipoiekin.
Orra nere lru alaba;
bakoitza bere gurutzarekin.
Ai, Peru!
Alabak etziran aigeru.
Ai, Peru!
Ezkontza ez da beti zero.
Ai, Peru!
Orra nola gelditu naizen,
Ez alaba, ta ez diru. (8)

(Iru mutilek, beren neskatxekin, dantza-aidean, ezkututzen dira atebarruetara).

Mateo.- *(Abestia bukatzerakoan, barrutik azaltzen da, ta Kaiku an ikusirik, aserre dio).* Nork sartu du alproja au gure etxean? Alperzorri, alena! Aide, emendik!

Kaiku.- Zure alabarekin lanean ikasten nengoen. Agur gazteok! *(Igesi bijoa).*

Eztaitarrak.- Agur Kaiku! *(Kalera laguntzen diote deadarka, antzokian Mateo ta Boni bakarrik geldituaz).*

Mateo.- *(Boni-ri).* Zertan ago, i ere emen? Jospe! Barrura segituan. *(Boni ta Mateo, barruratzen dira).*

Jaione.- *(Eztaitarren aurrean berriro barrura sartzen da, eta pasodoble au abesten du).*

(8).- Kantu honen izena "lru alaba" da. Doinua 143. Or. an

-Ana! Auxe da lana!
Zu gabe gozagaitz zait dana.
Jana eta edana kaltegarri ditut, laztana.
Ana! Ana!
Usoak joan dira ego-aldera,
Kabi berriren bat an bilatzera;
Maitasun galduak aztutzera.
Lañoak aizetan dabiltz, bide luzeak egiten;
Biotz ixillen malkoak, ez ditu iñork jaikiten.
Ana! Ana!
Negarrez urtu naiz dana;
Illunari nago emana.
Atoz, ai neregana! Atoz, bai, Ana. (9)

(Eztaitarrak dantzatu bezate, erri bakoitzean derizkioten eran. Orain bigarren aldiz, doñua jotzen dutela, eta bertso auetan bakarrik Jaione-k abestuz).

Erbiak arin dijoaz, txakur-agiñen igesi;
Nere oñaze onekin, ezin ninteke ni bizi.

*(Neurtitz auek, goiko "lañoak aizetan dabiltz"-en lekuan abestu bear dira.
"Ana"! ere guztiak abestu bezate bigarren aldi ontan. Azkenean).*

Jaione.- Erruki zaite nigana. Atoz, bai, Ana! *(Abesti onen azkenean, ezkonberriak barrutik ateratzen dira).*

Eztaitarrak.- Gora ezkon-berriak!

Iñaki.- Ongi ibilli Donosti-aldean!

Imanol.- Goazen guztiok treneraño laguntzera.

Eztaitarrak.- Bai, goazen!

Senar berriak.- Eskerrik asko, gazteok. Goazen guztiok Beasaiñ-eraño.

Eztaitarrak.- Ori! Ori! *(Atera bitez, bi ez beste guztiak).*

(9).- Kantu honen izena "Ana!" da. Doinua 136. Or. an.

LAUGARREN AGERRALDIA

(Koldo ta Irene).

Irene.- *(Mutilla geldiaraziz).* Koldo, arren, entzun zaidazu.

Koldo.- Kopla gutxi neri, Irene.

Irene.- Baiña...

Koldo.- Naikoa det lengoa ere. *(Bultz egiten dio).*

Irene.- *(Kantari).*

Laztan bat! Laztan bat!

Edenez batea eman zidaten bart.

Laztan bat! Laztan bat!

Arrazkero milla bider damutu zat.

Laztan arek ondatu dit bizia;

Laztan arek, galdu nere zoria.

Laztan bat, zan atzo nere zeru;

Laztan bat, da gaur nere inpernu.

Laztan bat! Laztan bat!

Arrazkero, gorroto dezu neretzat.

Laztan bat! Laztan bat!

Arrazkero, nere biotzak, negar bat.

Laztan arek, garraztu dit bizitza;

Laztan arek, ekarri zorigaitza.

Laztan bat, zan atzo...

Laztan bat! Latan bat!

Arrazkero argirik ez da neretzat.

Laztan bat! Laztan bat!

Arrezkero, nere bizia inpernu bat.

Laztan arek urratu dit biotza;

Laztan arek, sortu dit eriotza.

Laztan bat, zan atzo...

(Azkenean). Laztan bat!

Koldo.- (*Aurreratua* kantari).

Ez niñan uste, ire ezpain oiek.
Ain labain zorrotz ziranik.
Nere biotza, alderik-alde,
Urratu didan ondotik.
Errekan bera datorren urak,
Ez din gorako biderik.
Alperrik abil! Ez den sortuko
Nik aña maiteko aunik.
Loretan den gure sagarra;
Ostrotu den intxaur-adarra;
Baiña biotzeko negarra,
Ez den oiekin gozaten.
Ire ondapan ta itxumenak,
Galdu dizkin nere kemenak.
Bein usteltzen diran txermenak;
Ez ditun geio loratzen.
Zillar-dizdirak, itxutu indun,
Ire botza saltzeko.
Aberastu aiz, baiña diruak
Ez din biotzik aseko.
Aur jostallu bat bezela artu.
Aute, jolas egiteko;
Jostallu-legez puska-ondoren,
Bazterrera botatzeko.
Loretan den gure sagarra.... (10)

(*Irene negarrez dago bitartean; eta mutillak alde egiten dio, esanaz*).

Koldo.- Aize otza sortu den, eta agur pixkaterako. (*Bijoa*).

Irene.- (*Koldoren ondoren deika*). Koldo! Koldo! (*Bijoa kalera*).

BOSGARREN AGERRALDIA

(Xabier bakarrik. Gero Katalin).

Xabier.- *(Izerdia igurtziz)* Ez nuan beñere sinistuko diruak onenbeste estuasun ta larri sor zezakeenik...Zorioneko izebaren idazkia! Eztit istillu txarra ipiñi gau ontarako... Etxean guztiak ardala bizian asi zaizkit. Azkar Xabier! Jantzi adi tximista baten, eta oa emen auetatik lenbailen... Lotan al-ago, mutil? I baiño esnatuago bearko dik Azkoiti-koak, lau miloien jabe egin nai ba-du... Azkenean bultzaka atera naute atean aurrera. Ala izan da nere jetxiera... Iru-lau malla irristan galdu, ta zereko *(Atzekaldia era-kutsiz)* eder bat artu det iskillaretan bera. Aiek izerdiak Errenderiko bidean!... Ez alperrik! Tranbiak nere musu-aurrean iges egin dit... Galdu aiz, Xabier, nion nere artean... Donostian ito bearrean trenera... Txartelik artzeko astirik gabe sartu bear izan det barrura.

Ta orain berriz, ain ederki nentorrena, automobiliari ardatza ausi zaio, ta orra nere usteak txoritara joanda... Azkoiti-ko illoba orrek jan bear dizkit izebaren lau miloiak! *(Alde guzietara begi-ra)*. Baiña, ostatu ontan ez al-da iñor bizi?

Katalin.- *(Etxekoandrea)*. Zein da emen? *(Xabier ikusita)* A! zu al ziñan? Gabon deizula, Jaungoikoak.

Xabier.- Ala zuri ere. Presa det. Uskeri bat apaldu, ta lo-komux bat egi-tera sartu naiz onera.

Katalin.- Ongi egiña. Zer jan nai dezun, zerrorek esango dezu.

Xabier.- Bai, baiña al dan azkarren izan bear du; ta aurrez ixileko gauza bat esan bear dizut. Baiña oso gordeta eukitzekotan orde....

SEIGARREN AGERRALDIA

(Lenak eta Antoni).

Antoni.- *(Xabierrek azkeneko itzok esnaz bat ezkerreko atetik sartuko da).* Au ote da esan didaten ostatua?... *(Xabier eta Katalin izketan iuksita)* ta oiek nortzuk ote-dira?... Lezoko illoba izan behar luke orrek!... Uumm!... Larri ibili!... Ta mutil gazte jatorra da gero... Lau miloi ta orrelako mutil bat senartarako, mus egitea litzake orreatik!

Katalin.- *(Xabier-i ixillik).* Gaur bertan Lezo-tik atera zera beaz?

Xabier.- Bai, etxekoandre; ta lo pixka egin ezker berealaxe joan bear-ko det Zeraingo izekorengana. *(Ateratzen dira).*

ZAZPIGARREN AGERRALDIA

(Antoni, gero Boni).

Antoni.- *(Xabierren azken itzak entzun ditu).* Gaur bertan irten dala Lezotik, eta Zeraingo izekorengana azkar joan bear duala... Au da korapiloa! Bera da nere lau miloien etsaia!... Aurrea artzen badi, galdua naiz... Ta ni, Lezoko illoba ori neska petralen bat izango zalakoan lasai nengon eta orratx!... mutila izan... ta ez mutil zatarra ere... Eztu lotsa aundirik, neska baten kontra arazo ontan jartzeko... Ai, Antoni, Antoni! Milloi oiek oraindik eztitun iñorenak... Oraintxe den zerbait asmatzeko ordua; baiña azkar ibili bearra zion. *(Deadarka).* Ai, Maria!....

Boni.- Sin pecado consebida.

Antoni.- Ostatu onetako etxekoandrea zu al-zera?

Boni.- Ez, andrea. Ni bertako alaba, Boni, naiz. Etxekoandrea, mutil

gazte batekin joan da jantokira.

Antoni.- Ondo da. Ni oso gutxi egoteko etorri naiz bai, ta zure bearra izango dedala, uste det.

Boni.- Mutil orren ondoren al-zatoz? Begi ona dezu ortan.

Antoni.- Ondoren, ez; igesi atera bear det al dedan lasterren.

Boni.- Nik ez nuke igesirik egingo orrelako mutil jator batengandik.

Antoni.- Berriketarako astirik ez det oraingoan. Entzun ondo, ta nere esana egiten ba-dezu, etzera gaizki izango. Or etxekoandrearekin sartu dan beste ori ta ni, Zeraingo Dorretxeko Andre aberatsaren illobak gerala, jakin bear dezu....

Boni.- Anai arrebak beaz.

Antoni.- Ezta urrik eman ere.

Boni.- A! Orduan ba-dakit zer izango dan... zera... senargaia izango dezu e...?

Antoni.- Ez gai ta ez mai.

Boni.- Orduan ez diot tutik ere antzik ematen kontu oni.

Antoni.- Emango zenion aspaldi, itzetan uztu bearrean, ixilik egon baziña... Gaur bertan izeko orren idazkia illoba biok jaso degu. Idazki ortan auxe esaten digu: Zerain'go bere etxera aurrenengo azaltzen dan illobarentzat izango direla bere ondasun guziak...

Boni.- Alajaña! Ori da loteria tximinitik bera erortzea.

Antoni.-Tximinitik edo ganbaratik, berdin dio. Auxe da azkenararte entzun eziña duzuna!... Orain illoba biok ostatu baten ustegabe sartu gera, ta besteak ez nau ni ezagutzen. Orain ezta inolatan jakin bear, ni zein naizen: ezta Azkoitikoa naizenik ere...

Boni.- Azkoitikoa zera beraz? Nik ere ba-nituan ba an tarteko batzuek... Pariente zelebre asko gañera bat, errebailean ain zuzen... il zan gizajoa: Amadero... Aren kontuak akabera gabekoak ziran...

Antoni.- Zureak bai, azkenik ez dutela.

Boni.- Azkoitia! Bai, orixe! Ondo ezaguna det nik. An ez da iñor ize-
nez ezagutzen. Bein Xaguarena bialdu ninduten ba, ta etzegola
etxean. Nun billatuko? Ta Xagu ori Goiko tabernan Katuarekin
izketan.

Antoni.- Zu etzera Boni.

Boni.- Bai, andrea, bai.

Antoni.- Ez, andrea, ez. Zu mingain zera. Bukatzen utziko ote dida-
zu?... Oraindik zuregatik galdu bear ditut izekoren lau miloiak.

Boni.- Aitaren eta Semiaren!... Lau miloi!... Eskale bat aberasteko lain
juxtu-juxtu.

Antoni.- A zer nolako bekañekoa artu bear didazun ixilik ez ba-
zaude!... Au da arkitu dedan txo-txorra!

Boni.- Barka zaidazu; Ba-dakizu ba, ostatuetan itzegiteko jarriak ego-
ten gera-ta.

Antoni.- Zuk orain beste illoba ori emen luzaroan euki-arazi bear dezu,
ni baño lenago irteten ez dedin... Nik arrapastaka lo pixkat egin-
go det bera apaltzen dan bitartean; eta gero bera lo gelditzen
danean, ixil-ixilik ots-egidazu, alik lasterren Zerain aldera iges
egin dezadan... Begira gero zuzen egiten dezun!.... Orain lo egi-
teko tokia nai nuke.

Boni.- Atoz eta oe garbi ontan ederki egingo dezu.

Antoni.- Ez; ez; oerik eztet bear. Lo gogorregia artu ta-besteak aurrea
artu ez dakidan. Besaulki bat naikoa det.

Boni.- Orduan, ementxe egokien orretarako. (*Antzoki atzean ikusleen
aurrez, bi gela ikusiko dira, ta aietako baten agiri geldituko da*).

Antoni.- Bai, ortxe erdi etzanda errezago esnatuko naiz. (*Dirua ema-
naz*). Utzi diru apur bat burua argitzeko.

Boni.- Eskerrikasko... (*Bere artean*). Auxe da neskatz ona! Al dedan
guzia lagundu bear diot orregatik estualdi ontan.

Antoni.- Ta ori asiera besterik ez da. Gero lau miloiok eskuratzen baitut, gogoan izango zaitut laguntza onegaitik... Agur; eta gero arte... Lezoko orri begirik ez kendu.

Boni.- Nere kontu! Eztulik egiten ere, eztiot utziko. (*Bijoa. Antoni besaulkian lo-eruan gelditzen da*).

ZORTZIGARREN AGERRALDIA

(Xabier eta Kattalin.)

Xabier.- Ez aztu gero emendik ordu-erdira deitzerik.

Katalin.- Etzan kezkarik gabe. Boni-ri oraintxe esango diot aztu ez dakion.

Xabier.- Ederki da. Lenbailen etzatera noa. Gabon.

Katalin.- Jauna lagun, ondo lo egin. (*Ateratzen da. Xabier oñetakoak erantzita, oe-gaiñean etzaten da*).

BEDERATZIGARREN AGERRALDIA

(Boni, Xabier eta Antoni, lotan.)

Boni.- Ai, Boni, Boni! Ordu txarrean esan diozu ezer amari! Arek, Azkoitikorik ez esnatzeko agindu dit; eta eskuak lotuta utzi nau nere ongileari laguntzeko... gaur bien artean garbitu bear naute... (*Xabier eta Antoni lotan ote dauden begira*). Biak lotan daude... Oraintxe da zerbait asmatzeko ordua... (*Xabierri oñetako bat jaso ta eskutatzen dio*). Ez al da esnatuko!... orra... orain oñetako au ezkutatu egingo diot... onen billa asti pixka bat joango zaio, ta bitartean Azkoitiko esnatuko det. (*Antoniri otsegiñaz*). Jaiki

zaite orain! (*Antoni, ez da esnatzen*) Azkar! (*Pixkat astindua*). Aizu!... izenik ere ez diot galdetu, ta orratx; orain etzait esnatuko... Izena asmatuko ba-nio... (*Besotik tiraka*) Tiburtzi!... Gabriela! Paxkasi! Filixfora!... Alperrik da izenik aldrebesenak esatea... Zein izen ote du enbor onek?... Enborra, noski. Enborrak baño lo gogorragoa du behintzat... Au Enbortxonekoa izango da, bere loari dagokionez.

Antoni.- (*Ametsetan*). Izeko! Izeko!

Boni.- Ene! Oraintxe kakanastu bear dit guzia. Bere deadarrez laguna esnatuko du, ta aurea artuko dio zontzon orri.

Antoni.- (*Ametsetan*). Neu naiz, bai neu!

Boni.- (*Eskuak burura eramanez*). Zeruko Erregiña! Gortu zazu pixkatean Lezokoa... (*Xabier esnatzen somatua*). Diabru danak nere kontra ditut gaur. Mutilla esnatzera dijoa.

Xabier.- Zein dabil emen deadarka? (*Begiak igurtzia*).

Antoni.- Lezoko illoba ez al-da oraindik etorri? Au da poza!.. Izekoren diru denak, nereak dira!

Boni.- Jesus!, Jesus! (*Antoniri oñetatik tiraka*). San Pazifiko bedeinkatua! Azkar esna dezazun, bi kandela bedeinkatu erreko dizkitzut.

Xabier.- (*Antoniren azken itzak ausnartua*). Lezoko illobarik ez dala eldu... Izebaren diruak... (*Oietik salto batean jaikitzen da*) Sapristi! Azkoitiko illoba bear likek ortxe!.. (*Oñutsik poliki-poliki beste gela ikustera dijoa*).

Boni.- Purgatorioko animak! (*Besoak gora jasota*).

Xabier.- (*Beatza ahora eramanez*) Ixo!... Ni esnatzera al-zenetorren?... Ondo da, baiña ixilik ibil zaite, arren; beste ori esna ez dedin... (*Antoniri begira*). Ta ni, azkoitikoa mutil zarpailuren bat izango zalakoan, eta nexkatxa izan, ala bearrez... Aingerua zirudik lotan... To,to,to!... Nere milloien etsai dek-eta. Ez niak bigarren aldiz begiratzera... Ebak Adan bezela, galduko natxiak bes-

tela... Emakume arraiuak!.. Konturatu gabe, zirunak bezela biotzean. Zast! Sartzen dituk.. Noan, noan oñetakoak jaztera.

Boni.- (*Doministiku egiñaz*). Atxi! San Blas.

Xabiere.- (*Esku biak asarre jasoaz*) ¡Ixooo!

Boni.- (*Eskuz aoa estaliaz bildur itxurak egiñaz*). Barkatu!... Auxen da katarrua sartu didana!

Antoni.- (*Ametsetan*). Mutil bapua Lezokoa... bapoa ta guapua.

Boni.- (*Parre-algara bat ateratzen zaio*). Egiak ametsetan ateratzen zaizkio.

Xabier.- Lotan ere emakumea, emakume. Eba lanean asi da Adan galtzeko... Baiña, nun da nere oñetakoa? (*Billaka*).

Boni.- (*Xabierren ezkutu Antoniri tiraka*). Baiña gorra al da emakume au?... (*Xabierri*). Ez al-dezu oñetakorik billatzen?

Xabier.- Ementxe utzi ditut barren... Sorgiñen batzuek al-dabiltz emen gauza-ezkutatzen?

Boni.- Sorgiñak ez nuke esango, baiña arratoi balientiak bai.

Xabier.- Esnatu bear zaigu beste ori bitartean... Nun arraio dira baiña nere oñetakoak?

Boni.- (*Oe-estalkiari tira egiten dio, ta andik erori balitz bezela, berek ezkutatu zuan oñetakoa indarrean botatzen du*). Ene! Ona nun zegon!

Xabier.- Bai, ta orain esnatu zaigu Azkoitikoa. Mari-Baldar orrek, zuk dezu erru guzia.

Boni.- Nik zer nekian ba.

Xabier.- Banoa emendik igesi Zerain aldera. (Arrapastaka bijoa).

AMARGARREN AGERRALDIA

(Antoni eta Boni).

Antoni.- *(Esnatuaz)* ¿Nun nago ni?

Boni.- Ai, ai,ai! Toki onera joan dira zure milloiak.

Antoni.- *(Bat batean zutiturik)* Zer? ¿Zer?

Boni.- Zera! Miloi oiek amesetan gelditu zaizkizula. Etxekoandreak Lezokoa zure ondoko gelan ipiñi du: gero, amesetan esnatu dezu bera: ixilik euki bearrak amesetan deadarka esan dituzu; Azkoitiko illoba zerala, igarri dizu, ta or joan da igesi izekorengana.

Antoni.- Zuregatik, Mari-solki orregatik.

Boni.- Ene! Ta nere buruko zerrautsa zertarako dezu ba?

Antoni.- Zu bezelako zontzonei lukainka aundi bat eskeintzeko.

Boni.- *(Berekiko)*. Au da neska pipermiña! Zerbait asmatzen ezpadet, erre bear nau.... *(Antoniri)*. Ara ba. Bidean jarri zaite lenbailen ta zeori aurrenengo izebarengana joateko bidea eratuko dizut.

Antoni.- Nola demontre eraman bear nazu ba orren azkar Zeraingo Dorretxera? Onuzkero Lezokoa atetan sartzen izango da-ta... Diabruak ekarri nabe gaur ostatu ontara, ta diabruak jarri zaitue nere bidean ni galtzeko. Ara, belarrietatik eserita ipintzea merezi zenduke.

Boni.- Txarri errea uste al-dezu?

Antoni.- Txarri errea ba ziña, olkiak bada ere izango nituke; baiña zuri zer olki, ta zer urdai aterako dizut...? Bada-ezpada ere, entierrua zuretzako prestatzeko esaiozu seroreari.

Boni.- Entierrua osterat? Aurrezkoa aterako degu biok Zeraingo plazan.

Antoni.- Aurrezkoa eztakit, baiña atzekoa ederra artuko didazu utzik gelditzen ba-naiz... Banoa emendik aidean. *(Bijoa)*.

Boni.- Jesus!... Joan denean ere... Ikara-ikara nengoen arpegiko azala urratuko ote-zidan bildurrez... (*Arpegia erakutsiaz eta eskuz matralak igurtziz*). Ain naiz ba "kutis" fiñekoa!... Eskerrak nere buru argi oni... Bai, ba; ederki esaten zidaten neri amonak txiki-txikitatik: "Zu, Bonitxo, gure etxeko larrosa izango zera". Izan ere.. nik asma ezin nezakenik, ezta. Ain naiz argia!... Oraintxe ere, ni izan ez banintz, galdua zen galdua zen Azkoitiarra; baiña Boni ez dago lo. Ez orixe!... Alperrik izerdituko da lezokoa aurrena joaten. Izebaren ondasunak, Azkoitikoarentzako izango dira... Zer kontu polita asmatu dedan istilu au konpontzeko! Ta nolako parreak egin bear ditudan Lezokoa lapurtzat lotzen dute-nean!... Banoa lenbailen urrutizkiñez Zerainera jotzera.

AMAIKAGARREN AGERRALDIA

(Boni eta Kaiku).

Kaiku.- (*Neskatxari txistu-joaz sartuko da*) Biar badakin, e?

Boni.- Bai, biar, Telex´ekin ibiltzera.

Kaiku.- Ez etorri emen, eguzki epeletako kontuekin, e.

Boni.- Zortzi-zortziretan, zubian.

Kaiku.- Ori, ta auntzen gaberdiko eztula, bat ditun.

Boni.- Ta besotik eldu-elduta joango gaituk.

Kaiku.- (*Ernegatzen asita*). Gorosti onekin, bizkar-ezurra xere-xere utziko zionat mika orri.

Boni.- Eta muxu bat ere, agindu zidak.

Kaiku.- Esaion, ba, aurrez, bihar zortzirak ezkerro, ezkerreko begitik jai izango duela.

Boni.- Ta laster... eztaiak Telex´ekin!

Kaiku.- Egun artan, begi-ordez, beltzune aundi bat eramango din sudur-alboan.

Boni.- (*Izketa aldatuz*). A, tuntuna, alakoak! Bakar-bakarrik izango nauk irekin, bihar zortziretan.

Kaiku.- (*Poz arpegiz*). Txoko artan?

Boni.- Antxe, ezkutu-ezkutuan.

Kaiku.- (*Zorabiatuta*). Ederra aiz, sorgin ori! (*Kantari*):

Kanta-kantari dator erreka menditik;
kanta- kantari nator ni aren zubitik.
Ta zergaitik? Ta norgaitik? Maite zuregaitik,
kanta kantari nator, maite, zuregaitik.
Kanta-kantari doa euzkia urpera;
kanta-kantari noa ni nere etxera.
Ta zergaitik? Ta norgaitik? Maite, zuregaitik.
Kanta-kantari noa, maite, zuregaitik. (11)

(*Salto aundi bat egiñaz, eta beatzak miaztuaz, oiuka atera bedi*).

ANTZOIALA BERA

(11).- Kantu honen izena "Kanta-kantari" Doinua 134. Or. an.

IRUGARREN EGINTZA

(Dorretxeko areto nagusia azalduko da. Andre Kontxixi, ta beraren mirabe, Prontxi, illobak noiz agertuko, daude).

(Lenengo Prontxi, gero Kontxixi).

Prontxi.- *(Kantari)*

Gure etxekoandre onekin txoratuko naiz,
illobak ezpazaizkigu etortzen garaiz.
Etxe guztia gau ontan dabilkigu istillutan.
Laster izango al-gera danok paketan!
Illobak datozelako, nastuak gabiltz;
zabalik daude ateak, zerrail eta giltz.
Etxeko eta dantzari, batuko gera kantari,
jai egiñaz aurrengo datorrenari. (12)

Oraindik neroni ere txepeldu bear nau gure etxekoandreak... gauzak jartzen zaizkio gero buruan, dituan urteekin!... Lengoan deitu ninduan: "Aizu, Prontxi, or txokoan dagon lorontzi ori, mai gaiñean jarri zazu..." Urrengoan: "Prontxi! Lorontzi ori, txokoan jarri zazu..." Andik laister: "mai ori bi beatz aruntzago ipiñi bear litzake..." Miñutu-erdi bat baiño lenago: "Prontxi! Mai ori bi beatz onuntzago ekar zazu..." Esan ere egin nion: Baiña etxekoandre, tiobiboren bat ekarri degu gauza guztiak jira-biran erabiltzeko".

Kontxixi.- Prontxi!

Prontxi.- Orain ere ba-degu politen bat. *(Kontxixiri)*. Andrea!

(12).- Kantu honen izena "Surtzapi" da. Doinua 142. Or. an.

Kontxixi.- (*Antzokian agertuaz*). Illobak onuzkero urrean izango ditugu, ta gauza guztiak zuzen euki bear ditugu arrera egokia egin dezaiozun.

Prontxi.- Esandako guztiak prest-prest daude.

Kontxixi.- Oe banatan biña koltxoi ere bai?

Prontxi.- Bai, andrea. (*Berekiko*) Ikusten al-dezue? Gazte oien oetan biña koltxoi jartzea nai eztu ba... Ta jarri bearko!... Oeak kanpantorre bi dirudite.

Kontxixi.- Prontxi!

Prontxi.- Ara berriz ere gure etxekoandrea... (*Kontxixiri*). Zer du, andrea?

Kontxixi.- Azkoitiko illobaren gelan San Ignazioaren kuadroa jarri aztu gabe, gero. Ta Baldako etxea ere ondo ikusteko lekuan ipiñi.

Prontxi.- Lan oiek eginak daude, andrea.

Kontxixi.- Begi onak jarriko dizkio ba azkoitiarrak Ama Joxeparen irudiari ere.

Prontxi.- Begi obeak ipiñiko dizkio beorren milloiei, eskuratzen ba-ditu.

Kontxixi.- Ja, ja, ja! Bidean ibiliko dituzten istilluak bururatuta, parregura egundokoa sartzen zait... Oso polita izango degu gau au.

Prontxi.- Gauzak bururatzen zaizkio izan ere beorri.

Kontxixi.- Illoba gaixoak!.. (*Zaratak kanpotik*). Baiña zer dabil or?

BIGARREN AGERRALDIA

(Lenguak eta dantzariak).

(Nexkatxa dantzari taldea azaltzen da. Zortzi, baserritar jantzia, eta beste zortzi ballet soiñekoz. Danen buru egiten duen Edurnek, besteak ez bezelako ballet jantzia bekar).

Dantzariak.- Jaungoikoak gabon dezaizula, andre Kontxixi.

Kontxixi.- Orobat zuei ere. Emen al-zerate dantzariok? Ederki! Sasoez etorri zerate. Orain illobak datozenarako, ongi ikas itzazue jolas guztiak. (*Barrura bijoa*).

Prontxi.- Prest al-zaudete?

Eduerne.- Azkeneko ikuituak oraintxe egingo ditugu. (*Dantzari*). Ia lenbiziko "Errotazuriko alaba"ren dantza nola egiten duzuen. Jarri Zortzirok dantzarako prest.

(Zortzi neska, baserritar jantzitakoak bi lerrotan jarri bitez, ezpata dantzarien eran).

Beste neskak abesten.-

Errotazuriko alaba, eiotzen ari da artoa;
errotarriaren negarra, aidean zear doa.
Arritzar orrek etzak mindu, nexka gaxoaren kolkoa;
arta-iriñez nasten ari da, gaztearen malkoa.

Erreka-zuloan errotak, eten gabe du tranga-otsa;
arekin batera taupaka, dabil nextatxan-biotza.
Illunabarrez aditzen da, urretxindorraren abotsa,
zotinka, laister dualako, egunak eriotza.

Bai luze joaten zaiola, umezurtzari gau illuna!
Illargiak eztu poztu nai, errotaren jarduna.
Loak artu-eziñik dago, noiz argituko ote-eguna;
malkoz bustia lagatzen du, gabaz burko biguna. (13)

Eduerne.- Ederki dantzatu dezue! Au egosita dago. Ia orain beste dantzariok, "Eduerne"ren kanta nola ateratzen zaigun.

(Baserritar jantzitako neskak, bazterreratzen dira. Ballet-soiñekodunak eta Eduerne aiekin, atetan barrura ezkuta bitez. Eduerne, ondoko atetik, eta besteak, ezker-eskuitako atetik. Soiñua asi bedi, eta bat-batean arren aidean oñatza (Pausoak) emanaz, alde bietatik lau ta lau, atera bitez).

(13).- Kantu honen izena "Errotarria" da. Doinua 137-138-139. Or. an

"Edurne"ren doiñua bigarren aldiz asten danean, Edurne, ondoko atletik irten, eta dantz-doiñua bigarren aldiz asten danean, Edurne, ondoko atletik irten, eta dantzarien erditik aurrera betor abesten).

- Edurne.- Illargiak damu du zu jaioa.
Eguzkia da zure oinpekoa;
izarrak zure bekaitzez urtzen daude,
zerua illun dagolako zu gabe.
Txoraturik naukazu, Edurne.
Nere ames urdin-gozoa! Iltzen daukat biotz gaixoa;
neretzat zure ezezkoa, nere izar biotzekoa,
eriotz miña litzake. (*Berriro: "Nere ames..."*).
Ostroz dago baso-aldea, txori-soiñuz dana betea,
Jostari dator ur garbia; kantari dago iturria.
Ostroz dago baso-aldea, txori-soiñuz dana betea.
Nere biotzak zu zaite zeru, nere pozezko aingeru. (14)
- Kontxixi.- (*Sar bedi abestiaren azken aldera, esanaz*). Zoragarri egin
duzue! Aurki dira emen nere illobak eta egundoko jaia sortuko
degu.

IRUGARREN AGERRALDIA

(Lenak, Anton eta Txomin).

(Anton'ek kirri-marra, eta Txomin'ek tartamutu egin beza).

Anton.- (*Arnaska dator*). Eztaki asko, andre Kontxixi!

Kontxixi.- Zer dezue, mutillok, arnas estu ta makil oiek artuta? Gabon
esateko astirik ez al dezue?

Txomin.- (*Tartamutu egin beza*) Ga-ga-ga-gabon, aandrea, ze-ze-zera...

(14).- Kantu honen izena "Edurne". Doinua 140. Or. an

Prontxi.- Cera, argizaia da erdaraz.

Txomin.- Zeeeeereko..... zeeeeereko...

Kontxixi.- Baiña mingaiñak orrenbeste nasteko zer izan dezue?

Txomin.- Aaara-ba. Zeeerekin....

Prontxi.- Bai, motel. Zereko zera, zereko zerekin zertu egin dala. Len ere ba genikian. Eskerrik asko.

Anton.- Bai zera! Ori baiño askoz okerrago... guk ekarri degu arnaskia bidean gora jakin degunean.

Kontxixi.- Zer ba? Mendi auetan dabillen lapurra zuen ondoren ikusi al-dezue, ala?

Anton.- Areago oraindik. Lapurra bera Dorretxera datorrela.

Prontxi.- Zeruko San Krispin maitea! Ori argizaia baiño gortxoago da.

Kontxixi.- Ama Doloretakoa! Ta nundik jakin dezue ori?

Anton.- Oraintxe urrutezkiñez Seguratik jo digute. Lapur bildurgarri orrek, alegia, berorren illoba bien berri jakin duala, ta Lezoko illoba bera dala esanaz, etxe ontako diruen jabe egiteko datorrela.

Prontxi.- Beorrek ongi ezagutuko du baiña Lezoko illoba ori?

Kontxixi.- Bai zera! Aspaldi ez naiz nere senideetara joan, eta eztet ez Lezoko, ta ez Azkoitikorik ezagutzen... Nere illoba gaixoak! Gaizkille orrek bidean atxitzen ba-ditu, estutu txarren bat eman-go die.

Anton.- Gu mendira irtetzekoak giñan baiña ori jakinda, etxe ontara etortzea erabaki degu. Beste batzuek, bidetan ezkutu gelditu dira.

Kontxixi.- Bai, bai, ongi egin dezue. Baiñan... orain zer egin bear degu?

Prontxi.- Erruki, gu! Gizon ori Sakamantekas baiño okerragoa omen da-ta, gu lukainkatarako edo naiko gaitu.

Txomin.- Niiik, ni...i...k...

Prontxi.- Zurekiin murtzillak egingo ditu arek.

Txomin.- Ma....ma....makilka buuurua aaaapurtu.

Kontxixi.- Ez, ez. Jo ez degu egin bear. Al ba-da, onean artuko degu, ezertxo ezpageneki bezela. Aurrez bera errazago atxitzeko, argia itzaliko degu. Prontxik eta nik ongi-etorria egingo diogu, ta zuek biok (*Mutillei*) atzean geldituko zerate ezkutuan. Nik adierazten dizuedanean, eldu gogor, eta lotuta ixkillapera eramango degu.

Anton.- Bai, Bai; ta azkar ibilli bearra degu, onuzkero emen inguruan da-ta.

Prontxi.- Orain benetan dijoa. Ai Prontxi; biar goizerako Purgatorioan prijitzen egon bearko den.

Txomin.- Jo...jo...oko det ma...a...killaz.

Prontxi.- Buru erdi-erdian gaiñera.

Txomin.- Ze...ze...elebria da neskame au.

Kontxixi.- (*Dantzariari*). Zuek obe izango dezue zuen etxetara joatea. Esan gurasoei, zer gertatzen zaigun, eta ongi ateratzen ba gera, etorriko zerate jaia egitera.

Dantzariak.- Gabon ba, andre Kontxixi, ta gero arte.

LAUGARREN AGERRALDIA

(Dantzariak ez, beste guziak).

Kontxixi.- Orain argia itzali ta kriseillua piztuko degu. Piztu zazu zuk, Prontxi, ta zuek ate ortatik noiz datorren zaitu zazue.

(Prontxik krisalua piztu beza ta elektrika itzali. Mutil biak ate atzean gelditu bitez. Kontxixi ta Prontxi bestaldetik aurretik. Prontxi etxekoandreakren atzean krisalua eskuan dardaraz duala bego).

Prontxi.- Ai, ai, ai! Laster "Nere Jesukristo Jauna" esaten asi bearko det.

Kontxixi.- Baretu zaite, emakumea. Danon artean poliki-poliki txulotan sartuko degu.

Prontxi.- Bai, beorrek aragi gogortxo du, baiñan ni gaztea nago-ta gantzak ateratzeko il naiko nau.

Anton.- Ixo! Oraintxe agiri da norbait Segura aldetik... Orrek dakar aizea!

Kontxixi.- (*Mutilei*). Orain zuek txoko ortara; ta nik "at onera" esaten dedanean, irten txokotatik aguro, ta lotu gogor giza gaizto ori. (*Kantari*):

Kontxixi.- Kontuz gauden!

Guztiak.- Oi! Kontuz gauden!

Kontxixi.-Lapur orrek galdu ez gaitezen.

Guztiak.-Oi! Ez gaitezen.

Kontxixi.- Atetik barrura ba-da sartzen,
eldu gogor da lotu zuzen.

Guztiak.- Eta lotu zuzen.

Kontxixi.- Ixkilapean sartu lenbailen.

Giltzapetik ez dein irten.

Guztiak.-Oi! Ez dedin irten.

Antxon.- Sartu da atean; bertan degu. (*Mutillak txokora*).

BOSGARREN AGERRALDIA

(Lenak eta Xabier)

(*Xabier zarata aundiak aterata antxintxika sar bedi*).

Xabier.- Izeba! Izeba! (*Argia itzalita ikusterakoan nora jo eztakiala gelditzen da*).

Prontxi.- Ene! Ori ezta parte onekoa!

Xabier.- Baiñan zer gertatzen da emen? Ez al-da au Dorretxea?

Kontxixi.- Bai, auxe da. Zer bear zenduan?

Xabier.- Nere izeba Kontxixi nun da? Andre Kontxixi Aldanondo ez al-da etxean?

Kontxixi.- Aurrean nauzu. Zu zein zera ba?

Xabier.- Ni Lezoko beorren illoba. Azkoitiko illoba ez al-da etorri?

Kontxixi.- Ez oraindik. Zeu zera aurrenengo etorri zerana.

Xabier.- Orduan, neretzat dira beorren ondasunak.

Kontxixi.- Jakiña ba! "Atoz onera" nere besoetan ar zaitzadan
(*Mutillak txokotik irten ta eltzen diote Xabierri. Au indarka aska
nairik asten da. Prontxik izututa krisallua lurrera erortzen uzten
du; denak illunpean utzirik*).

Prontxi.- Ai,ai,ai! Jan bear gaituela lapur orrek. (*Batera eta bestera
ardala bizian dabil*).

Kontxixi.- Baiña zer egin dezu argiarekin, ollo orrek? Piztu zazu argia
lenbailen. (*Pizten dute elektrika*).

Prontxi.- Eldu gogor. Ez joaten utzi deabru orri.

Antxon.- Bukatu dira onen lapurretak.

Xabier.- Nor da emen lapurra? Ni Lezoko illoba naizela!

Prontxi.- Ez utzi, ez! Dituan agin oiekin erdibi egingo giñuzke guztiok.

Antxon.- Etorri orain ixkillapera; antxe igaroko dezu poliki gaba.

Kontxixi.-Ondo lotuta utzi gero; igesirik egin ez dezan.

Txomin.- Joooko al det bu...u..ruan?

Kontxixi.- Ez, jo ez; lotu bakarrik. (*Mutil biak eraman bezate*).

Prontxi.- Lotzen dezutenean, eman belar pixkat, goserik izan ez dezan.

Kontxixi.- Ederki dago. Orain atea ongi itxi; askatzen ba-da ere, atera
ez dedin. (*Mutil biak biurtzen dira. Xabierrek bere tokitik iskan-*

billa aundia atera beza).

Anton.- (*Izerdia legortzen*). Au da koipea atera deguna! Ezta makala mutilla... Ba-noa orain errikoei esatera, lapur zai alperrik ez ditezen egon.

Kontxixi.- Bai, joan zu; baiña bestea bada-ezpada ere, emen geldi dedilla. (*Anton ateratzen da, ta Kontxixi barruan bijoa*).

SEIGARREN AGERRALDIA

(Prontxi eta Txomin).

Txomin.- Aizu, Prontxi, ko...ko...kontutxo bat ba-det ba nik, zu...u...ri galdetzeko.

Prontxi.- Gaaldera luzea ezpada, esan zazu.

Txomin.- Nene...ne...exkatxa batekin e...ezkontzeko gogoia degunean, no..no...la esaten zaio?

Prontxi.- Nola esango zaio, ba? Begiak azpikoz gora ipiñi, ta esaiozu: Biotz-biotzez gorroto zaitut.

Txomin.- A!... O...or...egatik izango da orduan, nik zu i...ikusi eziña?

Prontxi.- Ta besteak ongi ikusten al-dituzu?

Txomin.- E... e... derki oso, Prontxi. No...ola jartzen dira begiak aaaa-azpikoz gora? (Begiak ipintzen asten da) O..onela?

Prontxi.- Pixkat okerrago.

Txomin.- (*Berriro begiak biurrituaz*). O... nela?

Prontxi.- Orrelaxe.

Txomin.- Begira, Prontxi (*Begiak biurri eukiaz*). Go...rroto zaitut biotz-boitzez.

Prontxi.- Orra eztirudian trastia!

Txomin.- A..ara, Prontxi (*Kantari*).

Laño gorrixka baten nai zinduzket atxi,
ta izarrik gorenean ezkuta, zu, Prontxi;
an neretzat bakarrik zindezadan pitxi.

Ene jostallu zeran, biotzeko antsi. (bis)

Zure biotz-lapurren kezkarikan gabe,
kate gozoz lotuak, alkarren mirabe;
biotzak eztaietan, maitezko bi labe,
antxe gindezke biok argitan poz-jabe. (bis)

Zeruko Jauna bedi gure poz-ikusle;
ezpeza iñork zeleta gure maite-zale,
ez iñoren bekaitzak, jan gure logale.

Ixil-ixilik biok, amesti!... maitale! (bis) (15)

(Azkenenko bertsoa bigarren aldiz abesten danean, Prontxi'k ere lagun bezaio kantatzen. Amesti!... maitale! "abesterakoan, txominek sartu bekio Prontxi'ri besoa galtzapetik, eta biak besotik dijoazela onela dio).

Txomin.- O...onela, erortzeko arrisku gutxiagu degu, Prontxi.

Prontxi.- (*Besoa askatuz*). Etxekoandrea dator. Ixo!

ZAZPIGARREN AGERRALDIA

(Lenak eta Antoni).

Kontxixi.- (*Barrutik agertuaz*). Agiri al-da iñor?

Prontxi.- (*Atetik begira*). Besteren bat ere oraintxe dator tximista batean.

Lapurren bat izan bear luke orrek ere... Emakumea da gaiñera.

Kontxixi.- Azkoitiko nere illoba da, noski.

Prontxi.- Zuzen-zuzen dator etxera. Ona emen bera.

(15).- Kantu honen izena "Laño gorrixka" Doinua 141 Or.an.

ZORTZIGARREN AGERRALDIA

(Lenak eta Antoni).

Antoni.- Izeko Kontxixi!

Kontxixi.- Zein zaitugu, gazte?

Antoni.- (Batera eta bestera deadarka). Izeko Kontxixi!

Kontxixi.- Emen naukazu. Ze ari zera orren estu ta larri oska?

Antoni.- Jauregiko Antoni. Ez al det aurpegian ezagun?

Kontxixi.- Amaren itxura ba-dezu bai.

Antoni.- Lezokoa nun da?

Kontxixi.- Ez ta oraindik azaldu.

Antoni.- Benetan eztala azaldu?... Au poza! (*Besoak zabalik izekorengana bijoa, ta lepotik estu-estu artuta zoro eran lastanka asten zaio*). Izeko nere kontura artu bear det... Izeko ederra! Izeko maitea! Izeko zoragarria! Izeko bedeinkatua!... Izeko...

Kontxixi.- (*Lepoa atzeratuta askatu nairik*). Ito bear nazu, illoba. Pixkat gutxiago maite nazazu, arnasa artzen dedan bitartean.

Antoni.- Lau miloiak maitatzeko indar aundia ematen didate, izeko.

Kontxixi.- Indarra gutxitzeko lau miloien ordezt, erdia bakarrik utzi bearko dizut orduan.

Antoni.- Ezpeza orren kezkarik izan, izeko. Lau milloiekin ere, neurria artuko diot maitatzeari. Ez itotzeko lain juxto-juxto maiteko det beorri.

Kontxixi.- Ja,ja,ja! Au illobatxoa etorri zaiguna!

Antoni.- Agur, betiko tabernak! Agur, ardo-usaiak!.. gaurtik aurrera, bizimodu berria artu bear det... Gonak motzago, arpegia piparauts geitxokin, betazpiak illunago, azkazkalak luze ta gorrixkatu, oñetakoak orpoko katarrua arrapatzekoak, ere takoiak kabanete luze, tiki-taka kolean perra-ots polita ateratzen, lepoa tente,

ta gerria, ta gerria zume, donostiar itxura artuko det. Gero erderaz egin bear det... Bestela azpeitiarrek esango dute: "Tan elegante y en vascuence".

Txomin.- Ze..e... eleberria da gero. (*Xabierrek zaratak barrutik*).

Prontxi.- Bai, bai. Gu emen gabiltzan bitartean, lapur orrek bota bear digu atea.

Antoni.- Jesus! Zezenen bat al-duzue or?

Kontxixi.- Bai zera! Oraintxe arrapatua sartu degun lapur bat da.

Antoni.- Ene! Zoratu egin al-da ori?

Prontxi.- Bai, urez baretu bear degu pixkat. Busti eder bat eman dezaiogun, amorratu egingo zan-da.

Kontxixi.- Bai, ekarri zazu baratzeke bonba edo beste ontziren bat (*Txomiñi*), eta ate gaiñetik bustiko degu. (*Ba-dijoa Txomin eta bonba edo ontziarekin etortzen da*). Sartu ate gaiñeko zirriztitik... Busti ongi orain.

Prontxi.- Ene! Lapurra, lapurra!... Atea apurtuta ba-dator gaiñera!

Xabier.- (*Aserre bizian ateratzen da*). Zer da etxe au, pakean datorrena onela artzeko?

Antoni.- Baiñan zu al-ziñan or baiñuan artzen?

Guztiak.- Zer, zer?...

Antoni.- Noiztik dago au emen?

Kontxixi.- Zu baiño pixkat leentxeago etorri zaigu.

Antoni.- Ai, ai,ai! Ederra egin degu! (*Bere buruari illetatik tiraka*). Au Lezoko illoba da.

Xabier.- Bai, ba; ta zu baiño lenago etorri naiz etxe ontara, Nereak dira beraz izebaren ondasunak.

Kontxixi.- Ta nolatan asmatu digute ba, inguruetako lapurra zala?

Txomin.- Se... e.. eguratik tele...e...fonoz joou digute, ta guk si...si.... sinistu egin dugu.

Antoni.- Seguratik zer esan dizue ba?

Txomin.- Le.. le... zoko illoba dala esanaz, ingu...u...ruko lapurra
Dorr... e... txera or... duantxe etorriko zala.

Antoni.- Ostatuko alaba beerritxu arek asmatuko gezurra iñolaz ere.
Bildur gabe etortzeko esan dit, eta ni Dorretxera aurrenengo sar-
tzeko bidea asmatuko duala. Gezur orren bitartez ni aurrena nen-
torrela, sinistarazi naiko zuen. Laguntza bapua asmatu didana,
alajaña! Mingain berritxu ura aterako diot gezurti ari!

Kontxixi.- Ene! Nere illoba izanda, egin dizkiogunak!

Antoni.- Ta orain, agur, nere diruak! Agur, pipar autsak! Agur, gona
motz eta takoi luzeak! Agur nere erderakadak!

Xabier.- Ongi mereziak dituzu danak, neri sortu dizkidazun istilluagai-
tik. Zigor aundiagoa merezi zenduke.

Kontxixi.- Zer zigor ezarriko diogu ba?

Xabier.- Bizitza guztikoa.

Kontxixi.- Zure senide artekoa da-ta, barkatu egin bearko diozu orre-
gatik... Gañera tolesgabe Seguratik sartu diguten gezurra beorrek
agertu du.

Xabier.- Eztiot alare ere barkatuko. Il arteko kateak jarriko dizkiot, nai
ba-du ta ezpadu.

Kontxixi.- Nola egingo diogu gogorkeri ari?

Xabier.- Eskutik elduta aldare aurrera eramanez. Antxe, il arte nere
emazte izango dala, agindu bearko dit.

Guztiak.- (Parre algara bat egiñaz). Aja! Ja, ja! Ori, ori!

Antoni.- Diruak galduta nere lepotik parre egitea, ezta itxura oneko gauza.

Xabier.- Nik ez det parre egin. Andre Kontxixi'k erabaki dezala, mere-
zi dezun ala ez.

Kontxixi.- (*Antoniri*). Ta zuk zer erantzuten dezu?

Antoni.- Nik... Lezoko illoba ori, orren biotz gogorra zanik, ez nuan uste.

Kontxixi.- Jarri dizun zigorra, gogortxo al deritzazu.

Antoni.- (*Izketa aldatuaz, lotsati*). Adi beza, izeko, onenbeste jendea
aurrean (*Ikusleak erakutsiaz*) galdera orri erantzutea, erreza al-da

Txomin.- Lo... lo... tsatu egiten da. Ba.. ba... baietz esan nai du.

Prontxi.- Illoba biok bertsolari samarrak izan bear dute. Bertsotan erreza
erantzungo diote alkarri.

Kontxixi.- Ta alaxe da. Ia zu Xabier, nola asten zeran. Nork irabazten du
ikusiko degu azkenean.

Xabier.- Nerea bear du azkena; alperrik ibilliko da itzerdika. Orra hasie
(*Kantari*):

Enarak aidea astinduz, ba-datoz ugari;
ego barruan dakarte, epel Udaberri.
Kabi-tokia aukeratzen, or dabiltz urduri;
gazte askoren biotzak maitemiñez eri.

Antoni.- Maite asmotan ba-zera, ba-duzu naigabea;
biotzak egingo zaitu besteren mirabe;
pake ordeztu laster dezu, kezka zure jabe,
ez dezu iñun larrosarik, arantzarik gabe.

Xabier.- Maitezko bide latzetan oso naiz egarri;
ito bear ote dedan, bildurra det sarri;
izerdi otzak artzen nau, ametsetan larri;
mutil zarraren pakerik ezin det ekarri.

Antoni.- Ibaiak puztuta datoz, elur-ujoletan,
iturri asko dituzu euskal mendietan.
¿Nola zindezke ur-erdian ibil egarritan?
Biotzik asko ba-dezu maite ametsetan.

Xabier.- Kezka itxaso garratz ontan, naukazu galdurik,
ta ur gazi onek ezin dit kendu egarririk.
Iturritxo bakarra det, senda nazakenik;
Baiña eztakit neretzat ote-duan urik.

- Antoni.- Ur gazietan ba-zabiltz lendanik igari,
gesal-zelaiak utzirik, eldu legorrari.
Iturritxo bakarra det, senda nazakenik,
biotz ixil batek ba-du. Zuretzat ur garbi.
- Xabier.- Ixileko gaitza ez du iñon sendaigarik,
bildur naiz ez ote dedan, arkituko kairik.
Itxasoa utziko nuke, azkar asko pozik,
zu legorreetan ba-zeunde besoak zabalik.
- Antoni.- Ezker eskubi mendi bi: erreka bitarte.
Egarri diran txoriak, ur garbia an dute.
Nere besoak zure zai, zabalik diraute;
osorik zurea nauzu, maitea, ill arte.
- Xabier.- Ai, au lertu bearreko biotzaren poza!
Zabaldur da gaur neretzat, maitezko larrosa.
Uste gabe zeru au, ez ote-da ametsa?
Ala ba-litz, nere loak betiko iraun beza.
- Biak batera.- Enarak billatu dute, tellapean kabi,
eldu da mainteminduen pozezko Udaberri.
Ez genekien alkarren biotzaren berri.
Jaso dezagun lenbailen maitezko uztarri! (16)
- Kontxixi.-Biak irabazi dute!
- Prontxi.- Uztartu dira betiko.
- Txomin.- Ni...i, zu...zu...rekin uztartuko nintzake pozik.
- Prontxi.- (*Lotsati*). Ara berriz lotsagabea!
- Txomin.- O..o...orduan ni beti mu... u... tilzar?

(16).- Kanta honen izena "Udaberriko maite-kanta". Doinua 141 Or. an

BEDERATZIGARREN AGERRALDIA

(Lenak eta Dantzariak).

(Iskanbilla aundian sar bitez, dantzariak).

Dantzariak.- Zori on, andre Kontxixi.

Kontxixi.- Eskerrik asko, gazteok.

Eduerne.- Lapurra ongi lotu dutela, jakin degu.

Kontxixi.- Gezurra zan guztia. Nere illoba Xabier zan etorritakoa. Ona emen illoba biak nun dauden.

Eduerne.- Biak alkarren gai dira, Andre Kontxixi.

Kontxixi.- Berealaxe ditugu eztaiak.

Dantzariak.- Urte askotarako!

Xabier eta Antoni.- Eskerrik asko, ta zuek ikusteko.

Eduerne.- Onek, jai txiki bat ez al du merezi?

Kontxixi.- Bai, gure estutasun guztiak aztutzeko, asi gaitezen. *(Bat batean Xabier aurreratzen da, ta onela abesten du).*

Xabier.- Antoni! Antoni! Zurekin pozik nago ni

Antoni.- Xabier! Xabier! Biontzat bai egun eder!

(Guztiak abestu bitzate, bi neurtitz auek, bukatu ondoren).

Xabier.- Gure Izeko Kontxixirekin aurki degu zoriona,
gaur Dorretxean eztugu iñork alperrik galdu eguna.
Bideko istillu denen artean, neu etorri naiz aurrena:
Baiña zuk, Eba'k Adan bezela, engaña nazu, laztana.

Guztiak.- Antoni!..... *(Lenago bezela).*

Antoni.- Gure izeko ongile onek piztu du gure izarra;
eztakit nola ager berari, gaur zor diogun eskerra.
Baiña, Xabier, ez bota emen nere gain gaurko okerra.
Zertan, Adan'ek bezela, artu didazu neri sagarra?

Guztiak.- Antoni!..... Xabier!... (*Lenago bezela*).

(Otan Txomin 'ek Prontxi tiraka aurrera ateratzen du, ta onela erasotzen dio kantari).

Txomin.- Guri ere gaur txistu jo digu, uste gabeko kukuak:
Prontxi eta nik, laster batuko ditugu gure eskuak.


Prontxi.- Lotsagabe au, aurreratu zait, okertuz nere asmoak,
ta ustegabeen esnatu dizkit eztaietako goguak.

Txomin.- Ai, Prontxi! Ai, Prontxi! Zu zera gaur nere pitxi.

Prontxi.- Ai, Txomin! Ai Txomin! Zu zera nere piper min.

Guztiak.- Ai, Prontxi...! Ai, Txomin....!....

AZKENA



KANTUEN DOINUAK

ANTONI TA ANTON

Antoni'ek

An-te-ni! An-to-ni! -zu-re a-ta-an
-na-go ni -Ai An-ton! -Ai, An-ton! -a-le
an-da-an -or kumpona An-to- Or-ma-ko
-ri-ak -ne-gu gu-ri-an -ez du a-tse -gin
-e-lu-ra; -ze-ru-a goi-bel, -ka-bi-a o-tza,
-ta ja-na-ri ga-be lu-ra. -Ai, mai-te ne-re
-bi-o-tzak du-an -zu-re o-tza-ren -bil-du-ra;
-bi-on-tzat ka-bi -bat ba-ro-tze-ko -bil-du-ko
nu-ke e-gu-ria.

SOLDADU NOANEAN

Sol-da-du no-a-ne-an, -oi, ne-re mai-te!
-E-tza-zu ne-gur e-gin; -a-lai-tuzai-te. Ai-ze-
-ak gal-tzen di-tu -ne-gu-ko la-nobel-tzak, -kantuz
u-xa di-tza-gun -bi-o-tze-ko a-ran-tzak.

AI, NERE NERE!

(Maite-kezakak)

Uste ga-be sar-tu zi-ñan ne-re bi-o-tze-an.
tri-mis-ta la-ño ar-te-tik sor-tzen dan le-ge-an;
a-raz-ke-ro e-zin-mai-te bi-zi ni pa-ke-an.
Az-tue-zi-ñi-kan-na-bil, oi! ne-re kal-te-an.
Bi-o-tzak ez du le-ge-rik mai-te du-a-ne-an.

The musical score is written on five staves. The first staff begins with a treble clef and a key signature of one sharp (F#). The melody is written in a simple, folk-like style with eighth and quarter notes. The lyrics are written below the notes, with hyphens indicating syllables across measures. The piece ends with a double bar line.

KANTA-KANTARI

(Aur eta gazteak kanta ta dantza dezakete)

kan-ta-kan-ta-ri dau-de txo-ri-ak ze-ru-an;
kan-ta-kan-ta-ri dau-kat-bi-o-tza ba-ri-u-an.
Ta zer-gu-tik? Ta nor-ga-tik? Mai-te zu-re-ga-tik.
kan-ta-kan-ta-ri na-go, mai-te, zu-re-ga-tik.

The musical score is written on four staves. The first staff begins with a treble clef and a key signature of one sharp (F#). The melody is written in a simple, folk-like style with eighth and quarter notes. The lyrics are written below the notes, with hyphens indicating syllables across measures. The piece ends with a double bar line.

EIZTARIAK BIDEAN

Doñu zaina



Liz-ta-ri-ak bi-de-an zu jeki zai dan - de, —
 zu-re e-go-tu-ri-ak zu-la-tze-ko, mai-te, — Ne-
 -re u-sa-te-gi-an sar zai-tza-dan ar — te, —
 ne-re u-so ku-tu-na, goi-lik i-bil zai-te. — i-za-
 -rak kiñu-ka di-tu-gu goi-e-tan, mai-te-
 -ak bi-ña-ka di-ra-la hi-de-tan. Mai-te-
 -ak bi-ña-ka di-ra-la bi-de-tan, i-za-
 -rak ki-ñu-ka ze-le-tan. —

LAZTAN BAT

(Rumba-aidea)



Arin Aske ra xalo
 Laz-tan bat, — laz-tan bat, — e-de-nez be-te-a
 — e-man ze-bi-dan bat. Laz-tan bat, — laz-tan
 bat, — a-raz-ke-ro mi-ta bi-der da-mu-tu zat Laz-tan
 a-rek-on-da-tu dit bi-zi-a; — laz-tan a-rek
 — gal-du ne-re z-ri-a; — Laz-tan bat — zan a-tzo ne-re
 ze-ru; — laz-tan bat — da zaur-ne-re in-per-nu.
 Bukazvan-
 ner-nu — Laz-tan bat!

ANA!

(Pasodoble-aidea)



1-A-na! Au-xe da la-na! zu ga-be go-za gaitz zait
2-(Eresia itzik gabe Tartetan).

1-da-na; -ja-na e-ta e-da-na, kal-te-ga-ri di-tut, lax-
2- 1-ta-na. A-na! A-na! U-so-ak juan di-ra e-go
2- A-na! A-na!

1-al-de-ra; ka-bi be-ri-ren bat an bi-la-tze-ra; mai-ta-
2- 1-sun gal-du-ak az-tu-tze-ra. La - ño - ak
2- Er - bi - ak

1-ai-ze-tan da-biltz bi-de lu-ze-ak e-gi-
2-a-rin di-jo-az, txu-kur a-gi-ñien i-ge-

1-ten; bi-atz i-xi-len mal-ko-ak ez di-tu i-fior-
2-si; ne-re o-ña-ze o-ne-kin e-zin nide-ke


1-ja-ki-ten A-na! A-na! ne-ga-rez
2-ni-bi-zi A-na! A-na!

ur-tu naiz da-na, i-lu-na-ri na-go e-
-mu-na. A-toz, ai! ne-re-ga-na. A-toz,
-bai, A-na!
-bai, A-na!

ERROTA-ARRIA

(Aur eta gazteak dantza dezakete)

E-ro-ta-zu-ri ko a-la-ba ei-o-zen a-ri da
 ar-te-a; e-ro-ta-ri-a-ren ne-ga-ra ai-de-
 -an ze-ar do-a. A-ri-tzar o-re-ke-tzak min-du
 nex-ka ga-xo-a-ren kol-ko-a; ar-taj-ri-ne-nasten
 a-ri-da gaz-te-a-ren mal-ko-a.



Lurrean lau soka luze-luze zabal bitez, goiko marrazkian jartzen dizudan bezela. Soka ordez, klarionez-edo, goiko marrazki edo dibujo ori egin diteke: A-B, K-D, I-G ta E-J.


"a, e ta i" letra oien ondoan gurutze txikiak dauden lekuetan, jarri bitez dantzariak.

Dantzariak, goian jartzen diran aña artu ezkerro, hogeit ta lau dantzari dira; ta ibiltzerakoan, iru gupil bezela egiten dituzte. Barruko zortzi dantzariak, gupil txikiena dute; ta pauso txikiagoak bota bear dituzte, beste gupilletakoekin batera egiteko.

Nai izan ezkerro, zortzi dantzari bakarrik artu ditezke, nai ba-da hamasei dantzari, bi gupil egiñaz dantzatzerakoan. Besterik ezin dute aurrak, uztai eran (Korruan) jarri ta ibilli bitez biraka kantuan.

Errian dantza- maixurik izan ezkerro, ezpatadantzariak bezela zortzi dantzari artuta, dantza polita asma lezakete, Azkoitin egin genduan bezela.

Goiko marrazkian dauden A-B, K-D, E-J, I-G, lurrean luze-luze zabaldutako lau soka dituzu. Soka-ordez klarionez-edo, lurrean marraztutako lau lerro jarri ditezke.



○  **P** bakoitzak, dantzari bana adierazi nai du. O- P^oK dantzarien sorbaldatik sorbalderako luzera azaldu nai du. Gañean duan lerro txikiak arpegia zein aldetara bear duen agertzen du.

Zenbakiak dantzarien urratsak nola dijoazen azaltzen dute.



"O" bakoitzak dantzariak beren gorputzari, aurrera egin baño len, bira osoa eman bear diola esan nai du. Iru pausotan buelta-erdi, ta beste irutan buelta osoa amaitu bezate era ontan:

Sei ikara oien ondoren, aurrera jarrai bezate.

EDURNE

(Fox-aidea)

I - lar - gi - ak da - mu - du zu jai - o - a - e - guz -
 - ki - a da zu - re oin - pe - ko - a ; i - za
 - rak zu - re be - kai - tzez ur - tzen dau - de , ze - ru - a
 - i - lun da - go - la - ko zu ga - be ; txo - ra
 - tu - rik nau - ka - zu , E - dur - ne , E - dur - ne . I - ne . Ne - re a -
 mes ur - din go - zo - a ; - il - tzen dau - kat bi - otz gai - xo -
 - a ; - ne - re - tzat zu - re e - zez - ko - a , - ne - re i - zar bi - o - tze - ko -
 - a - e - ri - otz mi - ña li - tza - ke ... e ... e Ne - re a -
 mi - ña li - tza - ke ... e ... e ... os - troz da - go ba - so al - de - a ,
 - txo - ri so - ñuz da - na be - te - a ; - jos - ta - ri da - tor ur gar -
 - bi - a ; - han - ta - ri do - go i - tu - ri - a - Os - troz da - go ba - so al -
 - de - a , - txo - ri so - ñuz da - na be - te - a ; - ne - re bi - o - tzak zu zai -
 - tu ze - ru , - ne - re po - zez - ko aín - ge - ru .

LAÑO GORRIXKA

-Doiñu zaŕa-

La-ño go-r̄ix-ka ba-ten nai zin-duz-keŕ a-txi; — tai-za-

-rik go-re-ne-an ez-ku-ta, A-zen-txi; — an-ne-re-tzat ba-

ka-rik zin-de-za-dan pi-txi; e-ne jos-tai — lu ze-ran bi-o-

-tze-ko an-tsi, E-ne jos-tai — lu ze-ran bi-o-tze-ko an-tsi. —

UDABERRIKO MAITE-KANTA

E-na-rak ai-de-a-as-tin-duz ba-da-toz u-ga-

-ri: — e-go ba-ru-an da-ka-r-te e-pel U-da-ba-

-ri; — ka-bi-to-ki-a au-ke-ra-tzen or-da-biltz un-du-

-ri; — ga-z-te as-ko-ren bi-o-tzak mai-te-mi-ri-ez e-

BIOTZA KILIPATZEN

-Doñu zara-

Handwritten musical score for the song 'BIOTZA KILIPATZEN'. It consists of five staves of music in a single system. The melody is written in a treble clef with a key signature of one sharp (F#). The lyrics are written below the notes, with some words hyphenated across staves. The lyrics are: 'Za-bal-xa-ba-lik da-go — gu-re a-ta-di-a, — an-dik u-jo-lan da-tor — ze-ru-ko ar-gi-a; — mai-te-a a-zal-du zai — or na-go jo-si-a; — a-la-ko ba-ten or da ne-re e-gua-ki-a.—'.

Za-bal-xa-ba-lik da-go — gu-re a-ta-di-a,
 — an-dik u-jo-lan da-tor — ze-ru-ko ar-gi-a;
 — mai-te-a a-zal-du zai — or na-go jo-si-a;
 — a-la-ko ba-ten or da ne-re e-gua-ki-a.—

SURTZAPI

Handwritten musical score for the song 'SURTZAPI'. It consists of five staves of music in a single system. The melody is written in a treble clef with a key signature of two sharps (F# and C#). The lyrics are written below the notes, with some words hyphenated across staves. The lyrics are: 'Sur-tza-pi tru-ri o-ne-kin jo-las-ten ge-ra.— o-rain al-de ba-te-ra, ge-ro bes-te — ra.— Za-pi tru-ri-a lu-re-ra, za-pi tru-ri-a es tu-ra, za-pi tru-ri o-ne-kin no-an au-re-ra.—'.

Sur-tza-pi tru-ri o-ne-kin jo-las-ten ge-ra.—
 o-rain al-de ba-te-ra, ge-ro bes-te — ra.—
 Za-pi tru-ri-a lu-re-ra, za-pi tru-ri-a es tu-ra,
 za-pi tru-ri o-ne-kin no-an au-re-ra.—

IRU ALABA

(Rumba-aidea)

I-ru-a-la-ba di-tut, i-ru: Ma-ri-bel, Ma-ri-bita Ma-ri-lu.
Ma-ri-bel zi-a-ru-txu-ta, se-na-ri gu be-gi ba-ka-ri-kin.

I-ru a-la-ba, txi-ru li-ru. O-be-nu-an e-txe be-te di-ru.
Ma-ri-bik nai-ko-a lan-ba-du, a-ri-tu-dun gi-zon-par-de-la-re-kin.

I-ru-a-la-ba di-tut, i-ru: Ma-ri-bel, Ma-ri-bi-ta Ma-ri-lu.
Ma-ri-lu-a-se-ko da-on-gi, be-re se-na-ri-erri-poi-e-kin.

I-ru a-la-ba, txi-ru li-ru. O-be-nu-an e-txe be-te di-ru. A-
ri-a-ne-re i-ru a-la-ba, ba-ko-i-tza be-re gu-ru-tza-ri-kin. A-

... ai, Pe-ru! A-la-ba-ke ez di-ra ain-ge-ru. A-
... ai, Pe-ru! A-la-ba-ke e-tzi-run ain-ge-ru. A-

... ai, Pe-ru! Mu-ti-lak di-tuz-le in-qu-ru. A-
... ai, Pe-ru! Ez-ko-n-tza ez da be-ti ze-ru. A-

... ai, Pe-ru! Las-ter nai-z, txi-ru li-ru li-ru, O-ra no-la gel-di-tu nai-zen,
... ai, Pe-ru!

ez a-la-ba, ta ez di-ru. di-ru. Ma-ri-
ez a-la-ba, ta ez di-ru. di-ru.

EUSKALERRI MAITEA

Eus-kal-e-ri mai-te-a, pe-ka-tu bat de-zu. Mun-du o-nen-tzat
 tri-ki-e-gi-a ez o-te ze-ra zu? Mun-du o-nen-tzat tri-ki-e-gi-a
 ez o-te ze-ra zu?

MAITE

-Euskeratua-

Ga-bak za-bal-tzen di-tun i-za-rien bi-de-tan zu-rei-redi mai-
 te-a da-tor a-me-se-tan--E-gu-nak gal-tzen di-tu
 i-za-re-tan-me-sak. A-la on-da-tzen nau ni zu-ne-re-kine-zak-
 Mai-te, e-guz-ki e-der, e-guar-di be-te-ko ar-gi-a!
 Ne-ke mi-nen ar-te-an ne-re zo-ri-on-i-tu-ri-al-koiz-bait i-lun-tzen
 ba-da ni-gan zu-rei-ru-di ez-ti-a, kon-tu-e-gi-zu Mai-te gal-de
 -da-la nik bi-zi-a.- Mai-te! Mai-te! Mai-te!

ARDO GORRI NAPARRA

Doñu zata.

A, a, a. Ar-do go-ri na-pa-ra, ez-ta ri-ko la-ka-
ra ken-tzen au den az-ka-ra. A, a, a. Ken-tzen
au den az-ka-ra. -

ASTIGARRAGA'KO TOMASA

As-ti-ga-ra-ga-ko To-ma-sak, o-tek e-man diz-ki-gu a-
zak - Lau mutil da-bil-ta nex-ka o-rien on-do-ren ta
ba-ko-i-tza-ri e-man di-o mai-ta-sun laur-den. As-ti-ga-ra-
Akhen-a-za As-ti-ga-ra-ga-ko To-ma-sa, bu-ka-tu den
i-re ma-ta-za.

LENDAKARIAREN GAU-ILLA

Lendakaria Paris'tik Donibane Lohitzune'ra illa ekarri zutenean, aren gorputz-aurrean abestu nion azken-agurra.

Daia

Agiré ta de-kube'tar Yoseba Indoni jauna! Euskaldun
guzian lendakari i-zana! O-na e-men gu-re mi-na,
bi-o-tzak mal-koz e-gi-na
Noiz vi-te, jau-na, be-ar gai-tu-zu ma-ki-ta
-pe-an i-to-tzen gu-re o-toi-tak ez al-zait
-ki-tu zu-re aul - ki-ra i-go-tzen? Ain maite
zai-tun tus-kal-e-ri-a, e-tai-e - ra-soz i-to-
-tzen, be-ti o - ne-la be - ar-al-de-ru zo-ri-tzar
-pe-an gai-xo - a

UR ERTZEKO LOREA

Doñu zarra

p Nausiki

I-bai er-tze-ko be-lar a-r-te-an e-ze-ta-su-ne-zer-ne-

mf

-a, u-da-be-ri-ko goiz e-de-re-an jai-o zan ne-

-re lo-re-a, jai-o zan ne-re lo-re-a.



Pariseko Lehen Euskal Mundu Batzarrean. Albora begira, betaurreko, gorbata eta trajeaz. Jose Antonio Agirre atzerago.



NEMESIO OROITUZ

"Nemesio oroitzuz" ikuskizuneko testua, Nemesioren "Maite ere... neurriz" eta "Zotzean bizia" antzerkietatik hartutako zatiak dira. Etxaniz jaunak Kanta-Kantari"n agertutako kantu sorta bat ere eskaintzen da.

Ikuskizunak hiru zati ditu, modu honetan:

I. Ekintza. "Zotzean bizia" antzerkiko "Antonen" bakarriketa.

II. Ekintza. Kanta-Kantatik hartutako kantuak.

III. Ekintza. "Maite ere...neurriz" antzerkiaren zati bat.

Ekintza batetik besterako lotura, bi bertsolarik egingo dute.

"NEMESIO OROITUZ" antzerkiko jokalariak:

PROTAGONISTA.....Bertsolari bat

ANTAGONISTABigarren Bertsolaria.

ANTONAmeriketan galdua dabilen gizakumea.

ABESLARIAKantuak, gitarrarekin abestuko dituen.

AZENTZIEtxeko neskamea. 44 urteduna

LOREJoakiñen emaztea. 40 urtekoa

JOAKINSendagilea. 45 urte ingurukoa

ANEJoakin eta Loreren alaba. 18 urtekoa

MIKELAne'ren anaia. 20 urtekoa.

Ikuskizun honen antolatzailea: Eugenio Arocena.



Sebastian eta Jesusa Aizpeurrutia aita-alabak, beren etxe ostean. Hauek etxera igaro zen Nemesio Etxaniz aurreko apopilo-etxea utzita, Sebastian alargundu eta gero. Sebastianen emazteari berak lagundu zion izpiritualki heriotzera eramanezuen gaisotasun larria eramaten.

I EKINTZA

Taularen aurrealdeko kantoietan bi aulki daude jarriak. Aulki hauetan eserita bi bertsolari daude. Bertsolari-Protagonista eskubi aldean eta bertsolari-Antagonista ezkerrean. Pertsonaia Protagonistaren jantzia xuriak nagusitu behar du kolorean kontraste handirik izan gabe eta pertsonaia Antagonistaren jantzia gorriak gailendu behar du.

Ondorengo testua bertsolarientzat gidoia besterik ez da.

PROTAGONISTA.- Nemesio, Azkoitian 1899. urtean jaio zen 82 urtez mundu honetan batetik bestera ibili ondoren 1982. urtean Donostian hiltzen da eta Azkoitian hilobiratzen dute.

Urte luzez ikasketak egin ondoren "Comillas"en amaitu zituen apaiz ikasketak. Apaiz gaztea Euskal Herrira itzultzearekin gurutz-bide luze bati ekiten dio. Aurreneko apaiz-pausoak Arabako Urarte herrixkan eman zituen eta jarraian Bergarara bidali zuten.

Gerla hasi zelarik Nemesio Bergaratik Burgosera bidaltzen dute eta bertako agintariek apaiz apokrifoa balitz bezala hartzen dute. Ondoren Debara itzultzen da Gasteizen hilabete pare bateko atsedena hartu ondoren.

1939. urtean Zumaiara apaiz bidaltzen dute eta Nemesioren ekintzek jauntxoan inbidiak sortzen dituzte eta apaiza Zumaiatik bota arterainoko atsedetik ez dute. Berriro Debara itzultzen da eta bertan hamarkada bat egiten du, gaztetxoekin euskaraz-bizitzeko nahia agertzen du baina ekintza hauek ere agintari frankistek gailerazi egiten dizkiote.

(Hiruz-pa lau bertsoetan kantatu)

ANTAGONISTA.- Nemesio, batzuk Santu bat bailitzan zeruratzen dute, nik esango nuke herrendun-apaiza zela, eta zuen gaixota-

sunetako bat "Obedientzia" eza zela, hitz honen esanahia ez zuen inoiz ikasi.

Burgosko agintariak hartakoz ez omen zuten hartu, non dago agintariei behar zaien "Obedientzia"? Korrika ihesi Debara etorri zen.

Zumaian apez zegoela zenbait jauntxo nahigabetu zituen eta berriro bueltan Debara. Denbora gutxira Nagusiek Arabako Andoinera joateko agintzen diote, Nemesiori burujeistea iruditzen zaio eta erantzuten du nahiago duela hara joan baino, elizaren babespetik kanpo gelditu eta bere kasa ibiltzea. Han eta hemengo komentuetan eleizkizunak emanaz bizi izan zen. Hori al da "obedientzia" apez batek bete beharreko duen lehen ekin-tzetakoa izanik, gure Nemesiok ez du hartakotz hartzen.

(Bi edo hiru bertsoetan adierazi)

PROTAGONISTA.- Debako hamarkadan gazi-gozaak asko izan zituen eta egoera horretatik pixka bat aldentzeko lekuz aldatzea pentsatu zuen, azkoitira, jaioterrira etorri zen. Hiru-lau urte bertan egin zituen, denbora horretan ahaleginak egin zituen herriko giroa euskalduntzen. Horretarako antzerkiak, kantuak... eta aberretaz baliatuz. Azkoitia euskaldunago izateko emandako pausoak motz iruditzen zitzaizkion eta Donostiarako bidea hartu zuen hiri honetan Erreparadoras komentuko elizkizunen ardura hartzen du. Donostian euskal adierazpenak sortzeko ematen ziren pauso gehienetan gure Nemesioren presentzia han zegoen. Laguntzaile porrokatua izan zen.

(Bi bertsoz osatu)

ANTAGONISTA.- Nemesiok "Apaltasuna" nonbait galdua zuen edo ez zekien zer zen, bere lan eta ekintzetan hori nabaritzen da. Bere izatea irudietan ikusiko duzue beti tente, "ni hemen nago" eta "niri berorika tratatu". Nemesiok jauntxokerien kutsu berebizikoa zuen.

Ikuslea ohartu dedin esaten dudana zuen aurrean ekarri nahi dut "Anton" ameriketara joan zen gazte bat zer motako trantzetan jartzen duen. Sartu bedi "Anton".

(Bertsotan adierazi).

(Farol-azpian puro bat piztu nairik dabil. Bere artean izketan).

Anton.- Orra, Anton; eldu gaituk azkenera. Etzegok geiego aldaparik... Joan ituan kezkak... Etzan, begiak itxi, belarriak gortu aragia usteldu ta ezurak austu... Nun da Anton?... Auskalo!... Aspaldi eztiagu aren berririk... Illa izango dek.

(Purua pizten asi da. Ke-bolara batzuek zabaldu bitza).

Ondo illa, ala ere!... Ordurako arrak beren lana egiña izango die ten nerekin... Lur-zulo bat aski izango diat nere gorputz gozaka itz au sartzeko... Arnas-toki bapua, alajainkoa!... Neguko gau luzeetan, euri otzak aidean ostantu dezanean, nere gaiñeko lurak ardo izoztu ura otzikaraz edango dik... Elurra izango dik gero estalpe... ta jela gaiñeko azal gogortua... Bost ajola neri!.. Ordurako, nun ote dituk nere ezur-aragiok?... Lurpean aspaldi ustelduak, noski.

Bapo, Patxi, nere txikitako lagun zarra... Zer esango ote-uke, emen ikusiko ba-nindukek puro bati kea ateratzen?...

(Ondo piztu ote dan begiratzen dio).

I ere, nunbait izango aiz, bada... Kalifornia'ko zelaian artzaintza gozoa ez uan izango... Ni, Arjentina'ko zabalune auetan, ez nauk askoz gozoago ibilli... Ordu ontan alkarrekin ba-giña, nola-ko izketaldi-giro izango genduken!... I, agian, oraindik amesetan ariko aiz... Nik, baztarra jo diat... Laster, emen geldituko nauk ankaz gora, ao-zabal, aundi ta txikien bildurgarri... Agon lekuan agola, agur, Patxi, lagun zar nekatua... Nerekin ba-induket, a zer nolako estutua emango nikan il baiño len... Bai, il baiño lenago!... Ori erabakia zegok. Ire lagun zarra ba-zijoak, ta laister aztuko diate Anton, ire lagun zarra, ezagutu zutenak... *(Puroari*

begira) Piztu dek nere tabako-zotza. Berdin dan kasuan, exeri nadin patxaran puroa erretzeko.... (*Ke-aldia batzuek bota bitza*). Ederki zegok!... Apatx ementxe.... (*Etxe-horma ondoko jarlekuan exeri bedi*). Zertan giñan?... A, bai!.... nere buruarekin izketan... Bakarrik eta izketan?... Señale txarra orixe... (*Burua bea-tzez erakutsiaz*). Ganbaratik koloka ote-nago?... Zerbait esango nuke... Munduan dabilizan ero-taldeak nere asmo-berri ba-lute, ala esango liakete... Bai, gizona!... Nork esan bear zidan neri egunen baten, puru au nere bizia neurtzera etorri zitekenik?... Nere bizian erre dedan ederrena... ta gaurko lan onek merezi zuan, nere biziari agur egiteko artu baitet... Bai, jaunak... Ta ez asarratu emakumeok andrerik aitatu ez dedalako... bai, andreak ere... Erabakia artu det, eta ez nau ezerk atzeratuko... Puru au erretzen dedan bezain laister, nere biziak jai du... Nere burua bertan ilko dedala, alegia... Ta ez jarri arpegi ori... Eztago izutu bearririk... Ez naiz aurrena izango, ezta azkena ere... Orren arpegi itxusia jarri al-det?... Puro bat patxaran erretzen ari dan gizonak, zer du bildurgarririk?... Lekuak izutzen al-zaituzte?... Ba-dira txarragoak... Orduak?... Illunak?...

Egia, ba-dira aukera obeak, baiña bakoitzak bere bidea du, ta ez dago aukeratzerik... Datorren bezela artu bear ordua ta lekua... Ta neri orrelaxe etorri zait... gaur gabea eta ordu onetantxe... Baiña oraindik ba-det puxketarako purua... Azken une auek milixka ditzagun ondo.... (*Puroari kea atereaz*) Tira! Pronto nazue berriro pillosopietarako... zergaitik noan nere burua iltzera?... Gogoia eman didalako?... E?... Baimenik ez dedala orretarako?... Ta jaiotzeko, zeñiek eman zidan, bada?... Iñork eskatu al-zidan aurretik nere iritzia?... Ba al-zekian iñork bizitzerik nai nuan ala ez?... Arrazoi eskasa!... Ta mailarik mailla ontara ekarri nauten ezbe-arrak bialtzeko, nork eskatu dit neri baimenik?... Zer, bada?... Nere burua lurpean itotzeko bakarrik al-det eskubidea?

Ori, bai; iltzen ere jakin egin bear da... zenbait bezela, batu ta

batu dirua, beti beartsu bizitzeko?... Norbere buruari ezer opa ez, eta millaka duro besteentzat utzita iltzeko?... Gezurrak irten dio!... Eztu orrelako erokeririk egingo onoko onek... Bestentzat diru-gose larriegiak!... Orrenbeste izerdi, testamendu eder bat egiteko?... Gutxiagok on egingo dio nere ondorengoari!

Nere nekeak neretzat izango dira... Nik irabazitakoaz, eztu iñork parrerik egingo.... Nik batutakoak, neronek jango ditut; ta gero, sartu nazatela zuloan... Aste ederra eraman det azkenengo au... Nituan apurrak nere gustura eraldi ditut... nere azkenengo txanponak puru au erosten urtu, ta orain patxaran beste aldera joango naiz... Ederki asmatua!

Hamaika kaiku ba-da munduan!... Nor bere burua il bear, eta egundoko tratu txarra artzen ibilli?... Ero arraiok!... Aitzetan bera beren burua botatzeko estu-aldia pasa, gero saiets-ezurak autsita erdi-illik miñez gelditzeko?... Edo-ta bizia galtzeko, trena noiz pasa-zai aspertuta egon?... Ta uretan galtzen diranen azken negargarria?... Edanaz il bear, eta urez mozkortuta il?... Alde ederrekoa zan nik gaur edan dedan pattarra!... Nik ere noiz-edo-noiz aberatsen bizimodua probatu bear nuan, eta aste onetan ederki eman diot nere buruari... Orain bapo nago biziari agur egiteko... Nere azkena gozoa izango det; ez bizia izan dedan bezelako latz eta gorrotogarria.

Bizia!... bizia!... A, zer nolako ollaskoa ortzak zuritzeko!... jaio orduko negarrez gatoz... segi gero negarrez -gaitza dala, senide ta laguneri eriotza dala, norbaitek utzi edo saldu gaituala-, ta negarrez eman azken-arnasa... Orretako onenbeste lan gure azal au gordetzen?

Nolako ero-etxea degun lur au!... Ikusi itzazu gizonen nekeak goizetik gaberaíño... diru pixka bat iristearren, artzen dituzten jorraldiak... bata besteari egiten dizkieten txakurkeriak... auzokoak auzokoari, lagunak lagunari, anaiak anaiari... Nolako izerdi

ta buru-austeak egunero!... Nolako gorrotoak erri ta etxetan!... Ta gora-naiak dakarzkian ito-bear eta arnas estuak?... batak besteari aurea artu nai au... Ni nagusi ta i morroe... Nolanai irabazi, nolanai agintzen jarri... Bizi! Naiz ta besteak zapaldu.. Bizi! Naiz ta besteak il... Au al-da gure bizi-maña?... Au onenbeste arretaz gorde bearreko kutxa?... Dijoala dana txakurraren salara!...

Ez nauzue gehiago lokarri oni lotua eukiko... Beti etorkizunari begira... Gaur neke ta bihar neketerdi... Bizpauru, dirutan igarri; ta beste guziok eziñaren atzaparretan estu... Atzo goibel, eta gaur kazkabarra... goiza txakur, eta arratsaldea basakatu... gaur eten-go ditut kate oiek... Banoa kezka gabeko gabera... gose-egarririk ez dan lurretara....

Beti arpegi berdiñak ikusten... kale berdiñak zearkatzen... Aspertu naiz oraintxe. Ba-noa, esan det; eta ba-noa, izango da.

Erruki al-nauzue?... Nik gehiago zaituztet zuek... Ni, neronek aukeratutako orduan ilko naiz... zuek, ba al-dakizue nola ilko zeraten?... Bide-bazterren baten? oean? Gerran?... Al-dakit nik!... Ta azkenean, milla nekeren buruan, il bear izateko... gutxien nai izango dezuen orduan iltzeko...

(Zutitu ta purua erakutsiaz).

Beldur al-zerate?... Ikusten al-dezue puru au?... Iltzera dijoa, ta eztu batere beldurrik... Ni au baiño olloago izango al-naiz?...

(Keari begira).

Ba-oa erretzen... Kea! Kea!... Zer dituk besterik gizonen ametsak?... Zer gizonen sinisteak... pozak... negarrak... ondasunak... jaiarak?...

Nere bizia ere, ke-utsa izan det... Ametsa guzia baiña ontan dago aldea; batzuek ames ederra egiten dute; nik geienak bezela, ames txar baten igaro det nere azken-aldi au... Noiztikakoa det, gero, nere gainbera au?... Oraintxe hogeit bat urte ezkerakoa. Nere zoriak Ameriketara irauli niñuan ezker, ez det pauso on bat

eman al-izan... Bat-batean Panpetako zabalera onetan ur-tanta bat itxas-erdian baiño galduago nintzan.

Giza-burruka ontan sartu ninduten... Etorkizuna illun jarri zan neretzat... Goizetik gabera, jai ta aste, nere indarrak lan gogorrean urtzen... ta bururik jaso ezin... Inguruan ezagunik ez.. Nere illunpe larri au argitzeko, iñoren esku lagunik ez luzatu... Ta gizonak neurri bat du, ta nere neurria bete da.

(Kea botatzen...).

Ba-oa erretzen... geroago ta aituago... geroago ta motzago... eorren eriotzara urbiltzen, ni bezelaxe... Nere urteak zer izan dira, nere bizia erretze bat baizik? Egunik egun, ordurik-ordu, nere bizia erretzen etorri naiz; nere indarrak aitzen, osasuna zatika botatzen... Ibili naizen bazter bakoitzean, an gelditu dira nere alegiñen auts eta txingarrak.

Ba-oa erretzen!... Joan etengabea... Egunak gaba ta goizak arratsaldea zekarrek gurpil eroan, eta gurdia gelditzerik etzegok... Gure bizitza-mataza gutxitzen goaz, eta eriotz-mulloa ariltzen une bakoitzean... Aldapan bera dijoazkigu etorkizun-zaldiak, eta ba-dator ondatuko gaituan pendiz illuna... Ibai azkarrak garamazki guziok. Noizean bein, ur-loa... baiña ura beti aurrera dijoa. Uste gutxiena degunean, an dator ur-jauzi bat, eta an goaz leizean bera galtzera.

Ba-oa erretzen!... Ta suak arama; barruko garrak jaten au, gu geronen griñak jaten gaituztenez... Aundi-naiak... gora-naiak, aginte-egarriak, alkar zapaltzera ekartzen gaituzte... Goza-naiak oñaze-itxasoan sartzen du gizona... Ardo billa joan, eta ozpin eta beazuna edan bear... Irabazi-goseak, diru-amorro orrek, zenbat galera dakarkigun!... Irabazi erruki gabe... neurri gabe... besteen lepotik... besteak itoaz... ta erruki atzean gelditzen dana!

Ba-oa erretzen!... Su gorrixka... ire sudur-pinporta gorria itzaltzera zijoak... Gorri bizia dek izerdia ateratzen digun eguzkia...

Gorri illa gabetako kezakak egosten dizkiguten illargi ta izarrak... Gorria barruan irakiten daramagun odola ere... Gorriak aserre - lotsak jartzen dizkiguten arpegiak... Gorriak zenbait lore ere... Laister zimelduko aiz, nere eskuko su-lore gorrixka ori.

Su gorri!... Gorri etortzen gera mundura. Gorri, esku-utsik, emendik aldegin bear... Poliki-poliki erazten goaz gure egunak, indarrak, almenak... eta azkenean, lur gorria gure oe solla.

Gero... lo!... Ametsik gabeko loa; gose-egarri gabeko loa; esnaera gabeko loa... lo betea!

Gero... utsa!... Ez ikusi, ez entzun, ez sumatu... Utsa!... utsa!... ondorik gabeko zulo aundi bat... Illunbe sakona... gau-zelai zabal, ta baztarrik ez ifün... Gabe-leizea!

Gero... Pakea!... Bizi neke au, bizi larri au bukatu... Nik dedan atsedeen-gogoa ase... Ai, atsekabe-lur oni agur egiteko dedan gogoa! (*Puroari begiratu bat emanaz*) Nere tabako-zotza, ez aiz gehiago gauza... Ire egitekoa bete dek... nere bizia neurtu didak, eta orain ez aut ezertarako... (*Purua lurrera jaurti beza, esanaz*). Oa lurrera ta gal adi autsetan... Aurki biok berdiñak izango gaituk... Ta orain, ator nerekin neri eriotza gozoa ekarriko didaken izkillu errukitsu ori.

(Sakeletik pistola bat atera beza).

Ik, ekarriko didak gizonak eman ez didaten pakea... Tresna mai-tagarria... giza-gogo minduei beren kezka guziak kentzen laguntzen diekan burni beltxerana... Une batean gozatuko dituk gaitz guztiak...

Puroak egin du bere lana... Orain egin beza berea pistola onek... Eriotza barruan dakar... eriotz azkarra ta gozoa... Eskuz muñetaraño jaso... beatzez sakatu pixka bat, eta billa nazatela biziek.

Bizi nai duten eroek! Ni il-ondorengo, lantxo bat utziko diet gizajoei... Or asiko dira bereala: Zein ote-da?... Zeiñek il ote-du?... Ba-dute pixkaterako lana... ez didate papelik billatuko

aldean... guziak aurretik erre baititut.

Antzoki ontakoek artu bear duzuen ikara, nere tiroa aditzen duzutenean!... Ilda gero, pozik egongo nintzateke txulo batetik begira, guztien kontura parre egiteko....

(Alboko etxe batetik Eguarritako kantu bat euskaraz entzuten da. Exerita dagoen lekutik jaikitzen da, arridurak hartuta kantua entzunaz.).

Abenduko illaren
Hogei ta laubean,
Jesus, gure Jabea,
Jaio da gaubean
gu ipintzeagatik
izate obean,
biotza zuzenduta
zerura bidean.

Estalpe zartxo baten
Belen´dik ondoan,
Aurtxo jaio-berria
ara nun dagoan;
Jainkoa izan arren,
beartsu dago an;
Ikasi dezagun zer
erakusten duan.

Anton.- Jauna! Nun nago?... Nere etxean nengola, iruditzen zitzaidan... Euskalerrri txiki bat da etxe au... Guraso ta seme-alabak maai-inguru Gabon kanta zarrak kantatzen... eta Nazimentu bat ere, ziur badutela sukalde-txokoan...

Gaur Gabon eta bihar Eguarri!... Emen berotan eta gure errian elurra baztarrak zuritzen, agian... Zenbat urte eliza batean sartu enaizela!... Nere bizi garratz onek gora begiratzeko betarik ez dit eman... ta onuzkero berandu izango da nere erabakia atzeratzeko.

Zer egiten ote-du nere ama xarrak?... An izango zan gaur ere gaueko errosarioan bere mantaliña burutik zuala... ta elizkizun-ondorenean, beste andratxo batzuekin eliz-atadian itzen bat trukatuko zuen.

-- Egualdi onekin nola etorri zera, Joxepa?

Esango zion lagunen batek. Eta beste batek:

-- Anton'en berririk ba al-dezue?

Ta gure ama xarrak, gezurren bat asmatuko zuen, bere semearen esker txarra estaltzearren:

-- Ba-dakizu, Klara. Ameriketa-alde artan beta gutxi dute alperrik galtzeko. Lan da lan, gizajoa. Baiña Jaunak osasuna ematen dio, ta ba-dabil mutilla.

Ta gero, bere gezurraren miña biotzean eskutatuaz, pausoa doi-doi, etxe-aldera egingo zuen.

Etxean, nere anaiaren aurrak pozteko, Nazimentu bat antolatuko zuten. Esnedunari goroldioa ekar-arazi, Olokiñetik zerrauts pixka bat inguratu, ta an egongo dira aurrak estalpeko Aurtxoari begira. Lentxeago, erriko aurrak etxerik-etxe ibilliko ziran Gabon-eskean... Eta Gabon Zarretan Olentzero begi-gorri....

Gure sukalde beroan, maia bedeinkatzerakoan, amak Aita gure bat gehiago errezatuko zuen:

--Purgatorioko Animei, gure Anton bide ta arrixkuetan gorde dezaten!

Ta ni... iru urte auetan etxera karta bat egin gabe!... Esker txarreko seme au!

Apal ondoan, guziak pake gozoan oeratuko dira, ta nere ama xarrak bere otoitza oe-aurrean, egiten duenean, ni emen lurrean, odol jario bat burutik dedala, geldituko naiz, jaso nazaten artean.

Ta nere amak noizbait nere azken onen berri jakingo ba-lu?... beti izaten da norbait berri txarrak emateko prest:

-- Aizu, Joxepa, ez nizuke naigaberik eman nai, bada... Agian, gezurra izango da, baiña...

Ta nere amak larri galdetuko dio:

-- Esan zazu, Mikela, esateko ori.

Ta besteak orduan:

-- Ara bada... zuen Anton´ek bere burua il ote-duan-edo, diote.
Ta ezpata orrek eramango du lurpera nere ama gaxoa!...
Ez, ez; ezin diteke!... Zer daukat nik eskuan.

(Pistola lurrera botatzen du arrika esanaz.)

Alde, alde nigandik tresna galgarri au!.

AMAIERA



Azkoitiko Santa Kutz inguruko lurretan Nemesio Etxaniz bere zakurra lagun, atzean herria ikusten dela. Hementxe burutu zituen bere olerki onenak.

II EKINTZA

Abeslaria bere gitarrarekin sartzen da eta ertzeko aulki bat erdiratuz ikusleei mintzo zaie.

Bestalde abeslariak kantuen ordena bere iritzien arabera jarri behar du. Kantu guziak kantatu edo Nemesioren kantu sortatik beste kantuen bat hartu nahi badu bere esku dago.

ABESLARIA.- Jaun andreok Nemesiok kantuari zion maitasuna hainbat eta hainbat lanetan adierazi izan digu. "Ez dok hamairu" hain sonatua izan zen abeslari taldearen sorrerak, Nemesioren presentzia eta laguntza izan zuen. Kantu sorta haundi bat argitaratu zuen Kanta-Kantari izenarekin eta sorta honetatik ahaleginduko naiz zenbait kantu zuei eskaintzen.

Hasera emango diodan kantua Errota-Arria da eta kantu hau "Izeko aberatsa" Komedian agertzen da.

"Errota Arria". Doinua 137. Orrialdean dago.

I

Errotazuriko alaba
eiotzen ari da artoa:
errota arriaren negarra
aidean zear doa.
Arritzar orrek etzak mindu
nexka gaxoaren kolkoa:
arta iriñez nasten ari da
gaztearen malkoa.

II

Erreka zuloan errotak
etengabe du tranga-otsa:
arekin batera taupaka
dabil nexka biotza.
Illunabarrez aditzen da
urretxindorraren abotsa,
zotinka, laster dualako
egunak eriotza.

III

Bai luze joaten zaiola
umezurtzari gau illuna!
Illargiak eztu poztu nai
errotaren jarduna.
Loak artu eziñik dago,
malkoz bustia lagatzen du
gabaz burko biguna.

Bigarren kantua "Antoni ta Anton" da. Kantu hau arrakasta haundia izandakoa da urte zenbaitetan Xabier Lete eta Lourdes Iriondok Euskal herrian hainbat aldiz abestu izan dute eta hauetatik ikasiaz herriak kantatu izan du. Kantu hau "Izeko aberatsan" ere abesten da.

"Antoni ta Anton" Doinua 133. Orrialdean dago

ANTONEK:

Antoni! Antoni!
Zure atean nago ni.

ANTONIK:

Ai, Anton! Ai, Anton!
Ate ondoan, or konpon.

ANTONEK:

Ormatxuriak negu gorrian
ez du atsegin elurra:
zerua goibel, kabia otza,
ta janari gabe lurra.
Ai, maite, nere biotzak duan
zure otzaren bildurra!

ANTONEK:

Enarak ere, bere kabia
galduta ba-du ikusten,
biderik gabe, arutz ta onuntz
kabitik du aldegiten.
Egarri dagon nere biotza,
zuk eman ezik edaten,
berriro ere ibilliko da
gogorik gabe nunbaiten.
Antoni...!

ANTONIK:

Zure biotza egarri dala,
esan didazu bertsotan:

Biontzat kabi bat berotzeko
bilduko nuke egurra.

Antoni..... (Goian bezela).

ANTONIK:

Enarak ez du bein egindako
kabirik iñoiz aldatzen:

urtero beti kabi aretan

umeak ditu bazkatzen.

Baña zu, Anton, enara txarra

zaitut neretzat billatzen:

jai bakoitzean nexka berria

ikusten zaitut maitatzen.

Antoni.....!

neronek ere ikasia det
arrazoi dezula ortan.

Zu beti zabiltz edari billa,

Ikusi zaitut askotan:

baña neurritz gain, egarri ori
itotzen dezu ardotan.

ANTONEK:

Antoni! Antoni!

Kalabaza-zale ez naiz ni.

ANTONIK:

Ai, Anton! Ai, Anton!

Aize preskuari, gabon

Orain, pasodoble bat kantatuko dut, Nemesiok prestatutako letrare-
kin. Ana izena du eta "*Izēko aberatsa*" komedian kantatzen da.

Kantua "Ana" eta doinua 136. Orrialdean

Ana! Auxe da lana!

Zu gabe gozagaitz zait dana:

jana ta edana

kaltegarri ditut, laztana.

Ana! Ana!

Usoak joan dira ego aldera,

kabi berriren bat an billatzera,

maitasun galduak aztutzera.

Lañoak aizetan dabiltz

bide luzeak egiten:

biotz ixillen malkoak

ez ditu iñork jakiten.

Ana! Ana!

Negarrez urtu naiz dana,

illunari nago emana.

Atoz; ai! Neregana:

atoz, bai, Ana!

Orain kantatzera noan kantua Luis Marianok ezagutzera eman zigun eta Nemesiok euskeratu zuen:

"Maite" Doinua 144. orrialdean dago

Gabak zabaltzen ditun
izarren bidetan,
zure irudi maite
dator ametsetan.
Egunak galtzen ditu
izar eta ametsak;
ala ondatzen nai ni,
zu nerekin ezak.

Maite! Eguzki eder,
eguardi beteko argia!
Neke miñen artean
nere zorion iturria!
Noizbait illuntzen ba-da
nigan zure irudi eztia,
kontu egizu, Maite,
galdu dedala nik bizia.
Maite! Maite! Maite!

"Ur ertzeko lorea" Doinua 147. Orrialdean dago

I

Ibai ertzeko belar artean
ezetasuna ernea,
udaberriko goiz ederrean
jaio zan nere lorea. (Bis)

II

Inguru ziran belar gazteak
(aize epeletan igari)
arrera ona egin zioten
beren aizpa berriari. (Bis)

III

Ur ispilluan –loreak zion-
nere ederra ikus dezaket:
orregatikan nere biotza
ibai ertz ontan lotu det. (Bis)

IV

Ai, ur ertzeko nere lorea,
etzazu maite ibairik:
ugolde batek joko ba-zindu
etzenuke zelai-jairik. (Bis)

V

Eguzkiaren lastan beroa
emen artzen det gozoro,
aren argitik bizi berria
xurgatuaz egunoro.

VII

Biaramonez lore gaxoa
eguzkiak kixkaldua,
ujola batek lokatzapean
utzi zuan lardastua.

VI

Ai, ur ertzeko nere lorea,
etzazu maite eguzkirik:
aren su-agaldak joko ba-zindu,
etzenuke or bizirik.

“Edurne” Doinua 140. Orrialdean

I

Illargiak damu du zu jaioa:
eguzkia da zure oinpekoa:
izarrak zure bekaitzez urtzen daude,
zerua illun dagolako zu gabe.
Txoraturik naukazu, Edurne.

III

Ostroz dago baso-aldea,
txori-soñuz dana betea:
jostari dator ur garbia:
kantari dago iturria.

II

Nere ames urdin gozoa,
Iltzen daukat biotz gaxoa,
neretzat zure ezezkoa,
nere izar biotzekoa,
eriotz miña litzake. (Bis)

IV

Ostroz dago baso-aldea,
txori-soñuz dana betea.
Nere biotzak zu zaitu zeru,
nere pozezko aingeru.

"Ardo gorri Naparra" Doinua 145. Orrialdean dago

Gizona ardoaren alde

Andrea ardoaren aurka

I

A, a, a.

Ardo gorri naparra:

Eztarri lakarra,

Kentzen au den azkarra.

A, a, a. Kentzen au den azkarra.

II

A, a, a.

Kontuz busti zintzurra,

Jo naiz ezpadek lurra,

Ta autsi lepa-ezurra,

A, a, a; ta autsi lepa-ezurra.

III

A, a, a.

Au den ardo bikaña!

Edan zagun nai aña,

Naiz argitu bekaña.

IV

A, a, a.

Matsaren ur sorgiña:

Gizonak edan-griña,

Ta andreak mitiña.

V

E, e, e.

Ni ardoaren alde,

Goiz eta arratsalde

Beti naiz aren galde.

VI

E, e, e.

Edari etxe-kalte,

Nasaikerien ate,

Tabernetan alkate.

VII

I, i, i.

I aut nere edari,

Ik jartzen nauk kantari,

Ta sarritan dantzari.

VIII

I, i, i.

Matsaren zumu azti,

Griña txarraren illati,

Osasunaren pipi.

IX

O, o, o.
Onek jartzen nau bero
Eta sarritan ero
Edanaz egunero.

XI

U, u, u.
Au den gure erregu:
Ardoa bear degu,
Naiz uda ta naiz negu.

X

O, o, o.
Edari demonio,
Inpernuko jario,
Pardel danen bizio.

XII

U, u, u.
Ur gorrizko olatu,
Orrek au i ondatu,
Ta andreaz asarratu.

XIII

U, u, u.
Ardo madarikatu!
Gau-txorien tellatu,
Alper danen ostatu.
U, u, u. Arda madarikatu!

"Maitearen illobi gañean"

I

Ames-egunak igaro ziran antziña
Urtu zitzaigun
Poz aien laño ariña:
Ezin zait aztu
Zure oroipen samiña:
Zurekin juan zan
Bizitzeko atsegiña.

III

Zu ziñan nere biotzeko Erregiña:
Orain nigandik
Betiko zera aldegiña.
Au da biotza
Barruan lertzeko miña!
Obe nuan bai,
Biok batera il ba-giña!

II

Negarrez dago pooztu oi-zendun etxea
Orain nigandik
Entzun oi-zitun lorea,
Ta biok pozik
Egin oi-gendun bidea.
Bai beltza dala
Nere barruko illunpea!

IV

Zeru azpia txulo argiz betetzen danean
Izar bakoitza
Zeruko leio dala gabea:
Maitea andik
Zeletan dedan ustea,
Gora begira
Egon oi naiz goiz artean.

Iru alaba (Rumba aidea) Doinua 143. Orrialdean dago

I

Iru alaba ditut, iru:
Maribel, Maribi ta Marilu.
Iru alaba, txiruliru:
Obe nuan etxe-bete diru. (Bis)

II

Ai, Peru!
Alabak ez dira aingeru.
Bakoitza bere gurutzarekin.
Ai, Peru!
Mutillak dituzte inguru.
Ai, Peru!
Laster naiz, txiruliruliru,
Ez alaba ta ez diru.

III

Maribel ziara itxutu da
Senargai begi-bakar batekin.
Maribik naikoa lan ba-du,
Artu dun gizon pardelarekin.
Marilu aseko da ongi,
Bere senarraren jipoiekin.
Orra nere iru alaba.

IV

Ai, Peru!

Alabak etziran aingeru.

Ai, Peru!

Ezkontza ez da beti zero.

Ai, Peru!

Orra nola gelditu naizen,

Ez alaba ta ez diru.

BUKAERAN

Maribel, Maribi, Marilu, Peru!

"Astigarragako Tomasak" Doinua 145. Orrialdean dago.

Astigarraga'ko Tomasa'k,
Orrek eman dizkigu azak!

Zer egin den ondatzeko
Ik unan itzala?

Lau mutil dabilta
Nexka orren ondoren,
Ta bakoitzari eman dio
Maitasun laurden.

Astigarraga'ko Tomasa'k...

Ai, gure Tomasa!

Ederki da lasa;

Baiña orain estutu zaio

Astigarraga'ko Tomasa'k....

Bere arnasa.

Ai, au aize otza!	Astigarraga'ko Tomasa'k...
Nun den ire lotsa?	
Ire inguruan ederki	Nun den ire lengo
Arrotu den autsa.	Matraillen larrosak?
	Bai laburra izan dala
Astigarraga'ko Tomasa'k.....	Ire maite-poza!
Ez aiz i makala!	Astigarraga'ko Tomasa,
Ori den azala!	Bukatu den ire mataza.

"Euskalerrri maitea" Doinua 144. Orrialdean dago

I
Euskalerrri maitea,
Pekatu bat dezu:
Mundu onentzat
Txikiegia
Ez ote zera zu?

II
Txiki eta ederra,
Orra or pekatu.
Orregatikan
Ezin dizute
Iñola barkatu.

III
Bi landare aundiren
Erdian zaitugu.
Ta aiek argia
aten dizute,
Utzirik zu itxu.

IV
Auzoko etxean
Daukagu nagusi;
Argatik gure
Etxeko ormak
Oso daude itsusi.

V

Zure etsai zitalak
ez dute pakerik,
alperrikako
alegiñetan,
zu ondatu nairik.

VI

Euskalerri gaixoa,
burua jasoizu.
Zeruetatik
Jaungoiko Jaunak
Lagunduko dizu.

"Lendakariaren Gau-Illa" Doinua 146. Orrialdean dago

DEIA:

Agirre ta Lekube'tar Andoni Jauna!
Euskaldun guzion lendakari izana!
Ona emen gure miña!
Biotzak malkoz egiña!!!

AHAPALDIAK

I

Noiz arte, jauna, bear gaituzu
Makillapean itotzen?
Gure otoitzak ez al-zaizkizu
Zure aulkira igotzen?
Ain maite zaitun Euskalerria,
Etsai-erasoz itoa,
Beti onela bear al-dezu
Alritxarpean gaixoa.

II

Lenak naikoa ez ditugula,
Joan da gure gizona.
Nun dezu, Jauna, gure gidari
Gendun Lendakari ona?
Ain zendun zuzen! Ain zendun zintzo!
Ain gendun lagun jatorra!!
Aren eskutan utzia gendun
Gure aginte-zigorra.

III

Ta orain, Jauna, ebaki dezu
Aritza ondo-ondotik;
Eta zugaitza or gelditu da
Zeru-begira orpitik.
Ezingo degu iñoiz arkitu
Alako Lendakaririk.
Argatik, Jauna, Zeru izan zaite
Gure Gidari zerutik.

IV

Izar berri bat agertu zaigu
Euskalerriko zeruan:
Ta aren argitan amets eder bat
Sortu zait biotz-barruan:
Izar ortara aldatu dula
Jainkoak Lendakaria,
Andik obeto jarraitu dezan
Gordetzen Euskalerria!!!



III EKINTZA

PROTAGONISTA.-Kantu hauek guztiak entzunda nork ukatu, Nemesioren sena kanturako. Kantu zaletasuna egon zan herri guzietan: Bergara, Deba, Zumaia, Azkoitia eta Donostian saiatu zan gaztetxoei erakusten. Donostiako egonaldian, sortzen ari ziren abeslari gazteekin ere harremanetan zegoen, horrela belau-naldi batean hain sonatua izan zen "Ez dok hamairu"ren lehen urratsetan bultzatzaile izan zen. Orain, han zeruan ere, zenbait kantu prestatuak izango ditu.

(Bertso bat edo bi)

ANTAGONISTA.-Kantuak horrela entzunda politak dira, nahiz eta gaur egungo "Funky", "Rap", "Hip-Hop", "Acid-Jazz", "Bacalau"... ata abar dantzekin konparatuz oso zaharkituak egon, eta Nemesioren garaiera pasiaz, lizunkeriz betetakoak direla, eta diot zeren sasoi haretan herriko plazetan helduta dantza egitea galerazten zuten unean Nemesio "Tangoak", "Pasodobleak", "Fox" eta beste hainbat kantu euskeratu zituen gazteak oraindik herrietako apezten aurka egiteko dantza heldua sartzeko eta pekatua herriko plazetan gazteen artean zabaldu zedin.

(Bertso bat edo bi).

PROTAGONISTA.-Adiskide, Antagonista zure ahotan Nemesio pekatari bat zan baina oker zaude, Nemesiok beste herrietako gazteak bezain aurrerakoiak nahi zituen gazte-euskaldunak eta horretan eman zituen hainbat pauso kantua ere parte izanik eta beste lurraldeko kantu sonatuenak gure irratietan zabaltzen ari ziren unean gazteleraz, Nemesiok euskaraz abesteko proportzioan jartzen zituen.

Entzule-ikusle, adiskideak, nola izan zitekeen kaltegarri gure gaztediarentzat honelako gizona! Diodana frogatzeko, zuen aurrera dakarkizuet ikuskizun honen azken atala.

LEHEN AGERRALDIA

(Azentzi, etxeko neskamea, Gabon-apari aurrez jantoki-txoko batean Nazimentu bat eratzen ari da. Odolgi, korixo ta zerrautzez, mendi, aitz eta bidexkak egiten. Belengo estalpean Jesus aurtxo ta beste irudiak..)

Azentzi.- Ari gera, ba, ari. Gure nagusi onek, ba-ditu bere kazketaldiak. Gabon gaberako bere Naximentua jarri bear zaio... beti ume izango gera gu... Etxean aurrerago lanik ezpalego bezela, arratsalde guzia Jaiotza au antolatzen... Berrogetaka urtekin, aurlanetan.

Ta guzia... bere burua nasteko ta biotza minberatzeko... Andra zana bizi zanean orrelaxe jartzea gustatzen omen zitzaion ari; ta zaude emen, hamazazpi urteren buruan, andra zanaren gustuak kunplitzen... Andreak agintzen duela etxean? Ezta gezurra. Emen, behintzat, ilda gero ere, andreak jartzen du legea... Gizonak txoratzen diranean...

Guk, zera... ezkontzeko gogoz eta senargai gabe gelditzen geran emakumeok, eztegu orrelako aginterik. Guretzat, erratza ta sukaldeko zatarra dira apaingarri. Autsak arrotzen eta zikiñak garbitzen degu, gure aginpidea... Baiña bederatzi urte hauen buruan, neronek ere ikasi det nagusiari errietan egiten.

Gaur ere, or azalduko zaigu kanabeteko bekozko bere arpegia illunduta. Ori, urteroko gaitza du. Gau ontan galdu omen zuan bere andra ori, ta orduan bezelaxe jarri nai izaten ditu gauza guztiak. Ta zer iristen du horrela?... bere barruko zauria berritzea, ta Gabon gabeko poza ondatzea besterik ez.

Andrea.... Andrea!.... Beste batzuek ere galdu izan dute, ba, berea. Ta orrenbesteko utsunea utzi ba-dio andrerik ezak, ba-dira emakumerik pranko munduan ezkontzeko borondate osoa dutenak.... Neu aurrena naizela.... Zer, ba? Gure sasoiari gustokorik etorri etzitzailako, beti gai egon bear al-degu, ala? Baiña gure

nagusi onentzat, eztago beste andrarik... Bere andreak au; bere andreak ori... Beste emakumeok gonarik ezpagenu bezela... Gonak eta gaiñerakoak... eta berrogei urte paseak, zoritxarrez. Ai! Zeiñen txarra dan biotza beti gazte edukitzea.

Eta zaude zu gizon jator baten ondoan, etxepe berean, itzik esateko eskubiderik gabe, ta beste emakume baten kontuak aditzen beti. Eta horrela gaur, horrela bihar, eta horrela bizi guzian. Bere andrea, bere andrea!... Gu ez al-gera iñor?... Egia esan, nik ez nuan ezagutu etxeokoandrea zana. Etxe onetan bederatzi urte bakarrik ditut, eta andra zana il zala, gaur hamazazpi urte.

(Argazki bat erakutsiaz) Or dago bere erretrato bat. Zer ba ura ere? Moko estu, begi pinporta; ezpain motx oiek ere, eztira, ba, beste munduko gauzak... Jakiña! Gaur hamazazpi urte, ni ere zerbait ba-nintzan. Udaberrian edozein da lore. Gaur bizi izan ba-litz, berrogei urte arek ere.

(Ezker aldeko agertoki-erdika orain utsik egon da. Orain, eskuin-aldeko etxe-barruan gelditzen da utsik. Atadi aldera emakume eskale bat dator nekez. Arlote jantzia; aurpegi gaxoa dakar).

Lore.- Ezin det... ezin det gehiago! *(Elurretan zear atadiko aterpera dator)* Aterpe orretan atsedean pixka bat artuko det... Noan, noan otzak eta nekeak aitu nazan baiño lenago... Emen naiz, orratik. *(Aterpean sartuaz)* Utzi dezadan nere zama. *(Bere pardela lurrean uzten du)* Nere soiñeko urratu ta ontzi zarrok, etzaudete luzarorako... *(Ate-ondoan armalla bat edo beste jarri diteke. An exeriko da Lore, etxeoko horma-aldera bizkarra duala.)* Nere bizi-tza!... ez luke iñork sinistuko... Amazapi urte auetan nere ibillerak ames bat dirudi... Etxe oneko alaba ura... geroko errespetoko etxeokoandre ura... erriz-erri eskale, motxalle baten gisa!

Zeñen laburra izan zan nere zoriona!... Lenbiziko, semearen poza. Urrengo, alabatxoaren jaiotza... Nun ote-zerate, nere mai-teok?... Ta nere zoritxarreko senar gizajoa... Aren maitasun itxua... Edena zeukan barruan; pozoi txar bat edaten duana beze-

laxe... Maiteago ta zorigaitzago... Mozkortzen, orditzen zetorkion biotza.... Azkenerako, erotzeraiñoako kezka sortu zitzaizkion... Ta ni, aren eden; aren ardo ta kezka-iturri.

Maitasun aretan uste osoz bizi nintzan... Giro ura alda zitekenik ez nuen uste... ta nere itxumenean, ez nituan ikusi nere zerua estaltzera zetozen ekaitz-lañoak... Bat batean etorri zen eraso, ta mende balak nere zorion-ostro guziak lau aldetara barreiatu zituen... Atera nintzan etxetik, tximistak jotako zugaitz baten iduri, soillik; arriak galdutako sail baten antzera... Zorigaizpean ebakita... Arrazkero, nere ondar gorritzko basamortu onetan, ezta landare bat sortu... Eguzkiak erretako zabalune onek, eztu iñun itzalik.

Nere ondamendia zerk sortu zidan esaten asiko ba-nintza, parre egingo lidateke... ta ala ere, egia da... Maitasunak galdu niñuen... nere senarrak zidan maitasun itxu arek, maitasun bete-beteko arek. Ura maitasunez, itxu; ta ni, gaiñean nuen arrixkua ikusteko itxuago.

Une batean, maitasun ura gorroto bizi biurtu zan... ta atera nintzen etxetik, etxe oneko alaba au, etxekoandre begiratu au, senarrarekiko legea autsi duen andra zapuztu bat bezela, nere gizonaren madarikapen-mendean lur jota... Bururik jasotzeko indarrik gabe... Lotsa gorri batek eratxita.

Nora jo?... nere gurasoak illak... aideetara azaltzeko arpegirik ez... nere burua ezkutatzera jo nuen biderik-bide, euri, ta ateri, uda ta negu. Beroak ito, ta otzak eten... Lore! Lore!... zeñen oker jarri zidaten nere bataio-izena!... Lore onek ezto zelairik. Landare-orpotik ebaki zuten, eta or dijoa ugolde nastu baten basetan lardaztua; neke ta gaitzak zimeldua. Geroztik, zeruko izarrak ditut nere aizpak, eta bideko autsak anai. (*Loak artzen du*).

BIGARREN AGERRALDIA

LORE eta ANE

Ane.- (*Maia jartzen ari dala, kantari hasiko da*).

Jesus maitea logure dago seaskan, ain zoragarri!

Aingerutxoak kantari daude, lo eragiñaz Aurrari.

Lore.- (*Ate-ondoan kanpotik esnatuaz*). Ene! Loak artu ez nau, ba.
(*Bere jantzia lepoan batuaz*). Bai otz egiten duala! Ziara gogor-
tuta nago.

Ane.- (*Abestuaz*).

Loak artu du. Aingerutxuak egan dabiltz inguruan;

ixil-ixilik makurtu eta laztantzen dute musuan.

Lore.- Kanta ori!... Hamazazpi urte gaur azkenengo kanta nuala... ta
ondoren etorri zan ekaitza.

Ane.- (*Abestuaz*).

Amesetan da Jesus maitea, irri parrez bere ezpañak;

Bera ikusteko zabaldu ditu zeruko ateak Jaunak.

Lore.- Barru guzia ikara jarri zait. Zein ote-degu kantari? Etxean nago-
la dirudi. (*Zutitzen da*).

Ane.- (*Abestuaz*).

Esnatu da, oi! Bere begiak negarrez bete zaizkio;

Aingeru batek urrezko ontzian malkoak artzen dizkio.

Lore.- Abots ori!... Neure aotik irtena dala, ematen du. Biotz erruki-
tsuren bat ba-da etxe onetan. Jo dezadan atea. (*Jotzen du atea.*
Ane maia utzi ta atera dioa. Lore ate ondoan errezatzen). Aita
gurea... limosnatxo bat Jainkoaren izenean.

Ane.- Emakume bat gau otz onetan! Jaungoiko ona! Sartu zaite barru-
ra pixka batean berotzera.

Lore.- Ez, ez. Narrasegi nago, onelako etxe txukunean sartzeko.

Ane.- Gabon-gaba da gaur, ta ama zanaren izenean barruan artzen degu gau ontan datorren eskekoa. Aurrera, emakume.

Lore.- (*Barrura sartuaz*). Ama illa al-dezu, neskatz on orrek?

Ane.- Gaur hamazazpi urte galdu genuala.

Lore.- Jaunak bere pakean dezala!... Or atetik kanta bat entzun dizut. Zeiñek erakutsi dizu?

Ane.- Gure aitak. Ama zanari asko gustatzen omen zitzaion. Gabon-gabaz beti kanta oi-degun alki ortantxe. Nola dezu izena?

Lore.- Lore, zerbitzeko.

Ane.- Ene! Gure amak bezelaxe. Ba-noa barrura berogarri zerbait zuretzat ekartzera... Exeri zaitez ementxe, amarentzat jarri oi-degun alki ortantxe.

Lore.- Illa dezuela esan eztezu, ba?

Ane.- Bai, baiña gau ontan leku ori gordetzen diogu beretzat, nolabait gurekin degula sinisteko. Berealaxe nator. (*Bijoa eskuiñetik*).

Lore.- (*Apur batean bakarrik*). Nere etxean nagola dirudi, Mai au... alki auek, jaiotza ori... Onelaxe jarri oi-nuen neuk ere zorioneko nintzan urte aietan.

Ane.- (*Azpil batean zuku beroa ketan dakar*). Artu zazu berotzeko.

Lore.- Milla esker. Zure biotz ona Jainkoak ordaindu deizula! (*Artzen asi bedi*).

Ane.- Gau otz ontan, nola atera zera bide oietan zear?

Lore.- Urteak daramazkit bide oien lagun.

Ane.- Bein ere ez al dezu izan etxerik?

Lore.- Hamazazpi urte nere etxea galdu nuela.

Ane.- Nolatan galdu zenuen, ba?

Lore.- Maitasun geiegiak bota ninduen nere etxetik.

Ane.- Maitasun geiegiak?

Lore.- Bai, nere senarrak zidan maitasun geiegiak... Etzan bizi... Norbaitek emaztea ostu bear zion bildurrez bizi zan beti... Aide tartekorik etxera etortzen ba-zan... adiskideren bat guregana ba zetorren... Gizakume bati arpegi ona jartzen ba-nion... Nere senarrak etzuen pakerik.

Ane.- Bizimodu larria benetan!

Lore.- Geiegi maite ninduen... Nik aur bati bezelaxe, parre egiten nion... Alako susmo txarretan denborarik ez galtzeko, esaten nion... Baiña gaitza zuen, eta gaitz arek noiz nai muturtuta, iñorekin itzezin nai etzuela, jartzen zuen... Egun aietan, lenguso gazte bat genduen etxean... Nere senarrak gaitz-aldi gogorra zerabillen... bere maite-kezkak zoratu zuten... Ni, aren bekozkoa ta umore txarra ezkutatu nairik nebillen lengusuari... Senarra mutuago ta berrituago ta alaiago itzegiten saiatzen nintzan. Lengusua ere, mutil gaztea ta itz egokikoa... Gure itz-jarioa ta jolas gogoa, senarrarentzat edena zan, pozoï txar bat aren gaitzarentzat. Uste gutxiena nuenean, Gabon-gau batean, etxetik kanpora bota niñuen, emakume galdu bat ba-nintz bezela... nere gabon-aparia, bidetan igesi, nere burua ezkutatzeko alegiñetan joan zitzaidan.

Ane.- Gertakari negargarria! Zaude pixka bat sukaldera noa.

Lore.- (*Bakarrik berriro*). Jauna! Irudipena ote-da?... Neskatxa au... aurpegi ori... Nere alaba bizi ba-da, emezortzi bat urte izango ditu. (*Jaiki bedi ta ormetako argazkiak ikusten asi bedi*). Mutil gazte jatorra auxe... Auxe irudipena!... nere senarra gaztetan bezelakoa dirudi... Nere Mikeltxo izan bear luke!... (*Beste kua-droari begira*). Jaungoiko Aundia! Nere senarra ta gure ezkontza-eguneko erretratoa!... Nere gizona emen bizi ote-da?... Ez, ez... gu Naparroan bizi giñan... Lengusuren batzuek izango dira auk... Burua nasten zait... (*Exertzera dijoa*).

Ane.- (*Berriro sartuaz, eta Lore burua mai gaiñean botata ikusiaz*).

Zer, zer?... Ez al zaude ondo?

Lore.- Ez da ezer (*Burua jasoaz*). Bidetako nekea ta otza... O! Zer zabiltz baiña orrenbeste neke artzen neregaitik? Lotsatu egiten naiz.

Ane.- Ze lotsa gero! Ar zazu indarrak bidea egiteko.

Lore.- Jainkoak ordaindu deizula! (*Berekiko*). Jauna, au nere alaba Anetxo ote-da, ba?... (*Zerbait jaten asten da*).

Ane.- Ama zanari emateko nagola, iruditzen zait.

Lore.- Ama il zitzaizuenean, zenbat urte zenituen? (*Jan beza*).

Ane.- Urteterdi inguru.

Lore.- Ta seniderik ba al dezu?

Ane.- Nere anai Mikel.

Lore.- Ane dezu izena, beraz.

Ane.- Bai, andrea. Amak ala nai izan omen zuen.

Lore.- Geiegi egon naiz etxe ontan. Milla esker. Nola ordainduko ote dizut egin didazun guzia?

Ane.- Zaude oraindik. Esne beroa ekarriko dizut.

Lore.- Ez, ez. Geiegi litzake; ta gañera presa det. Berandutu baiño lenago, beste leku batera iritxi bearra naiz.

Ane.- Joango zera. Oraintxe bertan nator. (*Ba-dijoa sukaldera*).

Lore.- (*Bakarrik*). Ezin nindeke emen egon... Nere senarra ateratzen ba-da, ezagutu egingo nau... Aurrak txikiak ziran etxetik atera nintzanean, ta ez naute ezagutu, baiña nere senarrak... itxura onetan ez da errez baiña nere abotsak edo beste zerbaitek salatuko niñuke.

Ane.- (*Sukaldetik dator*). Ar zazu, ta on egingo dizu.

Lore.- Zertan ibilli zera, baiña? Zeruak bedeinka zaitzala. (*Artuaz*). Ederra dago... (*Berriz artuaz*). Ta beti emen bizi izan al zerate?

Ane.- Ez. Len Naparroan bizi giñan. Ama il zitzaigunean, onera alda-

tu nai izan zuen aitak. An guzia ama zanaren oroipenez betea baitzegon. (*Lore jaikitzen ikusita*). Zaude patxaran oraindik.

Lore.- Ezin inola ere. Joan egin bear det; Baiña aurrez....

Ane.- Zer nai dezu? Esan.

Lore.- Lotsatu egiten naiz. Onen zikin bait-nago bideko autsez.

Ane.- Lotsak alde batera utzi itzazu.

Lore.- Orren ona izan zeran ezkerro, aldegin baiño len, laztan bat ematen utziko bazenida..

Ane.- Zergaitik ez?

Lore.- (*Zotinka laztanduaz*). Nere alaba maitea!

Ane.- E? Negarrez?

Lore.- (*Laztana etenaz*). Alaba bat nuen. Bizi bada, zure urteak berak izango ditu. Zu laztantzerakoan, bera neukala uste nuen nere besoetan.

Ane.- Ama errukarria! Zenbat zulatu artu duen zure biotz orrek.

Lore.- Oraintxe ezto asko gehiago artuko. Azkena urbiltzen somatzen det nere gain. Zaude Jaunarekin! Noan lekura noala, zure izena bedekintzen ilko naiz. Agur. (*Badijoa ateruntz*).

Ane.- Jainkoak gorde zaitzala bide oietan!... (*Bakarrik jantokian*). Neu ere negarrez jarri nau... (*Begiak igurtziaz*). Biotza erdibi utzi dit andra orren bizitzak... Aita datorrenerako, azkenak inguratzera noa. (*Bijoa sukalderuntz*).

HIRUGARREN AGERRALDIA

LORE

(Ezker-aldeko atadian, zutabe baten babesean geldi bedi. Arnasa oso estutu zaio).

Lore.- Jesus!... nere biotz au... Nola kosta zaidan ixillik egotea!... Eskerrak, jauna! Il baiño lenago, nere seme-alabak ikusteko zoria eman didazulako... Baiña, ez nien ezertxo esan bear... Orain pakean bizi dirala, dirudi... Aitak, il nintzala esan die, eta ez det pake ori nastu nai... Nere ezaguera eman izan banie, berriro nastu zitekean nere senarra... Zorionekoak izan ditezela... Nerea laister bukatuko da mundu ontan... Ez naiz gauza ibiltzeko ere... Pixka bat ementxe exerita, ia indarrak ekartzen ditudan... *(Zutabearen kontra exeri bedi lurrean).*

Agur, nere izar maiteok!... Hamazazpi urte auetan nere aizpa kutun izanok!... gau otz onetan, ni bezelaxe "otz ikaraz zaudete gau beltz sakonean"... Ez al-dezue gaur laiño-estalgarririk?... Ala, neri azken agurra egitera zatozte, maiteok?... Bai, oraintxe ezin nindeke asko bizi... Aurki utziko det lur au, eta il nadiñean, izarrik-izar joango natzaizue, guztioi banan banan laztan bat emateko.

Agur, bidetako autsok... Gaur elurrez estaliak zaudete, laztanok... Nere anai izanak bide oietan... Autsetatik sortuok, autsetara goaz... Il baiño lenago orren nereak izan zaituztedan autsok, lurpera naramatenean, izan zaitezte nere izarra ta kutxa... Gorde nazazue azken-egunerako zuen etxe illunean!

(Ziara etzaten da aterpean) gaurkoa geiegi izan da... Ezin det gehiago... gabon-gabeen etxetik jaurtikia; Gabon-gabeen aituko da nere bizia... barka, Jauna! *(Il itxuran geldituko da).*

LAUGARREN AGERRALDIA

*EZKER ALDEAN, LORE LURREAN, ESKUIN ALDEAN JOAKIN,
ANE TA MIKEL*

*(Lore atadian etzanda il-itxuran gelditu da. Etxe-barrutik Joakin jauna,
Ane ta Mikel azaltzen dira jantokira).*

Mikel.- Ane, nun zera? *(Eskuiko atetik agertuaz).*

Ane.- Emen naiz, Mikel. Zer dio aitak? *(Eskuiko atetik irtenaz).*

Mikel.- Iñoiz baiño illunago dago.

Ane.- Gaur lertu bear du naigabe orrek.

Mikel.-Ez dezu ezertxo ere iritxiko.

Ane.- Iñundik al ba-det...

Mikel.- Beti bezela, barruan itoko du bere miña.

Ane.- Ez diot, ba, utziko.

Mikel.- Bere arantza barrurago sartuko diozu. Besterik ez.

Ane.- Ez ote-degu, ba, bere oñaze orren giltzik jasoko?

Mikel.- Larri ibilli!... Baiña, zaude ixillik. Emen dator aita. *(Aita atera bedi).*

Joakin.- Gabon, gazteok. Aparia maijan al-dago?

Ane.- Ba-lego bezela. Sukaldean pil-pillean dago guztia. Ez al dakizu!
Gaurko emakume eskale arek bezela. Errukagarria! Biotza urra-
tuta utzi dit.

Mikel.- Eta izena nola duela esan du?

Ane.- Lore, gure ama zanak bezelaxe. Orregaitik kupira gehiago egin
dit bere zorigaitzak.

Mikel.- Zenbat urte esan du daramatzala bidetan?

Ane.- Baita ori ere, hamazazpi urte etxerik gabe bide galduetan eske-
an!

Mikel.-Eriotza baño okerragoa gaxoaren bizitza.

Ane.- Esango nuke! Senar itxu baten maitasun geiegiak ekarritako ondoren negargarria. Emaztea etxetik horrela bialdu, bere buruan sortzen zitzaizkion susmo okerragaitik.

(Aita itun eta ixillik zegoana, adi-adi jartzen da seme-alabaren esanetara).

Joakin.- Zer esaten ari zerate?

Ane.- Andra eskale bat euki det lentxoago, oitura degunez, barrura sartuta. Etenda zetorren nekez eta otzez. Arek esan dizkit bere bizitzako gora-berak.

Joakin.- Zer gorabera?

Ane.- Hamazazpi urte dirala, senarrak etxetik bota zuela.

Joakin.- Ta izena Lore zuela?

Ane.- Bai, ta urteak ere, ama zanak bizi izan balitz, izango zituanak. Baiñan zer gertatzen zaizu, aita? Gaxorik al-zaude?

Joakin.- Jarrai aurrera... zer gehiago esan dizu?

Ane.- Gure etxeko galdera asko egin dizkit, eta azkenean laztan bat eskatu dit. Estutu nauenean, negarrak irten dio. Nere urte-inguruko alaba bat ere, bazuela, zion.

Mikel.- Gabon-gauan bertan bere senarrak etxetik bota zuela, esan eztu?

Ane.- Baita ere.

Joakin.- Zergaitik?

Ane.- Maitasun geiegi omen zion senarrak. Beti bere andrea besteren batek ostuko ote-zion bildurrez bizi omen-zan gizajoa. Gaitza omen zuen.

Joakin.- *(Bat batean aita zutituta).* Nun da emakume ori?

Ane.- O! Denbora da atera zala.

Joakin.- Azkar, azkar! Biila zagun. Hamazazpi urte auetan emakume

orren billa ibilli naiz alperrik.

Ane.- Zein da. Ba, bera?

Joakin.- Nik, itxu onek, etxetik bialdu nuen andra errukarria; zuen ama!

Ane.- Ez al-diguzu, ba, esan beti ama il zitzaigula?

Joakin.- Gezur orrek erre dit arrazkero nere biotza.

Ane.- Mikel, goazen azkar! Ama gaxoa! (*Irurak atera dijoaz larri. Atea zabaldu-orduko, ama lurrean dakuste.*) Ama! Ama!

Joakin.- Eldu, Mikel; barrura sartu bear degu.

Ane.- Ai, gure ama gaxoa! Otzak il du etxeko atetan!

Joakin.- (*Barrura sartu ta butaka batean exerita jarriaz. Bularrean belarria jarriaz*). Oraindik bizi da. Biotzari laguntzeko, sendagai ziztatuko diogu. Irakin-arazi bereala orratza ta zizta-otziak.

Ane.- Geure ama da-ta! Ai, gaixoa! Ez jakin bear nik au lenago!

Joakin.- Sendagai onek bere senera ekarriko du. (*Ziztatzen dio senda-gaia*).

Ane.- Ai, gure amaren azken negargarria!

Mikel.- Begiak zabaltzen asi da. Arnasa indartzen ari zaio.

Ane.- Jesus ona! Ez dedilla il gure ama!

Joakin.- (*Eskumuturretik elduaz*). Biotzak obeto erantzuten dio.

Lore.- (*Ezaguera artean erdizka*). Nun nago?

Ane.- Zure etxean, ama.

Lore.- Zer gertatzen da emen?

Mikel.- Ate-ondoan erorita zeunden ama; ta barrura sartu zaitugu.

Lore.- Zergaitik ez nauzue iltzen utzi?

Joakin.- Lore! Nere emazte zoritxarrekoa! Azkar asko damutu nintzan nere itxumenaz... Zenbat urte zure billa? Nun ezkutatu ziñan?

Lore.- Joakin! Zure kalterako ezagutu niñuzun.

Ane.- (*Lepotik estutu ta laztanduaz*). Ez esan orrelakorik, ama. Orain gurekin biziko zera.

Mikel.- Bai, ama. Bereala sendatuko zaitugu.

Ane.- Zergaitik eztidazu ezer esan lenago, ama. Etziñan orrelan gaxotuko. Otzak garbitu etzaituenean atadian!

Lore.- Geiegi maite ziñuztedan, maiteok, zuen pakea galtzera etortze-ko. Au izan da etxe onetako gaitza... Guztion ondamendia ekarri duena... Iltzat niñuzuen; ondo bizi ziñaten... Nere berri jakin izan ba-zenute, zure gaitza berritu zitekean, Joakin. Berriro asiko ziran zure susmo ta maite-kezkak; berriro zure biotzeko inpernu ura... Ez nuen zuen aurrera agertu bear.

Ane.- Zure maitasun geiegiak ekarri zaitu orain egoera ontara.

Lore.- Bai. Maitasun geiegiak jaurti niñuen etxetik; maitasun geiegiak arrazkero euki nau zuen igesi ta ezkutu. Ta orain berandu da.... Nere bizia ba-dijoakit.


Mikel.- (*Amari lepotik elduaz, Ane'ren beste aldetik*). Ez, ama. Zure bizia bearrekoa degu.

Lore.- Oso pozik noa. Zeruak zuen besartean iltzeko zoria eman dit azkenean.

Joakin.- (*Lorearen aurrean belaunikatuz eta aren magalera bere burua botata*). Nik il zaitut, Lore. Barka zaidazu nere itxumena! (*Negarrez*).

Lore.- (*Bere eskuak senarraren buru-gañean dituela*). Maite-gaitzak galdu zizun burua... Guzia neurritz egin bear da mundu ontan, Joakin... Maite ere... neurritz... Ta orain... neguak galdu du zuen Lorea... (*Indar guziak batuaz*). Agur, nere kuttunok!... ze...ru...rar...te! (*Iltzen da*).

AZKEN





EUSKAL ANTZERKI TOPAKETAK

A Z P E I T I A

ARGITARATU DITUEN LIBURUXKAK

- 1990 • ANTONIO MARIA LABAIEN eta EUSKAL ANTZERKIA.
- 1991 • TORIBIO ALZAGA heriotzaren 50. urtemuga.
- 1992 • LÉON LÉON.
• ANASTASIO ALBISU.
- 1993 • ON MANUEL LEKUONA ETA BERE TEATROA.
• ARKOTXA ANAIK EUSKAL ANTZERKIAN.
- 1994 • KATALINA ELEIZEGI.
“GARBIÑE”
• EMAKUME EGILEAK EUSKAL ANTZERKIAN.
Maria Arizmendi/Janamari Malhariau/Miren Arrizabalaga.
- 1995 • IÑAKI BEGIRISTAIN ALBISU (1922-1984).
Antzerkigilea.
- 1996 • XABIER LIZARDI (1896-1933).
Antzerkiak: Laño ta Izar.
Bi aizpak.
Ezkondutik ezin zitekeen mutilla.
- 1997 • PIARRES LARZABAL CARRERE.
OROITUZ.
• AITA JOSE ANCHIETA
(S.J.) Dohatsua.
- 1998 • A. ARZELUS eta A. M^a LABAYEN
Belaunaldiko antzerkilariak
- 1999 • NEMESIO ETXANIZ
Teatrozaleen gogoan